

NON ZER**Kultura**

SANTIAGO ONAINDIAREN JAIOTZAREN MENDEURRENA (1909-2009): Idazle batzuen iritziak (<i>A. Urrutia, J. Intxausti, J.M. Iriondo, G. Aulestia, I. Etxebarria</i>)	3
Karmeldar, misiolari, irakasle, idazle... euskalduna: Juana Atxabal Agirreamalloa, <i>Iñaki Sarriugarte Irigoien</i>	24
Kate O'Brien (1897-1974), <i>Joseba Felix Tobar-Arbulu</i>	45

Gizartea

Hizkuntzak babesteko nazioarteko erakundea, <i>Patxi Juaristi</i>	54
Detailleak, <i>Juan Mari Arrizabalaga</i>	62

Eliza

Caritas in veritate, <i>Andoni Olea</i>	83
---	----

Iritziak

Euskal Herriko liturgian kantu berriak eta berrituak eta giza eskubideak, <i>Dionisio Amundarain</i>	86
Kristau bilduma, <i>Jenaro Garate</i>	90
Historiaren filosofia 3, <i>Roman Garmendia</i>	101

Literatura**Kontu-Kontari**

Iratzerreden omenaldia, <i>Joseba Aurkenerena Barandiaran</i>	107
---	-----

Olerkiak

A. SANTI ONAINDIAREN OLERKI BATZUK (bere jaiotzaren ehungarren urteurrenean)	119
--	-----

KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

Zuzendaria: Julen Urkiza (Markina)

Idazle kontseilua: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

Helbidea: Karmeldarrak - Markina
48270 Markina - Bizkaia (Tel. 94-616 6019)
karmelaldiz@telefonica.net

Harpidetza: Urteko harpidetza: 13 €.
(Europa: 18 dolar; Amerika: 25 dolar)

*Jarri, mesedez,
argi eta garbi zeure helbidea,
guk ipinitakoa ondo ez balego.*

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga

Diruz lagundutako aldizkaria:



Kultura Saila

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

**SANTIAGO ONAINDIAREN JAIOTZAREN MENDEURRENA
(1909-2009)****IDAZLE BATZUEN IRITZIAK*****Sarreratxoa***

Aita Santi Onaindiaren (1909-1996) jaiotzaren mendurrena dela eta, *Karmel* aldizkariak bere gomuta eginez omendu nahi du bera. Hori dela-eta, Aita Santi ezagutu zuten zazpi idazleri galdera bat zabaldu diegu, euren iritzia eman dezaten. Eta galdera hau egin genien: *Nola ikusten duzu A. Santiren lana bere denborako euskal literatura eta kultura barruan, batez ere gerra osteko hamarkadetan?*

Bi orri biko erantzuna eskatzen zen, eta hemen hurrengo orrietan A. Urrutia, J. Intxausti, A. Arejita, J.M. Iriondo, G. Aulestia eta I. Etxebarria idazleen erantzunak:

Karmel zuzendaritza.

Santi Onaindia: *Oroi-txinpartak*

2009. urtean, Santi Onaindia euskaltzalea eta euskara-sustatzailea jaio zela ehun urte betetzen direnean, esku-eskura izan dut haren *Oroi-txinpartak* izeneko liburuak.

Mintzo da han Amorotoko semea, bizitzaren nondik norakoak azalduz. Barne-barnetik erakusten dizkigu euskararekiko zituen kezka eta grina, eta, zer esanik ez, euskal kulturarako zaletasuna.


Jokaera horren erro sakon eta zabalak etxetik zetozkiola ezin uka. Fraidegai egindako urteak, gerra eta horren ondorengo latzak... horra hor gertaerak, haren gogo bizia areagotu zutenak. Bide beretik, gerra osteko espetxealdia eta sufrimendua, nork bere herria defendatzearen ondorio gogorra.

Gero, Euskal Herriaren magalera osterera ere, ahal zuen moduan, euskara suspertzeko helburuarekin. Urte errazak ez ziren haiek izan, alajaina! Euskara zokoraturik, bazterturik, ilunpe osoan zegoen.


Santiago Onaindia, aldiz, karmeldar janzkerarekin, non-nahi eta noranahi euskararen zabaltzaile eta propagandista bikaina, ahoz eta idatziz, elizan nahiz gizartean. Garai hartako euskal liburuaren zerrenda urrian, berak jarri zuen lehen habea, Euskal Herrian bertan, *Mila euskal olerki eder* lan eskergarekin. Gerora ere, euskal liburuak ugari, berak idatzi, euskarara itzuli edota beste batzuei idatzaraziak. Hitz gutxitan adierazteko, esan dezadan, euskara eta euskal kulturaren bultzatzaile aparta izan zela, euskararentzat urte triste eta hits ziren haietan.

Horiek horrela, norbaitek galde dezake ea horretarako baliabide ekonomiko amaigabekoak zituen. Ezta hurrik eman ere. Orduko giroan euskarak ez zuen itzal handirik. Aita Santik, berriz, asma ahalak asmatu eta literatura-lehiaketetara bere burua aurkeztuta, handik eskuratzen zuen dirua, gero euskal liburuen argitalpenetan inbertitzeko. Horretan ere, ezohikoa Onaindia karmeldarra.

OROI-TXINPARTAK



**EGIA DANA,
EGIZU MAITA**



Esanak esan, norbaitek galdetuko balu zein ziren liburu-rik liburu, euskal kultura pizteko eta euskaldunekin harremanak izateko erabili zituen tresnak, zalantzarik gabe erantzungo nuke nik bi ikusten ditudala nagusi: lehena, *Karmel* aldizkaria, eta, bigarrena, *Olerti* aldizkaria. Bi-biok azpimarragarriak, eta, askoren kasuan, euskal aldizkari lehen-lehenak, euskarak aldian-aldian gure etxeetan bere presentzia nabarmentzeko.

Halakoen artean nago ni neu ere, Ereño-Gabikan jasotzen bainituen *Karmel* aldizkariaren aleak, hango abadea zen eta etxeko nuen Juan Kobeagak eta Justina Kobeaga haren aitzak artezki gordeak eta bilduak. Han ezagutu nituen nik hamaikaxo euskal idazle, lehengoak nahiz berriagoak. Han ere, gogoa piztu, gerogarrenean *Karmel* horretan idazteko eta parte-hartzaile izateko.

Juan Kobeaga izan zen, hirurogeigarren hamarkadaren azken urteetan, Santi Onaindiarengana eraman ninduen. Jardunean aritu ginen hirurok, Larran igaro genuen egun gogoangarri batez. Orduantxe ere, esku-eskura, hark eman zizkidan, labetik harakoak, euskal literaturaren lehen tomoak. Orri bitxiak, zin-zinez! Han ezagutu nuen bera, eta han izan nuen nire lehen hitzordua berarekin, gero ere sakondu eta finkatu zena, *Karmel* aldizkariaren kolaboratzaile izatera iritsi nintzenean.

Banekien nik, alabaina, haren ideiak eta euskalgintzan nagusi zirenak ez zetozela bat, euskararen ortografiari zegokionean. Duin eta zabal aldeztu zituen Aita Santi Onaindiak bereak. Urte batzuen ikuspegian, argi dago horrek ez diola meriturik txikiena ere kentzen bere lanari; are gehiago, lana bera goستن eta handitzen du, egun tradizio horiek euskara baituan txertatu behar ditugulako.

Aita Santiago Onaindia karmeldarra, euskalari sutsua, euskal suspertzaile nekaezina, eta guztion gomutan dagoena. Hitzez

eta idatziz jakin zuen hark euskara eta euskal kultura defendatzen eta laguntzen. Jakin dezagun guk ere, ehun urte geroago eta asmo berak gidaturik, hura eta haren modukoak ohoratzen eta goresten.

Andres Urrutia

Aita Xanti: Norberaren barne isilean bizirik!

Aita Xanti Onaindia aipatzean haren hainbat ekimen eta lan da burura datorkiguna, denar ere harreman-mota ezberdinen bidez gauzatuz joan ziren ahaleginak. Halako harrera abegikor eta irekiko gizona izanik, karmeldar honen lagunarte-ingurua zabala izan zen, fraideen artean, noski, baina era berean kultur eta euskara-munduan.

Behin baino gehiagotan topo egin genuen elkarrekin, han eta hemengo topaleketan, baina harreman pertsonal hori ez zen izan adiskidetasun iraunkor batean zaindua, noizbehinkako hitzorduetakoa baizik.

Hala ere, nire gaztaroko euskaltasun pertsonalaz lekukotasunik eskatu zaidanetan, Xanti Onaindia ia beti aipatu izan dut, adibidez azken egun hauetan Amerikarako bideo-grabaketa bat egin behar izan dudanean.

Aita Xanti bere *Karmel* eta argitalpenekin hasi berri zenean, mutikoa nintzen ni; argitalpen berri gutxi agertzen zen urte haietan, hagitz gutxi (gogoan duzue 1949an sortutako Itxaropenaren *Kulixka Sorta* hura?), eta hamazazpiren bat urte nituela suertatu zitzaidan Onaindiaren lanekin topo egitea.

Euskalgintzako mundu idatzirako lehen urratsak ematean, has-teko *Euzko-Gogoa*-k izan zuen nire baitan kultur leku behinena (geroxeago *Egan*-ek beste molde batean bezala). Bestalde, liburu

jakin bat dago, euskal prosa idatziaren gozamina eta bikaintasun posiblea erakutsi zizkidana: Axular-en *Gero* (1954an M. Lekuonak emandako edizioan, Villasanterenean baino lehenagotik). Filosofia-ikasketetan nobilela, euskal prosaren emaitza onik egon bazegoela erakutsi eta esku-eskuetan jarri zidana izan zen hori.

Baina, alde horretatik, Lekuona baino lehen, niretzat Onaindia dago. Zer dela eta?

Euskal Literaturaren Historia ezagutzen ez genuenean (Orixe-ren gerra-aurreko *Edestia* ez zen gazteonganaino heldu, eta artean Villasanterena ez zegoen idatzita), iraganeko idazle on bat ez ezik olerkari-andana ederra ere bagenuela erakutsi zigun liburu hura da niretzat gogoangarriena: *Milla euskal olerki eder* (1954). Paper finean inprimatua, ehunka orrialdekoa, mila olerki zekartzana, Jainkoak daki zenbat ordu eta sos kostatako argitalpen miretsia.

Orain baino olerki gehiago irakurtzen nuen urte erabakigarri haietan Aita Xantiren argitalpen hori, geroko *Olerti* (1959) eta gainerakoak baino, nire euskal kultur-segurutasunen euskarri bat izan zen, inoiz ahaztu ez dudana, eta neure buruari “*Izan ere bagara!* esateko balio izan zidana.

Gau ilunduan, bat-bateko oinartzargi gertatu zen antologia hura niretzat, urtez urte eta belaunez belaun euskaraz egindako lauzpabost mendeko olerti-ibilaldi historikoaren lekuko haragiztatua izan zen *Milla euskal olerki eder*.

Aita Xantik asko eta ugari idatzi zuen, baina “nire” Xanti Onaindia, argitaratzaile hori da, bizitza osorako zirrara hori indarrean utzi zidana. Haren jaiotzako ehungarren urte honetan, egiaz dago, bada, bizirik eta neugan Aita Xanti, barne isilean baina zinez bizirik. Egokiera honetan, aitoren txiki baina niretzat baliozko hau izan bedi bihotzez eskaintzen diodan nire omen-gorazarrea.

Joseba Intxausti
2009-09-24

Aita Xanti Onaindia

Gerra aurre eta osteko giza-emakume haiek bazuten hitz gutxitan esaten zaila den zerbait berezia, nere irudiz: xarman-garriak ziren, buruz jantziak eta bihotzandiak, ausartak eta zorrotzak aberriaren eta euskararen mundu honetan. Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Jautarkol, Joseba Zubimendi, Luzear eta jende horren lanak irakurri ditudan bakoitzean tximak zutitzen zaizkit oraintxe ere.

Xanti Onaindiarengana bildu behar dut ordea. Eta zaila egiten zait gizon irribarretsu eta argi haren balio literarioaren laburpen bat egitea hemen, sentimentuek itsutzen baitute baten jakinduria laburra. Izan ere, hura gogoratzean, gerra osteko haren balio literario guztien gaintik gizon oso abertzale eta maitagarri baten irudia datorkit gogora bete-betean. Larreako komentuan elkarrizketa luzea egin nion behin batean, Loiolako irratirako, hartaz eta huntaz patxada ederrean hitz eginez. Eta luma zorrotzekoa ez ezik hitz-jario ederrekoa ere iruditu zitzaidan huraxe. Nabarmen zenez, ondo maiteak zituen literatura, poesia, bertsolaritza eta euskal kultura orohar. Hitz egiten eta idazten egokia eta ugaria zen, guztiz oparoa... Bestela nola idatziko zuen idatzi zuen adina?

1993an, bertsolariek eta bertsozaleek Alfontso Irigoien eta bioi Donostian egindako omenaldi egunean hitz egin nuen azkenengo aldiz; zorionak ematera joan nintzaion, halako omena ondo merezi zuela sinestuta, eta erdi lotsatzen eskerrak eman zizkidan “neuk ez neban holakorik merezi, Joxemari!” esanez.

Gerra osteko bere lan eder batetik izan nuen nik haren lehenengo ezagutzea, artean hamasei bat urte nituela. Gabirian ikasle nintzen, eta euskeraz irakurri genezan animatzen gintuzten gure irakasle aita Larrarte zenak eta Sarasolak. Eta behin Txomin Agirrerren *Garoa*, hurrengo batean Orixeren *Euskaldunak* edota Xanti Onaindiaren *Milla euskal eder* liburu eder hu-

ra opari ekarri zizkidaten, Erregeenetan. Ez nintzen hasarre, alajainetan! Eta goitik behera irakurri nituen denboraz.

Gogoan dut *Milla Euskal Olerki eder* liburu lodi eta bete-be-tea 1955eko urtarrilaren lehenetan eman zidatela. Eta edukinez eder/handi baina itxuraz pobre samar iruditu nonbait eta aza-lez dotorexeago kuadernatzeko eskatu nuen, merezi ere bazuela-ta halako liburu batek –Handik urte batzutara badakidan norbaitek eskatu zidan liburua, eta orain ez naiz ausartzen itzultzeko eskatzen, nongo liburu-apalan dagoen ondo badakit ere. Gainera, beste nonbaitean faltako da haren ordaina. Bar-katu!–.

Goitik behera irakurtzen hasi eta *Milla Euskal Olerki eder* li-buru handi hari esker ikasi nuen gure Euskal Herri honetan hainbat olerkari izan zela lehen ere, eta Migel de Unamuno ere poeta izan omen zela inoiz –nolabaiteko euskal poeta baina–, eta olerki eta poesia asko idatzi zela gurean. Gure herriko apaiza zen Jautarkolen olerkiak ere halaxe irakurri ahal izan nituen lehenengo aldiz. Eta Loramendirenak, Lauxetarenak, Eusebio Erkiagarenak...

Handik urte askora, ikasle nintzela jaso nuen *Milla Euskal Olerki eder* liburu hura argitaratzean zer asmo zituen galdetu elkarrizketa batean, eta “Poesia dala esango neuke herria gehienik zuzpertzten eta lotatik esnatzen dabena. Eta orain urte batzuk liburu hori argitaratu nabenean bazan holako zerbaiten premiña gure artean. Olerkia beti atsegin izan zait, eta uste dut besteei ere atsegin izango zaiela neri atsegin zaidana”, erant-zun zidan.

Baina gehiago ere ikasi nuen liburu hari esker, aita Luis M. Larrartek kontatu baitzizkidan Onaindiatarren gerrako istorioak eta balentriak, artean ez nekien-eta aita Olaso ere familia hortakoa zenik, nahiz eta ordurako entzunak nituen Radio Parise-ko haren zenbait hitzaldi. Eta handik aurrera aita Xantiren ba-lilio literarioak baino gehiago estimatu nituen hark Euzko Guda-

S. ONAINDIA



OLERKI GUZTIEN BILDUMA

Edizioaren prestatzaille :

JULEN URKIZA

rostean kapilau zela egin omen zituenak eta haren aber-tzaletasun zintzoa –esnatu berria izaki ni alor horretan–.

Aita Xanti Onaindiak oso maitea zuela esan dut gure bertsolaritza eta bertsoa. Eta horren lekuko dira berak idatzi zuen *Gure bertsolariak*, *Enbeita'tar Kepa* eta beste hainbat lan bikain ere, *Karmel*, *Olerti* eta bestetan idatzi edo idatzarazi zituenak ahazteke. Liburu zaharrak ikertu eta astinduz, berri- z, luze eta zabal kontatu zizkigun antzinako Egipton, Txinan, Japonian, Indian, Grezian, Erroman, Frantzian, Espainian, Portugalen eta abar izan omen ziren bertso-lari-koblakarien kontuak ere.

Eta bertso-baratze horretan egin zuen lanagatik, aita Xantik bertsolaritza eta bertsoa maite zituelako, Gaurdia Zibilak Andremari Pilarikotan (Andremari Garotakotan, gurean) jai egiten omen zutela eta urriaren 12an bertsolari eta bertsozale asko Markinan bildu ohi ginen urtero, aita Migel Mari Juaristiri esker; eta 1970eko nire hitzaldi kaskar hartan esan nuena idatzita aurkitu dut, *Bertsolari* izeneko aldizkari bat sortu behar genuela-ta. Hitzez hitz zera nioen:

“Eta zuzendari nor izandutuko dugu? Gaur hementxe elkar- rren artean erabaki beharko genuke hori ere. Baina ideia beza- la balio baleza, Larreako aita Xanti Onaindia langile porrokatua dela uste dut, eta lan hauetan ondo jantzia eta ikasia. Prest le- goke gainera lehenengo urteetako urratsak markatzen hasteko. Orain arte *Gure bertsolariak* izenekoia, *Mila euskal olerki eder* eta beste lan eder asko egina da alor honetan. Denporaz ere gutako edozein baino lasaiago ibiliko dela nago (eta nik ez nuke esango fraileak alperrak direnik). Ez du kontu zorrotzak hartuko dizkion emaztekiaren beldurrik ere izango...”.

Eta, zapla! bere izena proposatu nuen aldizkari horren zu- zendari izateko, hiru-lau egun lehenago hitz eginda. Inork ez zuen esan ezetzik, baina ez genuen proiektua martxan jartzeko hainbat adore izan, eta hartan gelditu zen ordukoz.

Gaur, lerro apal hauek idaztean, garrantzitsua eta esker onekoa iruditzen zait sekula inork aipatuko ez dituen anekdotak hauek gogora ekartzea aita Xanti Onaindiaren gorantz.

*Joxemari Iriondo
2009ko irailak 24*

Zorionak Aita Santi

Aita Santi Onaindia (1909-1996) orain dala ehun urte jaio zan 1909. urteko epailaren 24an, Amorotoko Atxuriarte base-rrian. Ondo dagokio benetan bere abizen “On-andia,” bada euskal literaturarako, eta esparru honetan batez ere gure gerra-osteko poesiarako, opari ona izan zan, aldizkari sorkuntzan, literaturaren histori esparruan, bere poesi kreazioan, olerki itzulpenetan, literatur antologiaren lanetan, eta dibulgazio-ikerketa arloan. Euskal Literaturan idazlerik emonkorrenetakoa izan genduan bai prosa eta bai olerki alorretan. Lankortasunaz aparte, haren giza balore batzuk azpimarratu nahi neukez: abegikortasuna, ederzaletasuna, naturarekiko maitasuna, arpegiko irribarre atsegina, bizitzarako zeukan baikortasuna eta haurren halako inozotasun berezia. Ondo merezita jaso ebazan “Ohorezko euskaltzain” izendapena 1979an eta 1990ean “Eusko Jaurlaritzak emon eutson “Euskal Letretako Merezimenduzko Saria”, euskeraren alde egindako lanagatik. Zorionak bada Aita Santi zeure “ontasun” eta “handitasunagatik” eta aurten betetzen dalako zeure jaiotzaren mendeurrena.

“Kirikiño” Batailoiko kapeilaua izateagatik, atzerriratzeak eta espetxeak jasan ebazan eta bihotz onekoa izan zalako,

Dueso, Langraiz, Dueñas Karmona presondegietako zigorrak ez eben haren bizitza garratu, eta kristau fedean oñarriturik Nazaretoko Jesusen Berri Onaren jarraitzaile sutsua izan genuan beti, hil arte 1996an. Gasteizen zendu zan urte honen otsailaren 11n.

Haren ekoizpenaren artean lau lan azpimarratu nahi nekez batez ere: *Milla euskal-olerki eder* (1954), bi aletan); *Oleriti* (1959) aldizkaria; poesigintza pertsonala, (*Olerki guztien bilduma*, 1989) eta *Euskal Literatura* (sei aletan sailkatua: 1971-1990).

Milla euskal olerki eder.

Hogeigarren mendearen bigarren zatian eta euskal literaturaren baratzean, liburu bat arrakastatsua izan baldin bazan hauxe izan zan. Frankismoaren denboraldi luze eta garratz haretan, 1950. hamarkadan euskera ikasi eta suspertu nahirik zebilen jende askorentzat, 1175 orrialdeko antologia hau euskal literatur erreferentziarik onenetakoa bihurtu zan eta gaur egun ere horrela jarraitzen dau. Pozgarria izan zan benetan euskaltzale askorentzat lehenengo aldiz geure idazle eta bertsolariekin topo egitea: Etxepare, Oihenart, F. Arrese Beitia, S. Arana, P.T. "Etxaun, J.B. Elizanburu, "Zaldubi", "Xenpelar", "Bilintx", J.M. Iparragirre, P.M. Otaño, K. Enbeita, "Basarri", "Txirrita", L. Akesolo, J. Zaitegi, "S. Mitxelena, T. Monzon, "Xalbador", "Iratzeder", J. Mirande, J.M. Lekuona, etab. Liburu hau izan genduan Aita Santiren lehenengo lan handia eta etorkizunean osperik handiena emon deutsona.

Oleriti (1959-1991).

Gerra-osteko basamortu lehor haretan, olerki aldizkari baten beharraz konturaturik eta J. Zaitegiren Guatemalako *Euzko-Gogoa* (1950-1956) aldizkaria desagertu zala egiaztaturik, aldizkari barri bat plazaratzea erabagi eban. Zornotzako La-



rreako karmeldarren komentua izango zan kokagune egokie-na eta bera sortzaile, zuzendari eta belaunaldi ezberdin biren arteko zubigilea. Hainbat euskal idazlerekin hartu-emon be-roak izan ebazan. Zerrenda luze honetan agertzen dira. G. Manterola, N. Etxaniz, “Bordari”, “Zeleta”, E. Erkiaga, A. Zubikarai, B. Aurre-Appraiz, S. Muniategi, etab. eta bestean, garai berriko poeta gazteak: (J. San Martin, G. Aresti, J.M. Lekuona, B. Gandiaga, J. Azurmendi, P. Iztueta, L.M^a Mujika, etab.). Neure eritziz, *Olerki* izan zan poesiaren arloan Euskal Herrian izan dugun aldizkaririk osoena eta onena. Horrez gainera, aldizkari honen inguruan Francoren polizia galazotako hainbat batzar antolatu ebazan euskal literaturaren onerako. Olerkari eta olerkarien sustatzaile izan genduan Aita Santi, inolako zalantzarik gabe. Poesiagintzaz aparte, garrantzitsuak izan ziran Literatur Lehiaketak eta “Larreako Eguna” gogoangarriak euskal literatura berbiztu eta poeta gazteen olerkiak argitaratzeko.

Poesiagintza pertsonala. (Olerki guztien bilduma (1989))

Beste idazleen liburuak euskeratzeaz eta argitaratzeaz gain, bere lan propioa egiteko beta ere izan eban, bai prosan eta bai olerkian. Aita Santik gaztarotik eroian barru-barruan poesiarako grina eta euskal kantutegiko doinu politak dastatzeko guraria. Ez da harritzekoa, bada, haren poesiagintzan gerra-aurreko hiru olerkari haundien eragiña (“Lizardi”, “Orixe,” eta “Lauaxeta”) nabarmentzea Lehenengoaren lirikotasunaren zantzuak errez nabaritu daitezke; bigarrenaren erlijiozko gaietarako jokera ere nabarmena da eta, azkenez, hirugarrenaren Bizkaiko euskalkiaz eta teknikaz baliatu zan gipuzkera baztertu barik. Ez zan heldu hirukote honen mailara, baina erruz idoro geinkez irudi eta metafora politak haren olerkietan. Liburu honek 318 olerki ditu eta zati bi nagusitan sailkatuta dago: “Goiznabar” eta “Nere Baserria”.

KARMEL



«Oleri» (1959-1993), Julen Urkiza

Euskarazko atalak Arantzazuko Andra Mariari buruzko liburu ezezagun batetan, *A. Unzueta*

N. Etxanizen gutun bat Gobernadoreari, *J. M.^a Arrizabalaga*


Benetako barruko pake bideak astertzen, *K. Agirre*

Eleiza Katolikua-ren Katezismoa, *A. Olea*

Unibertsitateko arazo luzea, *P. Uribarren*

Itxas lapurrak?, *A. Zubikarai*

Letra gozoak, *M. Ugarte, E. Erkiaga Legor*



1993-1

Urtarrila - Martxoa
203. zenbakia

Euskal Literatura (1971-1990)

Baten batek esan daike lan hau, egungo literatur historiografiaren ikuspegitik begiratuta, ez dagoela gaurkotuta eta ez dala garrantzitsua. Baina, nire ustez, S. Onaindiak bertan emoten dauan informazioagatik soilik, (L.Villasanteren *Historia de la Literatura vasca* (1961) liburuari gertatzen jakon modura) obra luze hau itzelezko altxorra da eta iraganean guztiz onuragarria izan zan euskaltzale guztiontzat, literaturazale eta baita ere hizkuntzalarientzat.

Haren literatur lanen artean aipagarriak dira baita ere: *Gure Bertsolariak* (1964), *Enbeita Oleskaria* (1965), *25 antzerki labur*, (1985), *Gure Urretxindorra: Enbeita tar Kepa* (1971), *Oroi-Txinpartak* (1988), etab. Itzultzaile gisa ere lan oparoa egin eban Aita Santik: Homero, Dante Aleghieri, W. Shakespeare W. Goethe, Avilako Teresa, Lope de Vega, M. A. Asturias, R. Darío, R. Tagore, G.A. Becker, J. Verdaguer, W. Whitman, M. de Unamuno, A. Trueba, P. Baroja, A. Machado, J. Ibarbourou, G. Mistral, P. Neruda, F. García Lorca, "Lauaxeta", V. Huidobro, G. Papini, B. L. Pasternak, etab.

Amaitu dagigun lan hau kontutxo batekin. G.Aresti eta S.Onaindia ez ziran eritxi bardinekoak alor batzuetan. Hala ere, egun batean, karmeldarraren bihozberatasunak ikuturik, bilbotar poetak berba pozgarri hauek bialdu eutsozan. Hauxe dinto: "Orain arte ez dot berorren bearra begi onakaz ikusi baiña: Biba Aita Onaindia;"Guk ere deadar bardina egingo dogu: Gora Aita Santi eta Zorionak;

Gorka Aulestia Txakartegi

Aita santi onaindia euskal literaturan

Aita Santi Onaindia euskal literaturan eta batez be gerra osteko aldian ipini deuste gaia. Oratuko deustat horri, baina beste gogoramen bat etorri jat eta horregaz hasi gurako neuke idazkitxu hau.

Aita Santi umetako sasoiari daukat nik memorian gordeta. Gure auzoan, San Lorentzoren ermitea dago etxe ondoan, eta abuztuaren hamarrean, santuaren egunean, mezea egiten da bertan. Ni gaztetxua nintzala jaiak be egiten ziran, herrikoen bestean ia-ia, gaur gitxiagora etorrita badagoz be.

San Lorentzo eguneko mezea ez eban emoten herriko abadeak, eta orduan hondino abade bi egozan herrian. Larrako fraile bat ekartea zan ohiturea, eta, nire akorduan behintzat, aita Santi eta aita Luzio etorten ziran gehienetan, bata edo bestea.

Horrez ganera, urte bakoitzean maiordomo egiten ebanak etxera eroaten eban frailea bazkarirako konbidadu, eta halan egonda dago aita Santi gurean be bazkainten, jaieguneko banketean.

Niretzat, zetan esanik be ez, aita Santi fraile bat zan, mezarako etorten zan fraile bat, ez gehiago ez gitxiago.

Gerora Zornotzako Karmelora ikasten joan nintzanean, nahita ikasketa guztiak erderaz egin, aita Luis Arostegi euki neban irakasle, eta harek, erdal literatura ezeze, euskera eta euskal literatura be erakusten euskuzan. Hor topau neban lehengoz aita Santiren literaturarako alderdia, izan be, bere liburak erabilten genduzan, *Euskal elertia* (Amorebieta: Ibaizabal, 1978) teoriarako eta *Laminak* (Amorebieta: Santi Onaindia argitaldaria, 1978) irakurgai modura.

Ikasketetan aurrerago eta sarriago suertau jat Aita Santiren lana eskuartera edo haren lanetara jo behar izatea konsultak

egiten. Egia esan gauza asko izan da Aita Santi, idazle, ikertzaile, itzultzaile, argitaratzaile, kultur eragile... zer ez.

Behin honetara ezkerro, Aita Santiren ekarpenetatik literaturako gaietan nik alderdi bi nabarmenduko dodaz.

Bata da euskal literaturaren bibliografiarako egin dituan ekarpenak. Haren *Mila euskal olerki eder* gaur egun be antologia guztiz erabilgarri eta probetxugarria da. Lan hori argitaratu zanean, 1954an, euskerazko liburuak eskasak ziran, euskeraz zeozer leiduteko zaletasuna eukanak ez eukan errez egarri hori asetuteko lekua topatea. Ezta egileak berak be hor batu zan material guztia eskuratzeko be. Orduko eta hurrengo hamarkada bietako euskal irakurleentzat lan hori miragarritzkoa izan zan, eskuliburu ezinbestekoa. Hor ikusi eben askok lehenengoz euskeraz be literatura egin daitekela eta egin izan dala.

Bibliografiaren ganeko puntu honetan derrigorrez aitatu beharrekoa da Euskal Literatura sei aleko bilduma be. Aurrekoan testuak eurak irakurteko emoten baditu be, oingoan idazleen barri batzen dau, euskal literaturaren historia osotuz, mendez mende. Nor dan idazle eta nor ez erabagiteko nasai eta erizpide zabalagaz jokutzen dau, horregaitik hor dagoz beste inon topetan ez diran idazleen izenak eta ezagutzen diran datu apurrak. Sorne Unzueta *Utarsus*, Eusebio Erkiaga, Bernardo M^a Garro *Otxolua* eta beste idazle batzuen ganean beharren ibili nazenean behin baino gehiagotan hor topau dot beste liburuetan baino laguntasun handiagoa.

Bibliografiaren zati hau amaitzeko, bertsolariei buruz eta Enbeitatarren ganean batez be egindako argitalpenak ekarriko dodaz gogora. Bertsolariak eta bertoak gustukoak ditu eta literaturako idazlanen mailara ekarri ditu.

Bigarren alderdi bat be aitatu gura dot, idazleen eragile iza-tearena. *Karmel* eta *Olerti* aldizkariak zuzendu ebazan, urte-tarteka, agintarien baimenen arabera. Berak zabaldutako atean idazle zahar eta barriek topau eben sarbidea, euskerarentzako

KARMEL

Bizkaiko udalerrri txikiak: gogoetarako zenbait datu, Patxi Juaristi

Teresa Lisieuxkoa, Andoni Olea


Izen propioen deklinazioaren gainean, Mikel Kaltzakorta

Escribadu gazteentzako Eusquerazco Instruziñoiac, Mogelen Erara Moldatuac, Eskribau zaharra

Bilaketa baten prozesua, Ana Urkiza

Teresa Lixieuxkoaren hiru olerki, (Luis Baraiazarra)

Gerard Manley Jopkins (1844-1889), Luis Arostegi



Santi Onandia,
euskal letrei emana,
Luis Baraiazarra

1996-1

Urtarrila-Martxoa
214. zenbakia



hain urte ilunak izanik, argi eta ilusino izpi baterako bidea. *Olerti* aldizkariagaz batera Olerti-Egunak ospatu ebezan Larra-ko komentuan hirurogeiko hamarkadan. Euskal letretan izen handia euken idazleak han batzen ziran, elkar hartuta indarbarrituteko.

Aita Santik euskal gaiez beste pertsona askogaz izandako gutun-trukea argitaratuta dago *Eskutitzak euskal literaturari buruz* izeneko liburuan (1974). Nahikoa da horrerri begitu bat egitea zenbat euskaltzalegaz euki eban hartu-emona jabetzeko. Hor ikusten da argi zenbateraino eragile izan zan eta ze estima eukan idazleen artean.

Euskal literaturako urterik oparoenak, gerra aurreko euskal bizkundekoak, ezagutu ebazan, baina diktadurako urterik ilunenetan behar egin eban. Behar horren frutuak ondino be babilio handia dauke euskal literaturaren zirrikituak ezagutu nahi dituanarentzat.

Igone Etxebarria

**KARMELDAR, MISIOLARI, IRAKASLE,
IDAZLE... EUSKALDUNA
JUANA ATXABAL AGIRREAMALLOA**

Atarikoa

*Filosofiaren historia*¹ liburu mardularen argitalpenak aukera eskaintzen digu Euskal Filosofiagintzaren historia xumean aitzindari izan direnak gogoratzeko, haien lanari esker izan baita posible urteokaz filosofiaren inguruan euskaraz eginiko ikerketa-, sortze- eta zabalkunde lanak normaltasun minimo baten barruan egin ahal izatea. Era berean, azpimarragarriak dira aitzindari apal hauetariko askok irakaskuntzan –ertainetan zein unibertsitate mailakoan– euskara eta filosofia era duinean uzartzeko eginiko ahaleginak. Bihoakie gure esker ona.

Izan ere, liburuaren sarreran, Joxe Azurmendik dioskunez, idatzizko filosofiagintzan euskaraz, orain arte, gutxi-gutxi batzuk baino ez dira ausartu izan (J. Egiategi, N. Ormaetxea *Orixe*, E. Salaberri, G. Garate...). Diktadura frankistaren osteko lanei bagagozkie, Azurmendik unibertsitatearen inguruko ekime-nak aipatzen ditu: UZEIko *Filosofia Hiztegia* eta ikasliburuak; UEU eta EHUn bideratutako argitalpenak eta tesiak; itzulpenak

¹ Arrieta, Agustín; Uribarri, Ibon (koordinatzaileak): *Filosofiaren historia*, Elkar, Donostia, 2008, 454 or.

(Klasikoak saila); *Jakin Irakurgaiak* liburutxoak; zenbait idazle eta irakasleren lan pertsonalak... Edozelan ere, pentsalari zegamarrak garrantzitsu deritzo euskal filosofiagintzan sare intelektual sendo eta trinko bat osatzeari:

“Oraindik lortu ez dena, elkarrizketa eta eztabaida komunitate bat osatzea da, gogoeta filosofiko autonomo bati bizia emango diona. Iruditzen zait hori, gure baldintzetan, irakas-kuntza unibertsitario eta ez unibertsitarioko filosofiazaleak kolaborazio sistematikoko moduren batean bilduz izango litzatekeela bideragarriena, elkarlan hori antolatzea noizpait lortzen bada. Ereti bat bide horretatik abiatzeko Filosofiaren Historia honek eskaintzen du apika”².

Filosofia euskaraz lantzeaz gain, elkarlan horrexetan jardun zuen Juana Atxabal Agirreamalloak³, batez ere berari zegokion irakaskuntza mailako testugintzan –ertainetan gehien baten–, 70-80 hamarkadetan ia-ia ez baitzegoen materialik institutueta filosofian euskaraz landu ahal izateko. Alor xumea irakaskuntza ertainetakoa, ez garrantzi bakoa haatik, etorkizuna maila horietan ereiten baita⁴.

Bigarren aitzakia karmeldar bizkaitar honen gainean jarduteko, urteurrena da. Izan ere, aurton, 2009ko martxoan, 30 urte

² Azurmendi, Joxe: “Atarikoa”, op. cit., 19-22.

³ Bidegileak bilduman liburuxka bat eskaini zitzaion Juana Atxabali. Ikus, Sariugarte, Iñaki: *Juana Atxabal (1932-)*, Bidegileak, 37, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Gasteiz, 2004. Datu biografiko nagusiei dagokienez, han esan genuenari jarraituko diogu.

⁴ Beren-beregi aipatu zuten alor hori X. Izagirrek eta A. Ibarrek 84-94 hamarkadako balantzea egitean: “Ondoren, 1983-84an, Paulo Iztuetaren zuzendaritzapean bi testu liburu plazaratu ziren: lehena, bederatzi kolaboratzaile osatutako lan-talde batek BBBrako burututakoa (*Filosofia/1, BBB-3. ikasturtea*); bigarrena, berriz, 25 lankideren artean UBBrako prestatutakoa (*Filosofia UBI, 3 bol.*), hain zuzen ere, euskarazko lehenengo filosofiaren historia osoa izan zena. Testuliburu hauek maila ertainetako ikasleak lehen aldiz filosofian euskaraz trebatzea ahalbideratu zuten.” (Izagirre, Xabier; Ibarra, Andoni: “Filosofia euskaraz: hamar urteko balantzea (1984-1994)”, *Jakin*, 91, 1995, 77-105.



betetzen dira Juana Atxabal, Venezuela utzita, Euskal Herrira bueltatu zela. Erabaki gogorra, baina ondo ere ondo hausnartua moja euskaldunak hartu zuena. Harreman estua izan zuen hango gizartearekin, Juanak asko eskaini zion, baina gizarte horren-gandik hartu zuena ere ikaragarri handia izan zen: “He dado todo lo que he podido a América Latina y también he recibido mucho de Colombia y Venezuela, pero quiero en los años que me quedan dar mi aporte a Euskal Herria, porque también le debo mucho” esan zion etorri aurretik María Jesús Acordagoitia ahizpa karmeldarrari. Misiolari lagunak zera gehituko dio Juana-
ren aitortpenari: “No pude comprenderle, hasta que a los pocos años constaté cuánto dio a nuestro querido Pueblo Vasco”⁵.

⁵ 2003ko abenduaren 15ean Venezuelatik bidalitako testigantza.

70eko hamarkadaren azken urteetan kinka historiko baten bizi da Euskal Herria: demokrazia itzuli da diktadura ankerraren ostean; euskal kultura berpizten ari da debeku eta zentzura estuen ondotik; euskal irakaskuntza hasikinetan dago eta irakasle gaituen premia handi ere handia da... Egoera horren aurrean argia da Juanak Venezuelan egiten duen hausnarketa: “Pero, cuando un pueblo se encuentra en un momento especial, ¿no son sus propios hijos los primeros que deben acudir a arrimar el hombro?”. Edozelan ere, euskal kulturaren alde egin asmo duen ahaleginak ez dakar berarekin behartsuen aldeko konpromezua ahaztea: “¿Continuar ahora trabajando en Euskadi significará que abandono la causa de la opción de los pobres? No. La clase explorada no tiene fronteras”⁶.

30 urte bete dira moja adoretuak bere jaioterrira itzultzeko erabakia hartu zuela. Venezuelako behartsu eta marjinatuek agur esker onezko bat luzatuko zioteten euren *ranchito*-etara hurbildu zen moja eskuzabalari; euskal kulturak, berriz, langile nekaezin bat irabazi zuen, Lekeitio ondoko Gardata auzategian jaio eta utopian sinesten zuen euskaldunari “ongi etorri” isila esatean. Ikus dezagun, bada, nor dugun Juana⁷ Atxabal eta, labur bada ere, aipa ditzagun haren aportazioak euskal kulturari eta euskal irakaskuntzan.

Lehen ikasketak, irakasle hasi

Juana Atxabal Agirreamalloa 1932. urteko urtarilaren zortzian jaio zen Bizkaiko Ispaster herrian. Jaiotexea Lekeitio ondoko Gardata auzunean zegoen eta elizaz Lekeitiokoa zenez, bertan bataiatu zuten hurrengo egunean. Gurasoek, Valentin Atxabal Atxabal eta Mercedes Agirreamalloa Arribillaga, lau seme-alaba izan zituzten, Juana bigarrena izan zelarik.

⁶ Euskal Herrira itzuli aurreko adierazpen idatzi batzuetatik jasoa.

⁷ Ahizpa karmeldarrek *Jone* izena ere erabiltzen dute.

Gardatako bertako eskola txikian egin zituen Juanak lehen ikasketak. Gero, aitak animatuta, batxilergoko sarrera eta lehenengo kurtsoak prestatzen hasi zen Lekeition. Ikasketa horietan, izeko Fermina Agirreamalloa moja mertzedariak eta Paulino Alonso eta Juanita Benito irakasleek lagundu zioten. Geroxeago, hamabi urteko neskatila zela, Gasteizera aldatu zen ikasketak bertan jarraitzeko.

Batxilergoa amaiturik, maistra izateko karrera hasi eta 1951n titulua lortu zuen. Urte bereko urriaren 27an Jainkoaren deiari erantzunez, moja sartu zen Gasteizko Karitateko karmeldarren nobiziaduan eta 1952ko maiatzaren 2an habitua hartu zuen:

“Nik hamasei urte inguru nituela sentitu nuen Jainkoak deitu egiten zidala neure bizia osorik emateko, bera neure ilusioa izateko. Eta indar horrek eraman ninduen hemeretzi urterekin karmelita izatera”⁸.

1954ko irailaren 14an behin-behineko botoak egin zituen Gasteizen eta 1959ko irailaren 20an behin betikoak Bermeon. Maistratzako ikasketak eginda zituenez, 1954-1965 epean, Juana irakasle egon zen Bermeoko “Sagrado Corazón” ikastetxean, baina moja gazteak, irakasteaz gain, ikasten ere jarraitu zuen eta 1961ean Letretako Irakasle Laguntzaile diploma eskuratu zuen.

Kolonia eta Venezuela aldera

Bermeoko ikastetxean hamabi urtez jardun eta gero, Juana Atxabalek bere bizitza errotik markatu zuen etapa berri bati ekin zion; izan ere, Hego Ameriketako errealtatea ezagutzeak ukitu handi ere handia utzi baitzuen euskal moja gaztearen gogo-bihotzetan. 1965ean Kolonbiara abiatu zen, Bogota hiriburuan goi mailako ikasketak egiteko asmoz. Maistra gazteak gehien maitatzen zuen jakintza arloa Matematika izanagatik, kongregazioaren beharrizanez bultzaturik Filosofia ikasketak

⁸ Begoña Muruagak egindako elkarrizketatik: *Emakunde*, 7, 1992, 62-65.

hasi zituen, baita bikaintasunez burutu ere. 1970. urtean Bogotako “Pontificia Universidad Católica Javeriana”-n Filosofia eta Letretako lizentziatura lortu zuen.

Bogotako unibertsitatean hasi zen Juana Atxabal filosofia arloko ikerketak eta lan monografikoak egiten eta garai horretakoxeak ditugu Jean Paul Sartreren obrari buruzko lehenengo lan garrantzitsuak. Izan ere, “Conciencia vacía, libertad y Dios en Jean Paul Sartre” izan zen Juanak lizentziatura tesian erabili zuen gaia. Lana zuzendu zion Gustavo González irakasleak, ikerketaren aurkezpenean, biziki goraipatu zituen lizentziatu berriak zeuzkan prestakuntza eta merituak⁹.

Lizentziatura lortuta, Euskal Herrira itzuli zen moja gaztea eta Zumaian egotaldi labur bat egin eta gero, 1971. urtean Ameriketara joan zen berriro, oraingo honetan bihotzaren erdi-erditik maitazera helduko zen Venezuelara, hain zuzen ere. 1971-72 ikasturtean Anzoátegui estatuko Cantaura herrian egon zen Juana Atxabal eta bertan karmeldarrek zeukatzen “Santa Joaquina” ikastetxean irakasteaz gain, “Dr. Felipe Guevara Rojas” lizeoan ere aritu zen, kasuon latin irakasle bezala. Gerora, Cantaura herritik Venezuelako hiriburura joan eta han, Caracasen, “Don Pedro Fe y Alegría”¹⁰ (1972-73) institutuan egin zuen lan, eta 1973an Catiara joan zen.

⁹ Ikerketa lanaren zuzendariak honako puntuok azpimarratzen zituen, 1970eko urtarilaren 31n, Universidad Católica Javeriana-ko Filosofia eta Letrak fakultateko dekanuari bidalitako onarpen proposamenean: Sartreren obra filosofikoaren zein literarioaren ezagutza zabala, filosofia eta antropologia gaien tratamendu sakona, aurkezteko modu egokia, eta, azkenik, Sartreren pentsamendua iruzkintzeko erakutsi zuen sakontasuna eta inpartzialtasuna.

¹⁰ “Fe y Alegría nace en Venezuela a mediados de los años 50, cuando el P. José María Vélaz comienza a visitar los barrios periféricos de Caracas con estudiantes universitarios. Al acercarse a la gente y ver cómo vivían, sintió la tragedia de la marginación y comprendió que era necesaria una educación que promoviera los recursos internos de los más necesitados. (...) En 1964 comienza el proceso de expansión hacia países de América Latina. El lema del Movimiento en esos primeros años era: *Fe y Alegría comienza donde termina el asfalto*” (www.feyalegria.org).



Catia Caracasko auzune pobre eta marjinal bat zen Juana bertara heldu zenean. Venezuelako hiriburutik hurbil samar egon arren, pobrezia eta miseria ziren nagusi hango txabola eta *ranchito* izeneko eraikin ezin pobreagoetan. Catiako mendi maldetan baztertu eta behartsuek eraikitako teilatupe eskas eta ahuletan mundu berri bat, gizarte maitagarri bat aurkitu zuen Euskal Herritik joandako moja gazteak. Hona hemen, haren berba esanguratsuak:

“Hemen gauza asko aurkitu nituen... ederrak, harrigariak, oso diferenteak ordura arte bizi izandakoaren aldean. Baina, batez ere, herri latinoamerikarrak jasaten zuen pobreziaz eta opresioaz egin nuen topo. Pobrezia eta opresio hauek ez ziren, kasurako, nik umetan eta nerabezaroan baserrian bizi izandako pobrezia eta zailtasunak, gehiengoak pairatzen zuen egoera ikaragarri eta

inhumanoa baizik. Hasieran Bogotako auzoak; eta, gero, Caracasko mendixkak, *rancho*-ak: ez nuke esaten jakin-go zein neurritan markatu ninduten”.

Catia (Caracas): pobre eta baztertuekin bat eginda

70eko hamarkadan Venezuelan hausnarketa sakon bat egin zen bertako erlijiosoen artean eliz bizitzak herri baztertu eta zapalduen inguruan eman beharreko erantzunaz. Juanak zuzen-zuzen eta era aktiboan hartu zuen parte hausnarketa horretan. Honen guztiaren ondorioz, vedrunatar karmeldarrek Venezuelako lehenengo bi “Comunidades de Base” direlakoak sortu zituzten. Komunitate horietako bat Catian (Gramoven Los Magallanes) sortu zen eta Montserrat Garreta, Dolores Barandiaran eta Juana Atxabal ahizpak izan ziren fundatzaileak.

Catiako jende pobre eta baztertuaren egoera ezagutu-eta, moja adoretuok analfabetismoari aurre egiteko premia gorria ikusi zuten. Gabezia hori konpondu nahiz, umeentzako aurre-eskola ez eze, helduentzako zentro bat ere zabaldu zuten, herri xehe eta jipoitu hura mendeetako morrontza kulturaletik irten ahal izan zedin. Catian, Juanak bertako umetxoekin eta haien ama sufrituekin bat egin zuen. Izan ere, gizarte pobre horretan, ezin baztertuago aurkitzen ziren emakume haiek aholkulari, kide eta lagun izan zuten Juana, eta, elkarrekin, utopiari leiho handi bat zabaltzen ahalegindu ziren.

Urte gogor ere gogorrak izan ziren haiek moja karmeldar jatorrentzat, baina lanak ez zituen kikildu ezta atzeratu ere: bateko bilerak eta hausnarketak; besteko ikasi eta irakatsi beharra; hurrengoko diru eza... Ekonomiari dagokionez, estuasunak handiak zirenez, komunitateko partaideak lan ordaindu bana lortzen saiatu ziren eta Juana Atxabalek 1973-76 ikasturteetan jesuitek Catian zeukaten “Jesús Obrero” institutu politeknikoan egin zuen lan, gaztelania eta literatura irakasten.

Lanez eta arduraz gainezka egon arren, nekeak ez zuen akitu Venezuelako pobreen aldeko apustua egin zuen karmeldar euskalduna, gorputzez txikia, bai, baina adorez eta bihotzez haundi ere haundia zena. Denbora zelan edo halan lortuz, astiunei-eta kenduz, ikasten eta bere burua jakinduria berriz janzten jarraitu zuen Juanak eta 1974-75 urteetan gaztelania, literatura eta latin ikasgaietan ikasketa bereziak egin zituen Caracasko “Instituto Pedagógico” ikastetxean.

1976an Juana Atxabalek “Jesús Obrero” institutu politekniko lana utzi eta berak beste batzuekin sortutako “Laboratorio Educativo”¹¹ izeneko lan taldera bihurtu zen. Talde edo kooperatiba hori 1973an sortu zen eta beronen helburua irakaskuntza eta hezkuntzari buruzko ikerketak eta hausnarketak egitea zen, betiere alternatiba pedagogiko eraginkorrak lortu ahal izateko eta jende pobreenaren zerbitzuan jartzeko. Aipatutako ikerketa eta lan teorikook “Cuadernos de Educación”, “Cuadernos de Pedagogía” eta “Biblioteca de Trabajo Venezolana” izeneko argitarapenetan ematen zituzten argitara eta Juanak lehenengo saileko obra bi idatzi zituen¹²: *Lenguaje y Cultura popular* (47, 1977, 107 or.)¹³ eta *Educación, lucha de cla-*

¹¹ “Laboratorio Educativo” es una Cooperativa de producción, fundada en 1973, cuyos objetivos se centran en crear conciencia de la problemática educativa venezolana y mundial; en animar la investigación de esta rama; en fomentar la vinculación de los educadores entre sí, haciéndolos reflexionar sobre el papel que desempeñan; en el planteamiento de toda una nueva perspectiva en el campo educativo (...).

Dentro de este campo de trabajo y actividades estuvo colaborando con nuestra Entidad, durante (4) años, nuestra compañera Juana Achabal, quien desempeñó, a lo largo de este tiempo, labores de cursos, de organización, de producción, coordinación, y últimamente edición de la Revista “Cuadernos de Educación” (Jesús Everduim “Laboratorio Educativo” taldeko presidentek 1980-03-25ean Caracasen sinatutako agiritik).

¹² Beste batzuekin batera: *Legislación Educativa y dependencia en Venezuela*, Cuadernos de Educación, 38, Laboratorio Educativo, Caracas, 1978 (2. argit.).

¹³ Bigarren argitalpen bat egin zen 1985ean (Cuadernos de Educación, 185).

ses y cultura popular en Venezuela (67, 1979, 88 or.)¹⁴, hurrenez hurren.

1975ean, Juana Atxabal Mexikora joan zen “Laboratorio Educativo” taldearen izenean eta hango hiriburuan, ekainetik abuztura, “Tribuna Mundial del Año Internacional de la Mujer” izeneko topaketetan hartu zuen parte. Jarraian eta Venezuelara itzuli barik, Juana Atxabalek Erromarako bideari ekin zion. Izan ere, 1974tik 1979ra moja langile aspergaitza Venezuelako Talde Probinzialeko kidea izan zen eta hango ahizpek izendaturik, Probinziaren izenean hartu zuen parte Erroman irailaren 8tik 20ra vedrunatar karmeldarrek egin zuten XX. Kapitulu Orokorrean.

Aipaturiko Kapitulu moja karmeldarrek Hego Ameriketako hezkuntzari buruzko dokumentu bat argitaratu zuten eta



¹⁴ Gai bera erabilia: Achabal, Juana: “Educación, lucha de clases y cultura popular en Venezuela” in Quienza, Samuel Eduardo: *La educación del indígena*, Educación lucha de clases y cultura popular en Venezuela realidad y perspectivas, Caracas, 1979, 75-121.

Juana Atxabalek ere bere aportazioa egin zuen erredakzioan. Dokumentuaren izena “Nuestra responsabilidad, hoy, como educadores de la fe en América” da eta *Documentos Capitulares (Capítulo XX)* (1975), izeneko liburuan dago argitaratuta.

Erromatik bueltan, moja euskaldunak pausaldi labur bat egin zuen Euskal Herrian Venezuelako lurraldetara joan aitzin; eta urte bereko abenduan, medikuek hala erabakita, ebakuntza garrantzitsu bat egin zioten Donostian (1975-12-16), handik urte batzuetara errepikatu egin zena. Makalaldi eta ebakuntzok baina, ez zioten moja euskaldunari lanerako grina apaldu, ezta behartsuen aldeko borrokarako adorea moteldu ere. Izan ere, Caracasera berriro heldurik, Juana atzera lotu zitzaion pobre eta baztertuen aldeko lan isilari, harik eta 1979an, hausnarketa pertsonal sakon baten ondoren, Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuen arte.

Euskal Herrira itzuli

1979an, Ameriketara hamalau urte zeramatzanean, Juana Atxabalek jaioterriaren deia sentitzen du bere baitan. Euskal Herrira egindako azken bidaiak ukitu sakona utzi dute moja euskaldunarengan eta itzultzea erabakitzen du, ez hausnarketa sakon bat egin gabe. Izan ere, Hego Euskal Herria diktadura krudel eta anker batetik irten berri zegoen eta zabal-zabalik zeuzkan etorkizunaren ate-leihoak. Gauza asko zegoen egiteko une hartan, bai esparru sozialean, bai euskal kulturaren suspertze-prozesuan, eta baita azken hatsetan zegoen euskal hizkuntza berrindartzeko ekimenetan ere.

Horren guztiaren aurrean, jaio zen lekuan lan egiteko aukera egiten du Juana Atxabalek eta beren-beregi azpimarratuko du euskal kultura eta euskararen alde lan egiteko zekusan premia larria, eta baita prozesu erakargarri horretan bere hondar alea jartzeko zeukan gogoia ere: “Hizkuntza kultura baten espresabide nagusia da. Kulturaren alde lan egitea bera ere, justiziaren alde lan egitea da; gutxiengoaren alde, txikien alde jartzea”.

1979ko martxoan dator Juana Atxabal bere jaioterrira eta lehenengo momentutik gogotsu helduko die itzulera bultzatu zuten arrazoi erlijioso, solidario zein kulturaleri. Azken hauei dagokieenez, irakaskuntza eta idazletza dira gehien landu zituen arloak.

Euskal Herrira heldu bezain laster, erlijioa irakasten hasi zen Gernikako institutuan. 1980. urtean, euskarazko titulua beragandua eta 1980-83 ikasturteetan filosofia euskaraz irakatsi zuen Ondarroako institutuan, euskarazko irakaskuntzan, Bizkaiko lurralde historikoan, aitzindarietarikoa izanik. Filosofia arloan euskarazko irakaskuntzan gabezia gorria zegoenez, zenbait irakaslek talde berezi bat sortu zuten materialak, apunteak, testuak... itzuli, egokitu edota sortzeko eta Juanak partehartze aktiboa izan zuen Bilboko Txurdinaga institutuan batzen zen lan talde gogotsu hartan:

“Banekien nora nentorren. Ordurako ikastetxeetan euskara sartzen hasia zen, ikurrina ez zegoen debekatua, geure agintaritzara eskuratua, neurri batean bederen. Irakaskuntza publikoan eskatu nuen sarrera filosofia euskaraz irakasteko. Ondarroako institutuan hasi nintzen. Txurdinagakoa eta gu izan ginen euskaraz ematen hasi ginen lehenengoak Bizkaian, ez hiztegi, ez liburu eta ez ezer”¹⁵.

Urteotan, Deustuko Unibertsitatean matrikulatu zen Euskal Filologia ikasteko asmoz, euskaraz sakontzeak irakaskuntzan lagundu egingo ziola uste baitzuen. Lehenengo kurtsoak egin zituen arren, osasun arazoengatik –1984an berriro egin behar izan zioten eba-kuntza larri bat– ezin izan zuen karrera berri hori amaitu.

Institutuko agregatu oposizioak gairiditurik, Basauriko Urbi institutura joan zitzaigun eta han ere, 1983-1996 urteetan, filosofia irakatsi zuen, euskaraz betiere. Ibaizabal eta Nerbioi ibaiek euren urak nahasten dituzteneko leku horretan, Basauriko Urbin, hartu zuen erretiroa Juana irakasleak, bertako ikasle, irakasle eta langileek 1996ko abenduaren 20an omenaldi hunkigarri bezain samurra eskaini ziotelarik. Hona hemen, lerrook

¹⁵ *Deia*, SD, 92-02-23, 4. or.

sinatzen ditudan honek Bilbo ondoko Artxandan eginiko ospakizunean Juanari eskainitako bertso xumeak:

Jubilatzea, alde batetik, izan daiteke tristea,
eskatzten baitu hainbat ekintza alde batera uztea.
Baina baditu alderdi onak bihotza bada gaztea,
eta zurea oraindik dakust gogotsu eta askea;
segi lanean, segi idazten; hauxe da nire eskea.

Agur eskolak, agur gazteak, Aristoteles ta Platon;
ebaluaketak, fotokopiak ta azterketak hor konpon!
Halan da ere, lagun zahar hori, penaturikan ez egon,
zure beharra duten guztiei laguntza osoa emon,
Ameriketara egindakoa egin dezakezu bertan.

Orain lagunez inguratuta aurkitzen zara Juana,
eskaini nahirik bihotz-bihotzez zuri besarkada bana.
Ez ahaztu inoiz institutua, hango lana ta afana,
ta noizean behin itzuli zaitez lehengo lagun zaharregana,
*ban edukiko baituzu beti prest zure gurutzegrama.*¹⁶

Irakaskuntzan emaniko urte hauek baina, arlo akademikoan ez ezik idazletzaren ikuspuntutik ere joriak izan ziren Juana-arentzat¹⁷ eta 1991n Eusko Jaurlaritzaren “Pedro Axular” saiakeraren saria irabazi zuen *Narziso berriaz gogoetak* lanari esker.

Edozelan ere, irakaskuntza eta idazletza ez dira izan mojaren jardun bakarrak itzulera osteko urteetan. Galdakaoko bere komunitate erlijioso txikian moja nekaezinak lanean jarraitu zuen, betiere gehien behar zutenak (ezindu, elbarri, behartsu...) artatuz eta lagunduz. Lan horren isla dira, kasurako, Galdakaoko “Cáritas” taldeetan egindako lan eskerga, gaixoei eginiko bisitak, lan talde desberdinetan eskainitako laguntza...; edota Bilboko

¹⁶ Oso gurutzegrama zalea zen Juana institutu garaian eta egunero egiten zuen baten bat irakasleen gelan.

¹⁷ Ikus UEUren *www.inguma.org* web orrian, Juana Atxabalek 1986tik 1994ra arte emandako hitzaldi eta parte hartutako mahai inguruen zerrenda.

Deustu auzoko “Auxilia” taldean ezinduei-eta emaniko klaseak, behar izanez gero, euren etxeetaraino joanez.

Jubilatuta ere, Juanak ez zituen alde batera utzi ez elkartasunezko lana, ezta filosofia arloko ikerkuntza ere. 2001. urtean, osasun arazoak medio, Bizkaiko Galdakao herria utzi eta Gasteizko Etxe Probintzialera joan zitzaigun eta orain bertan bizi da ahizpa karmeldarrek lagunduta eta artatuta.

Euskara bultzatu, euskaraz jardun

Juana Atxabalek Euskal Herrira bueltatzeko zeuzkan arrazioen artean, badu bat berarentzat izugarrizko garrantzia duena, hots, euskararen egoera larria eta gurasoengandik ikasi zuen hizkuntzaren etorkizun badaezpadakoa. Hori dela-eta, konpromiso sendoa hartu zuen, irakaskuntzatik abiatuta, kinka larrian zegoen hizkuntzari bere aupada emateko. Honela laburbiltzen zigun bere asmoa: “Euskararen berreskuratze osoaren aldeko ekimenetan laguntzea. (Hizkuntza kultura baten adierazpide nagusia da). Munduan dauden 600.000 euskal hiztun horietako bat naiz”.

Aipatuta dauzkagu Juana Atxabalek Ameriketako gaztelaniaz eginiko lanak. Atal honetan, beraz, Euskal Herrira itzuli osteko produkzioari helduko diogu, euskaraz egindakoari, hain zuzen ere. Azken honi dagokionez, nahiz eta narratiban ere ahalegin zenbait egin zituela jakin¹⁸, lan esparru nagusiok bereizi beharra dago: batetik, moja karmeldarrak bere komunitatearen zerbitzu eta erabilpenerako atondutako itzulpenak; eta, bestetik, irakasle-filosofoak bere jakintza arloan eginiko aportazio teorikoak.

a) Itzulpenak

Euskaltzaletasunak bultzatuta, Juana Atxabalek hainbat itzulpen burutu zituen vedrunatar karmeldarrek euren zeregi-

¹⁸ Literatur lehiaketaren batera aurkeztekotan ere egon zen, baina lanok, tamalez, ezin izan ditugu aurkitu.

netan erabil ahal izan zitzaten, Kapitulu Orokorrenak, kasurako. Honako hauek dira eginiko itzulpenetariko batzuk: *XXII. Kapitulu Jenerala* (Vedruna´tar Maitasuneko Karmeldarrak, Vic, 1987, 24 or.); edota *Vedruna erroetatik (XXIII. kapitulua)* (Karitateko Vedruna Karmeldarrak, Vic, 1993, 36 or.). Mojen irakaskuntzari begira, Juanak *Vedruna Hezkuntza Proposamena* (Oñati, 1993, 42 or.) itzuli zuen, arlo horretan zeuzkan esperientzia eta ezagutzak baliatuz.

b) Filosofiaren inguruan

Bigarren atal honi bagagozkio, irakaskuntzari begira egindako lanez gain¹⁹, hiru lan nagusi aipa ditzakegu irakasle euskaltzaleak eginikoen artean, hurrenez hurren, Jean Paul Sartre pentsalari eta filosofo frantziarra, Pentsamendu posmoderno eta Xabier Zubiri filosofo donostiarra ardaztatzat dauzkatenak:

Existenzialismoa humanismo bat da²⁰

Liburuan Juana Atxabalek Jean Paul Sastrenen (Paris, 1905-1980) *L´existentialisme est un humanisme* obraren iruzkina egiten du, liburuaren bigarren atalean obraren euskarazko itzulpena damaigularik. Obra honekin Juanak segida ematen dio Bogotan Sastrenen obraren inguruan hasitako ikerketa lanari. Garai horretan –80ko hamarkadan gaude–, frantses hizkuntzan sakontze ikastaroak egin zituen Bilboko “Institut Français” ikastetxean.

Sarreran dioskunez, denok ezagutzen dugun gizarte industrial modernoaren garaia da Sartrearena. Itxaropen garaia da, gi-

¹⁹ Arestian aipaturiko *Filosofia / 1 UBI* testuaren egileetariko bat da Juana Atxabal: Askoren artean (Paulo Iztueta zuz.): *Filosofia / 1 UBI*, UZEI-Elkar, Donostia, 1984.

²⁰ Atxabal, Juana: *Existenzialismoa humanismo bat da*, Kriselu, Donostia, 1988, 135 or.

zakiak aurrerapen teknologiko-zientifikoek zoriona eta askatasuna ekarriko zituztela uste baitzuen. Ez ziren baina, usteok bete izan.

Beste alde batetik, XX. mendeko bi mundu gerra nagusiek eta ondoko *gerra hotza*-k bultzatutako norgehiagoka armamentistak eta mehatxu nuklearrak bi koloso hegemonikoen erdian eta bere gabezia eta ezintasun larrien erdian utzi zuten Hirugarren Mundua. Mundu aberatsaren baitan ere bazterkeria, pobrezia-guneak eta menpekotasun berriek ilundu egingo dute gizakiaren itxaropena.

Juana Atxabalentzat, Sartreren lanak ingurune honetan hartzen du bere adierarik sakonena, kontzientzia kritikoaren eraikuntzan laguntzen duelako. Izan ere, –Atxabalen ustez– Sartreren lana errotiko askatasuna, erantzukizun eta konpromezu historiko osoaren oinarriak ezartzera datorke.

1988. urtean bertan, *Filosofia eta Zientzia* liburu kolekti-boan, Juanak berriro izan zituen Sartre eta existentzialismoa mintzagai²¹.

Narziso berriaz gogoetak²²

Esanda daukagunez, liburu honekin Juana Atxabalek Eusko Jaurlaritzak eman ohi duen “Pedro Axular” saiakera saria irabazi zuen²³; eta sari garrantzitsu hau jaso izanak hedabide askotan agertzera (*ETB, Emakunde, Deia, Diario Vasco...*) bultzatu zuen. Obra honetan Juana Atxabalek mendebaldeon

²¹ Atxabal, Juana: “Sartreren existentzialismoaz”, in Askoren artean: *Filosofia eta Zientzia*, Printzak Saila 2, UEU, Bilbo, 1988, 117-134.

²² Atxabal, Juana: *Narziso berriaz gogoetak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1992, 136 or.


²³ Joxe Azurmendirentzat ere lan egokia burutu zuen Juana Atxabalek: “UEUk argitaratuta dauka hain zuzen honetaz guztiaz [modernotasunaz] saio bat egoki askoa euskaraz: Juana Atxabal, *Narziso berriaz gogoetak*, 1992” (“Santamariaren pentsamendu atarikoa”, *Uztaro*, 20, 1997, 61-76).

**NARZISO BERRIAZ
GOGOETAK**

Juana Atxabal



1991.eko "Pedro Axular" Sariaren Saiakera-irabazlea



indartu eta zabaldu den pentsamendu posmodernoari buruzko ikuspegi kritiko bat opetsi nahi izan zion euskaldungoari. Hona hemen egilearen asmoa: “Mendebaldeko arlo desberdin orotan hedadura hain zabala hartu duen korrante posmodernoaz hausnarketak egin eta posmodernotasunaren ikuspegi orokor bat euskaraz adieraztea da aurrean daukazu idazlanaren helburua”. *Narziso berria* nor dugun galdetzean, honan erantzun zion Juana Atxabalek Begoña Muruaga kazetariari²⁴:

“Narziso berria da gaurko hiritarra, bai kalekoa, bai pentsalari edo artista, pentsamenduaren eta ekintzaren oinarriak utzi eta biluzik, ahul, bere buruaz bakarrik arduratzen dena: oraintxe ondo bizi, ahal bada gazte eta beste guztia hor konpon. Hori da Narziso berria. (...) Narziso mundu aberatsekoa da, iparraldekoa noski, geure kulturakoa. Latinoameriketan eta Afrikan ez dago Narzisorik, han jendea konprometitua bizi da”.

Esandakoa poetikoki laburbiltzeko, Pedro Casaldáligaren²⁵ olerki batez damaio amaiera liburuari. Mato Grosso-ko gotzainarekin bat eginda, justizia, apaltasuna, askatasuna, libre izan ahal izateko pobretasuna..., eta kristaua den aldetik, fedea ere eskatuko du. Baina gauza guztien gaintik esperantzari heldu beharra azpimarratuko du:

²⁴ *Emakunde*, 7, 1992-Martxo, 62-65.

²⁵ Gotzain katalandarra (Balsareny, Bartzelona, 1928). 1952an apaiztu eta 1968an Brasilerara joan zen. 1971n Saõ Félix do Araguaia (Mato Grosso) elizbarrutiko gotzain izendatu zuten. Pobrean aldeko ekintzailea eta Askapen Teologiaren aldekoa. Liburu askoren egilea. Juanak *Narziso berriaz gogoetak* liburuko *Bibliografia-n Fuego y cenizas al viento* (1984), *El tiempo y la espera* (1986) eta *Al acecho del Reino* (1989) aipatzen ditu.

Askapen Teologiari bagagozkio, Juanak interes handia erakutsi zuen mugimendu kristau horren inguruan eta Flora Iñigo Galdakaoko komunitateko ahizpak adierazi zigunez, ondo ere ondo ezagutzen zuen Hego Ameriketan erretako teologia askatzaile hori: “Gran concedora de la teología de la liberación”.

“Y, en todo caso, hermanos,
yo me atengo a lo dicho:
¡la Esperanza!”²⁶.

Goazen bat eginda²⁷

Idazleak esaten duenez, obra hau Xabier Zubiriren (Donostia, 1898 - Madrid, 1983) *Hombre y Dios* liburuaren itzulpen laburtu eta iruzkindu bat da. Itzulpenaren ondoren, Jainkoa utzi eta dirua jainkotzat hartu duen gure gaurko munduaz dihardu Juana Atxabalek. Egilearen ustez, Jainko gabeko mundu triste honetan gizakia hutsik aurkitzen da, etika hankaz gora, kontinente osoak goseak eta izurriteek jota... Hala eta guztiz ere, ausente nahi den Jainkoaren presentzia espermentatzen du gizakiak eta mundu gizatiarrago baten eraikuntza aurrera eramateko orduan Jainkoaren presentzia sentitzen du. Era berean –diosku Juanak–, Jainkoa, bere aldetik, gure bila ari da.

Liburuaren amaieran, “Azken konklusio erara” izeneko atalean, Pedro Casaldálgaren olerkiak moldatuta, gonbidapen lagunkide bat luzatzen die autoreak borondate oneko gizaki gutziet:

“Berandu da
baina goizaldea da
pixka bat ahalegintzen bagara.
Goazen, Casaldálgak aipatzen dituen

²⁶ Euskal Herriaren geroari buruz ere, itxaropentsu agertzen zaigu *Narziso berriaz* gogoetak liburuaren garaiko adierazpenotan: “Euskal Herriak muturreko latzak hartu ditu historian zehar. Badu esperientziarik. Ez dugu dogmatikoak izateko motiborik. Kultura txiki bat da gurea. Ekologikotasun kulturallean geuk daramatzagu geure koloreak, geure izatea, geure hizkuntza. Kulturaren arteko elkarrizketa horretan hartu behar dugu parte, apalki. Esperantzarik izan dezakegu, geure proiektuaren alde gogor jokatzeko badugu. Ez da aurreantz goazen ala ez, argi ikusten. Baina, jakina, beste kulturen ondoan eta haiekin batera gogor jokatu behar dugu.” (*Deia*, SD, 1992-03-23, 4. or.).

²⁷ Argitara eman gabea. 70 orri mekanografiatu, *Jone* Atxabal sinadurarekin. Vamos juntos erdarazko bertsioa ere eginda dauka.

pobreak, martiriak
kontenplatiboak,
militanteak eta
askapenerako teologoak,
eta nik gehitzen ditudan
etxeoandreak,
aita-amak eta seme-alabak,
irakasleak,
gazteak,
langileak
auzo apaletakoak
...
Goazen bat eginda
eta Jainkoa gurekin”.

Pozik nago!

Fede irmoko moja; bere sustrai euskaldunekiko sendo ere sendo atxikitako baserritar alaba; behartsu, baztertu, zapal-



duei... bizitzako urterik onenak eskainitako borrokalari bake-tsua; bokazio sendoko irakaslea; filosofia eta euskara uztartzen hamaika ahalegin egindako ikerlea; mundu hobea baten, utopiaren aldeko karmeldar eskuzabalak..., 60 urte bete berrian, bere ibilbideaz eta orduko bere egoera pertsonalaz esandakoa ere esanguratsua da oso:

“Bizitzan zehar gorabeherak izan ditut, mundu guztiak bezala, baina orain esan behar dut pozik nagoela, alai, serenitatez. Gainera, aukera izan dut neure bizitzan zehar neure anai-arreba ahulenei laguntza emateko eta horrek bete egin nau. Bestalde, Latinoameriketan pasa nituen urteak, alde batetik, nire kristautasunean sakontzeko aukera eman zidaten eta, bestetik, indartu egin zuten garai bateko erabakia. Pozik nago”²⁸.

Adinak eskaintzen dion talaiatik, bere baitan poztasuna sentitzen du hurko behartsuenei laguntza eskainitako misiolariak; alaitasuna bere kristautasun sendotuaren inguruan; ziurtasuna gaztetan hartutako ebatsi pertsonalaren gainean. Bizitzako gorabehera baretasunez egiten die so. Pozik dago!

Iñaki Sarriugarte Irigoien

²⁸ *Emakunde*, 7, 1992-Martxo, 62-65.

KATE O'BRIEN (1897-1974)

Kate O'Brien (1897-1974) Limerick-en, Irlandan, jaio zen, 1897.12.03an. 1919an, Unibertsitatean lizentziatu eta gero, Ingalaterrara joan zen, *freelance* kazetaria bilakatu eta *Manchester Guardian* delakoan lan egin²⁹.

1922an Bilbora etorri zen, eta Portugaleteko Areilza familiarekin eman zuen urtebete, familiako gazteentzako etxeko irakasle gisa. Egoera hori dela eta, bere eleberririk ospetsuenetako bat idatzi zuen: *Mary Lavelle* (1936an). Eleberririk horren lehen edizioa debekatuta egon zen Irlandan, ez-moralak zelakoan.

1937an bidaia-narrazio bat plazaratu zuen, *Farewell Spain*, Franco-ren errebolta kritikatu. Ondorioz, ezin zen Espainian sartu harik eta 1957. urtea igaro arte. **Kate O'Brien Euskal Herrian**

1. Kate O'Brien-en lanak

Hona hemen haren lanik garrantzitsuenak.

Antzerkiak:

Distinguished Villa: A Play in Three Acts (1926)



²⁹ Ikus http://en.wikipedia.org/wiki/Kate_O'Brien.

Eleberriak:

Without my Cloak (1931)
The Ante-Room (1934)
Mary Lavelle (1936)
Pray for the Wanderer (1938)
The Land of Spices (1941)
The Last Summer (1943)
Lady (1946)
The Flower of May (1953)
As Music and Splendour (1958)
Presentation Parlour (1963)
That Lady (1965)

(c) Ez fikzioa:

Farewell Spain (1937)
Teresa of Avila (1951)
My Ireland (1962)

The Heritage of British Literature (Elizabeth Bowen, Anthony Burgess, Lord David Cecil eta Graham Green-ekin batera)

2. Kate O'Brien Euskal Herrian

Jose Maria Areilza-k zioenez³⁰, O'Brien Serantes mendira, Trapagaranera eta Unbe mendira joaten zen. Portugaleteko karraketan ibiltzea gustatzen zitzaion, baita Santurtziko itsas portua ere. Bilbora joaten zen astero beste irlandar neskekin hitz egiteko. Bilboko lekurik maitatuena Albia plaza zen, Antonio Trueba-ren estatuaren azpian esertzen zelarik.

Espainiar estatuan Primo de Rivera-ren estatu-kolpea gertatu baino lehen³¹, Irlandara itzuli zen.

³⁰ 1985ean, El País-en idatzitakoa: http://www.elpais.com/articulo/opinion/IRLANDA/Mary/Lavelle/elpepiopi/19850813elpepiopi_8/Tes/.

³¹ Areilza okertu egiten da *El País*-eko artikuluan. Datua ongi ematen du O'Brien-ek berak *Farewell Spain* liburuan.

3. Mary Lavelle eleberria

Esan bezala, nobela hori Euskal Herrian kokatzen da. Area-vagas familia Portugaleteko Areilza familia da.

Areilza-k dioskunez³², eleberrian Bilbo Altorno da, Portugaleta Cabantes, Algorta Torcal, Areeta Playa Blanca. Areilza-ren etxea (El Salto) Casa Pilar bilakatu zuen. Allera Begoñako eliza da.



(El Salto jauregia, 1905ean, Portugaleteko hondartzaren gainean)

The Good Basque Country izeneko kapitulua nobelaren azken aldean dago: urrunean Bilboko argiak azaltzen dira, iluntasunean dauden mendien artean.

4. Filma

1998an *Mary Lavelle* gidoia izan zen film baterako: *Talk of Angels*³³. Filma Llanes-en eta Oviedo-n (Asturias-en) egin zen.

³² Ikus bigarren oharra.

³³ Ikus <http://www.imdb.com:80/title/tt0120271/>. Halaber, ikus http://en.wikipedia.org/wiki/Talk_of_Angels.

Eleberrian ez bezala, filmean ez da azaltzen inolako euskal ezaugarririk. Alderantziz, jendea, paisaia eta giroa oso arrotza da edozein euskaldunen ikuspegirako. Beste aldetik, nahiz eta ongi eginda egon, filmaren bukaerak, amodio kontuetan, ez dauka zer ikusirik liburuan agertzen denarekin.



5. O'Brien eta euskara

O'Brien-ek euskara entzun zuen Portugaleten eta Areilza familiaren giroan. Hona hemen zenbait aipu *Mary Lavelle* eleberrian:

“... *no one in the house or anywhere seems to speak anything but Spanish or Basque.*” (4. or.)

“... *but that was Basque. Pilár has a bad habit of speaking Basque to the servants.*” (16. or.)

“... *She heard the Basque speech in the market place; amusingly once through the oration of a Basque nationalist she heard the names of ...*” (112. or.)

“... *the conversation switched into Basque, for the old woman, a strong Basque nationalist, had much to say...*” (189. or.)

“... *Basque reading of the children's fortunes in their hands.*” (191. or.)

6. *Farewell Spain* bidaia-narrazioa

Liburu hori dela eta, Areilza-k dio O'Brien Espainian sartzeo debekua *neurri absurdua zela*³⁴. Baina beharbada neurri

³⁴ Ikus bigarren oharra. 1998an Portugaleten argitaratutako *Recuerdos de Portugalete* (ed. Fundación El Abra), Mary Lavelle izeneko kapituluak El País

hark bazeukan nolabaiteko harremana Areilza-k berak 1937an emandako hitzaldiarekin³⁵.

Hitzaldi hori ez zegokion aho beroko gazte bati, Falange-n kargua zeukan politikari bati baino. Beste aldetik, 1952an oraindik Areilza harro zegoen aspaldian egindakoarekin³⁶.



1937ko hitzaldia eta O'Brien-i 1952an bidalitako eskutitzean zioena ez datoz bat, inondik inora, liburuarekin. Izan ere, *No pasarán* (sic) eta *Arriba, España!* (sic) izeneko kapituluetan azaltzen dena ezkondu ezinezkoa da Areilza-ren portaerarekin³⁷.

-en 1985ean argitaraturiko artikulu bera azaltzen da hitzez hitz... baina zati bat kendu zuen Areilza-k. Hauxe da falta den zatia: *“Al comienzo de nuestra guerra civil visitó la zona republicana, pues, dado su militante pacifismo, se inclinó abiertamente, por la causa antifranquista. Publicó entonces un libro titulado Farewell Spain, especie de crónica de viaje por diversas ciudades españolas, que contiene un admirable capítulo sobre Bilbao, sus costumbres y el temperamento de sus habitantes. Pero el tono político del pequeño volumen fue suficiente para prohibir su circulación en España y vetar, asimismo, la entrada de la autora en nuestro país. Esta absurda inéddida (sic) duró hasta 1957, en que se le volvió a permitir viajar a la escritora a la nación que tan entrañablemente amaba. Todavía en 1972, poco antes de su muerte, asistió en Valladolid a unas jornadas, irlandesas en la universidad, donde compartió su presencia con muchos de sus amigos intelectuales españoles.”* (inéddida barik, irakur medida.)

³⁵ Ikus http://es.wikisource.org/wiki/Discurso_de_Jos%C3%A9_M%C2%AA_de_Areilza_en_Bilbao_el_8_de_julio_de_1937.

³⁶ O'Brien jadanik hilda zegoela (1974an), berriz argitaratu zuten *Farewell Spain* liburua Mary O'Neill-en 1984ko hitzaurre batekin. Hitzzaurrean honelaxe zioen Areilza-k 1952an O'Brien-i bidalitako eskutitz batean: *“...I was your pupil some years ago -how many? And since then I believe we never wrote each other (...) I did for my country all that I could—and hope still to give her more, when she needs it...”*

³⁷ Are gehiago. Miel Anjel Elustondo-k *Western Basque Festival* liburuan kontatzen du (besteak beste), Areilza joan zela Nevadan egin zen euskal jaialdi handi horretara duela oraintxe 50 urte, 1959ko ekainean (Areilza Espainiako enbaxadorea zen orduan AEBetan). Elustondo-k aipatzen duenez (<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuok.pl?lib=best16>), 1959n ere amorruek zutik dirau:

Bidaia-narrazio horretan, *Mainly personal* izeneko kapituluaren O'Brien-ek Bilbo, Begoña, Portugalete, El Desierto (sic, hots, Barakaldo), Sestao, Santurtzi, Areeta, Algorta,... aipatzen ditu, leku horien zenbait xehetasun emanez.

7. Kate O'Brien ezezaguna Euskal Herrian.

Kate O'Brien ezaguna da Irlanda. Ezaguna baino gehiago, zeren 1984tik urtero haren aldeko ospakizunak egiten baitituzte bera jaio zeneko herrian³⁸.

“Dotore prestatu dituzte mabaiak. Lorontzi erabili dituzte zesta-punta xisterak eta botila artean paratu dituzte. Euskal Herriaren armarria eginarazi dute antolatzaileek eta aretoaren buru ipini dute. Koroa ere jarri diote armarriari; artistaren lizentzia beti ez poetikoa, alegia. Eta ikurrina ere nabarmen ageri da, Ameriketako Estatu Batuetako, Espainiako eta Frantziako banderekin batera.

Horixe ez zaio gustatu Jose Maria Areilzari. Ikurrina, alegia. Min egin dio. Ikusi orduko egin du atzera. Edo aurrera. Batek jakin. Ezetz, ez dela mabaiburuan jarriko ikurrina handik ezkutatu arte.

— *Galarazita dago! Kendu bandera zikin hori nire begien bistatik! Galarazita dago!”*

³⁸ Ikus <http://www.kobweekend.com/>. Halaber, ikus John Logan (ed.) (1994) *With Warmest Love: Lectures for Kate O'Brien, 1984-93*. Limerick: Mellick Press. 1989an Areilza-k bertan eman zuen hitzaldi bat: Kate O'Brien: A personal and literary portrait, in John Logan (ed.) (1994). Areilza-k dioenez, “...she [Kate O'Brien] was stupidly forbidden entry to Spain until 1957...” Argi geratzen da, alta, O'Brien-en portaera hitzaldi horretan bertan. Izan ere, hitzaldian Areilza-k berak aipatzen du O'Brien-ek berari 1955ean idatzitako eskutitza. Eskutitzean O'Brien-ek honela dio: “...My short stay in your family home is printed indelibly in my memory. That period was so important for me that I used it to write an almost autobiographical novel called ‘Mary Lavelle’. It was printed in 1936 at the beginning of the Civil War (...) I myself later travelled to your country again and let it be known that I sympathised with the Republican case, which seemed to me the most liberal and democratic. My name was on the blacklist of the other side, the winning (sic) party. The outcome of that trip was another book called ‘A Farewell to Spain’, in which one again I recall the period of my stay in Bilbao during the 1920s.” (Oharra: ‘winning’ irakurri behar da.)

Ikus behean ekitaldi hori antolatzen duten batzordeko kideei idatzitako e-posta.

Eibhear Walshe-k dioenez, Kate O'Brien Irlandak XX. mendean eman duen idazlerik garrantzitsuenetakoa³⁹ da.

Haren nobelagintzaz zenbait artikulua eta liburu⁴⁰ argitaratu dira eta tesi batzuk egin⁴¹.

Baina Euskal Herrian deus gutxi dakigu⁴² idazle irlandar horretaz. Hortaz, oso interesgarria izango litzateke Portugaleta inguruan kokatzen den *Mary Lavelle* eleberria era on eta txukun batez euskaratzea.

Ba ote dago inor prest gure txoko honetan lan hori egiteko?
joseba felix tobar-arbulu (donejurgi)

PS: Hona hemen Limerick-en Kate O'Brien-en omenez urtero ospatzen den ekitaldiko antolatzaileei 2009ko uztailaren 22an bidali nien e-posta.

Dear friends,


As an admirer of Kate O'Brien from the Basque Country, I think that some notes should be taken into account when dealing with this wonderful Irish writer and her stay in our Country.

³⁹ Ikus liburu horren iruzkina hemen: http://findarticles.com/p/articles/mi_hb162/is_1_37/ai_n29362033/.

⁴⁰ **Ikus** http://www.pgil-eirdata.org/html/pgil_datasets/authors/o/O'Brien,Kate/life.htm.

⁴¹ Tesien artean, hona batzuk: Lorna Reynolds (1987) *Kate O'Brien : A Literary Portrait*; O'Toole, Martina (1993) *Sexual Transgression and Independent Women: Critical Analysis of the Novels of Kate O'Brien*; Grace, Paula (1995) *Amid Strange Pleasures and Palaces: Spain as a Locus of Female Liberation in the Work of Kate O'Brien*; Gonzalez Molino, Yolanda (2004) *Molly Keane y Kate O'Brien: Nación, Clase y Género*.

⁴² Artikulu hau bukatuta zegoela, Aintzane Legarreta Mentxaka ezagutu dut internet-en bidez, baita berarekin harremanetan jarri ere. Hona Aintzane-ren bi lan interesgarri. (a) Artikulu askotxoren artean honako hau: http://findarticles.com/p/articles/mi_hb162/is_1_39/ai_n32395095/?tag=content;col1 eta (b) Tesia: *Kate O'Brien's Mary Lavelle: Sex, Arts, Politics, and the Fiction of Identity* (2006).



Here some data:

(a) Jose Maria de Areilza was in your 1989 meeting in Liverick: <http://www.kobwee-kend.com/archives/participants.php>.

(b) Jose Maria de Areilza wrote a small article in El País, Spanish newspaper, in 1985: http://www.elpais.com/articulo/opinion/IRLANDA/Mary/Lavelle/elpepiopi/19850813elpepiopi_8/Tes/.

(c) In his 1985 article, Areilza wrote that Kate O'Brien:

“Publicó entonces un libro titulado *Farewell Spain*, especie de crónica de viaje por diversas ciudades españolas, que contiene un admirable capítulo sobre Bilbao, sus costumbres y el temperamento de sus habitantes. Pero el tono político del pequeño volumen fue suficiente para prohibir su circulación en España y vetar, asimismo, la entrada de la autora en nuestro país. Esta absurda inéddida (sic) duró hasta 1957, en que se le volvió a permitir viajar a la escritora a la nación que tan entrañablemente amaba.”

(One should read “esta absurda medida”.)

What for Areilza was ‘an absurd measure’ in 1985, perhaps can be better understood if we read what Areilza himself wrote in 1937 and in 1952.

(d) Areilza’s speech in 1937, in Bilbao:

http://es.wikisource.org/wiki/Discurso_de_Jos%C3%A9_M%C2%AA_de_Areilza_en_Bilbao_el_8_de_julio_de_1937.

(e) Areilza in 1952, letter to Kate O'Brien:

O'Brien was already dead (1974) when *Farewell Spain* again was published with a preface (of 1984) by Mary

O'Neill. In that preface we can read a letter written by Areilza in 1952:

"...I was your pupil some years ago -how many? And since then I believe we never wrote each other (...) I did for my country all that I could -and hope still to give her more, when she needs it..."



Here some notes:

- (1) Areilza's speech does not belong to an excited young full of revenge and anger. It belongs to a politician with charge in the Spanish Falange, a Fascist and Francoist movement which helped the general Franco in his illegal revolt against the legal Spanish Republic.
- (2) In 1952 Areilza still was proud about his past and ready to do the same kind of 'things' he did in 1937, if Spain needed him (sic).
- (3) Areilza's speech and what he wrote in 1952 are in strong contradiction with what Kate O'Brien wrote in *Farewell Spain*, mainly in the chapters *No pasarán* (sic) and in *Arriba, España* (sic).

The memory of the wonderful writer Kate O'Brien was has to be kept very clean and without any link at all to the Fascist, Francoist, and later on (in 1975!!) 'Democrat' Jose Maria de Areilza.

joseba felix tobar-arbulu
(Member of Euskal Idazleen Elkartea,
Basque Writers' Association)

HIZKUNTZAK BABESTEKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA

Hizkuntzak mehatxatzen dituzten faktoreak hiru multzotan sailkatu daitezke. Batetik, faktore politikoak daude. Alegia, indarra zein ezkutuko bideak erabiliz, herri, gizarte edo estatu batek beste bat menderatzen du, gero hizkuntza politika zehatzak inposatzeko. Bestetik, faktore fisikoak daude. Hondamendi naturalek edo gizakiek eragindakoek hizkuntza baten hiztunen desagertzea edo murriztea eragin dezakete. Hirugarrenik, faktore ekonomikoak eta sozialak daude. Hau da, herrialde bat beste baten mende gelditu daiteke, arrazoi ekonomiko edo sozialengatik, eta, ostean, herri menderatuaren goi mailako gizarte-klaseek, apurka-apurka, kanpotik etorritako hizkuntza eta kultura bereganatzen dituzte, euren jatorrizko hizkuntza eta kultura gutxietsiz.

Askotan, hiru faktore multzo hauek bereizita eragiten dute, baina, sarritan, elkarlotuta agertzen dira, aniztasun linguistikoa urte gutxitan desagerraraziz.

1. Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasa

Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasa (2009) berri-tu du aurrean Unesco erakundeak (<http://www.unesco.org/culture/ich/index.php?pg=00206>). Atlas honen helburua da desagertzeko zorian dauden hizkuntzen inguruan atentzioa deitzea, politikarien, komunitate linguistikoen eta, oro har, herritarren

artean munduko hizkuntza aniztasuna babestearen aldeko jarraera hedatzea, eta munduan desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzekin eta aniztasun linguistikoarekin gertatzen dena azaltzea. Egia esan, informazio oso erabilgarria ematen da atlasean. Modu interaktiboan, oso erraz lortu daiteke munduan zehar arriskuan dauden hizkuntzen egoerari buruzko informazioa.

Atlasean, argi esaten da gaur egun munduan hitz egiten diren 6.700 hizkuntzetatik erdia inguru desagertu egin daitekeela mendea bukatu baino lehen. Gainera, 1950. urtetik 241 hizkuntza desagertu direla azpimarratzen da. Besteak beste, Australian sei hizkuntza desagertu dira, Brasilen 12, Txinan bederatzia, Indonesian 10, Papua Ginea Berrian 10, Errusiar Federazioan 19 eta Amerikako Estatu Batuetan 53. Bereziki, atentzioa deitzen du Hego Ameriketara gertatzen ari den hizkuntzen heriotza. 1950. urtetik 35 hizkuntza desagertu dira Argentinan (4), Bolibian (4), Brasilen (12), Txilen (1), Kolonbian (4), Ekuadorren (1), Hondurasen (1), Nikaraguan (3) eta Perun (5).

Oro har, hizkuntzen atlas honetan, arriskuan dauden 2.498 hizkuntzen berri ematen da, bost biziberritze/arrisku mailatan sailkatuta:

- Salbu ez dauden hizkuntzak: umeez hitz egiten duten hizkuntzak dira, baina esparru zehatz batzuetan bakarrik (etxean, adibidez). Guztira, 607 hizkuntza daude egoera honetan (arriskuan dauden hizkuntzen %24,3). Unescok dionez, talde honetan dago euskara (Unescoren arabera, 660.000 eta 700.000 hiztun bitartean dauzka euskarak). Dena dela, Iparraldean euskararen egoera are eta kaxkarragoa da. Unescoren arabera, guztiz arriskuan dagoen hizkuntza da.
- Arriskuan dauden hizkuntzak: umeez ez dute hizkuntza ikasten etxean. Orotara, 632 hizkuntza daude talde honetan (%25,3). Aragoiera (10.000 hiztun inguru) asturiera-leoniera (150.000 hiztun) eta gaskoia (250.000 hiztun guz-

- tira, 3.841 Estatu espainiarrean) hemen kokatzen dira, eta zerbait egiten ez bada laster desagertu daitezke.
- Guztiz arriskuan dauden hizkuntzak: aiton-amonen belaunaldiak hitz egiten du bakarrik, eta gurasoen belaunaldiak ulertu egiten du, baina beraien artean ez dute hizkuntza erabiltzen eta ez die euren seme-alabei transmititzen: 502 hizkuntza daude egoera honetan (%20,1)
 - Desagertzeko zorian dauden hizkuntzak: aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenak dira hizkuntza dakiten gazteenak, eta, gainera, oso gutxitan erabiltzen dute: 538 hizkuntza denetara (%21,5)
 - Desagertutako hizkuntzak: hiztunak desagertu egin dira: 1950. urtetik 241 hizkuntza desagertu direla munduan esaten du, eta hauetariko 219 hizkuntzen berri ematen du (%8,8).

Egia esan, ez nau harritzen munduan 2.498 hizkuntza desagertzeko arriskuan daudela jakiteak. Izan ere, estatu askok ez dute ezer egiten euren lurraldean hitz egiten diren gutxitutako hizkuntzak babesteko. Indian, adibidez, 200 hizkuntza inguru eta 1.652 dialekto hitz egiten dira, baina Indiako konstituzioak 18 hizkuntza (assamesea, bengalia, gujaratia, hindia, kannada, kashmiria, konkaria, malayalama, manipuria, marathia, nepalia, oriya, panjabia, sanskritoa, sindhia, tamila, telugua eta urdua) onartzen ditu bakarrik bere VIII. artikuluan. Hemezortzi hizkuntza hauetariko asko estatuetakoko hizkuntza ofizialak dira (hindiaren kasuan estatu bat baino gehiagotan da ofiziala) eta biztanleriaren %95,58ak hitz egiten ditu. Honek zera esan nahi du: Indiako biztanleriaren ia %5ak (50 milioi pertsona inguruk) inolako onarpenik ez duten hizkuntzak bakarrik hitz egiten dituela, eta Indiako hizkuntza gehienek (178 hizkuntzak gutxi gora-behera) ez dutela inolako ofizialtasunik. Hau da, Indiako hizkuntzen %90 bazterturik dago, eta, ondorioz, indarra eta prestigioa galtzen ari dira. Horri ingelesa irakaskuntzan, administrazioan edota goi mailako kasten artean hartzen ari den na-

gusitasuna gehitzen badiogu, mendeetako eleaniztasunak gero eta oztopo gehiago dauzkala ondorioztatu behar da. Hizkuntza handiak hizkuntza txikien lekua hartzen ari dira Indian.

Maia hizkuntzen egoera aztertzen badugu, ondorio berdinetara heltzen gara. Mexikoko, Guatemalako eta Belizeko gobernuek aniztasuna suntsitzeko eta indigenak baztertzeko historian zehar hartu dituzten erabakiek eragin negatiboa izan dute maien kultura eta hizkuntzengan. Bizi diren lurraldeetan espainola (Mexiko eta Guatemalan) eta ingelesa (Belizen) direnez hizkuntza ofizial bakarrak, maia hizkuntzak ahultzen eta hiltzen joan dira. Nahiko indartsuen dauden Yukatekoa (Mexiko) eta K'iche (Guatemala) hizkuntzak alde batera utzita, beste hizkuntza gehienak denbora gutxi barru desagertu egin daitezke, behar bezalako hizkuntza politikak bultzatzen ez badira.

1990. urtean, Hizkuntzen Legea onartu zen Errusiar Federazioan. Dena dela, Errusiar Federazioko estatuetaiko agintariak ahalegin gutxi egiten dute *Hizkuntzen Legea* betearazteko, eta tokian tokiko hizkuntzen ezagutza eta erabilera bultzatzeko. Legezko ofizialtasuna lortu bada ere, aurrerapauso gutxi eman dira hizkuntzak sendotzeko eta eguneroko tresna bihurtzeko.

Europara begiratzen badugu, azpimarratzekoa da Europar Batasunean 19 hizkuntza ofizial daudela bakarrik, nahiz eta eremu geo-politiko honetan hitz egiten den hizkuntza kopurua askoz handia izan. Azken urteetako migrazioen ondorio diren hizkuntzak alde batera utzita, guztira, Batasuneko Estatuetan jatorria duten 60 hizkuntza hitz egiten dira, gaur egun, 27 Estaturekin osaturik dagoen esparru politiko eta ekonomiko honetan. Munduko biztanleriaren %7 bizi da Europar Batasunean, baina bakarrik munduko hizkuntza guztien %1 hitz egiten dira hemen. Hau da, biztanle kopuruari dagokion baino hizkuntza gutxiago hitz egiten dira Batasunean. Eta hori horrela da, nire ustez, EB osatzen duten 27 estatuetaiko gobernu gehienek gutxitutako hizkuntzak baztertu egin dituztelako eta asimilazio

politikak bultzatu dituztelako mendeetan. Gogoratu Europako Batasuneko estatu guztiek ez dutela berretsi hizkuntza gutxituen eskubideen aldeko Euroituna.

2. Hizkuntzak babestu beharra

Aniztasun linguistikoa izan da gure munduaren berezitasu-netariko bat, eta horrek ezagutza sortzea eta, ondorioz, eta bizikalitatea hobegotzea ahalbidetu dio gizateriari. Hizkuntzak elkarrekin harremanetan sartzeko eta gure ideiak, emozioak, ezagutzak, oroipenak eta balioak adierazteko tresnarik garrantzitsuenak dira. Hizkuntzak nahitaezko bitartekoak dira kultur adierazpenerako eta ondare kulturala ikusiezina transmititzeko, eta beharrezkoak dira gizakien eta gizarte-taldeen identitatetarako zein aurrerabiderako. David Crystal (2000) hizkuntzalariak dioten bezala, *“Hizkuntza batek herri baten oroimena, sentimenduak eta historia gordetzen ditu bere baitan”*.

Arriskuan dauden hizkuntzak babestea ezinbestekoa da, beraz, munduko aniztasuna eta aurrerabidea ziurtatzeko. Fishmanek dioten bezala, “Gaur egungo globalizazio prozesuaren baitan, hizkuntza txiki asko hil egingo dira. Hala ere, horien kulturek Walmart edo Coca-cola baino askoz ere dohain humanoagoak dituzte. Beraz, gure mundua hizkuntza txikiengat ere mundu segurua izan dadin lortu behar dugu haiei lagunduz eta haiek gordez, gure hobe beharrez (eta haien hobe beharrez)”. Baina nola lortu hori? Zer egin behar da gertatzen ari den linguizidioa gelditzeko? Nola behartu estatuak gutxituta-ko hizkuntzen ezagutza eta erabilera bultzatzera?

3. Nazio Batuen Erakundea eta Unesco

90. hamarkadan, Unesco (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) bere historian aurretik inoiz baino indar gehiagorekin hasi zen hitz egiten hizkuntzak galtzearen arriskuaz, eta estatuei hizkuntzak babesteko erabakiak hartzeko

aholkuak ematen. Horrela, 1996an, Mayor Zaragoza, garai hartan UNESCOko presidenteak, Hizkuntza Politikei buruzko nazioarteko mintegi batean parte hartu zuen Leioan (Bizkaia), eta hizkuntzak babestearen garrantziaz berba egin zuen euskal gizarteko hainbat politikari eta eragileren aurrean. Hain zuzen ere, Mayor Zaragoza jaunak zera esan zuen Mintegi horretan: *Munduko hizkuntzen egoerari buruko UNESCOren lehen txosten baten premia dago, planetako hizkuntz aberastasuna deskribatu eta munduko lurralde guztietan hizkuntzek dituzten arazoak azalduko dituen, hizkuntz ondarearen kontzientzia sustatu, euren bilakaera behatzen lagundu eta hizkuntza biziak babesteko neurri gaurkotuak gomendatzeko helburuz*. Mintegi honeetatik abiatuta, Unesco Etxeak Eusko Jaurlaritzarekin akordio bat sinatu zuen 1997an, eta 2005ean Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena argitaratu zen (Martí et. al., 2005). Txosten honen helburua izan zen munduko hizkuntzen egoera azaltzea, euren ezagutza, erabilera eta bilakaerari buruzko datuak emanez. Era berean, zonalde geografiko ezberdinetako errealitate soziolinguistikoaren prospekzio azterketa burutu ziren, hizkuntzen dinamikan aldagai garrantzitsuak zeintzuk ziren zehazteko. Hori guztia desagertzeko arriskuan edo gutxitutako egoeran dauden hizkuntzen sustapen eta berreskurapenerako politiken arloan hartu beharreko erabakiei buruzko zenbait irizpide emateko.

Mintegi hau egin zen urte berean, 1996an, Unescok arriskuan dauden munduko hizkuntzen lehen atlasa argitaratu zuen, Stephen Wurm ikerlariaren eskutik. Arestian esan bezala, Atlas honen helburua zen desagertzeko zorian dauden hizkuntzen inguruan atentzioa deitzea, politikarien, komunitate linguistikoaren eta, oro har, herritarren artean munduko hizkuntza aniztasuna babestearen aldeko jarrera hedatzea, eta munduan desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzekin eta aniztasun linguistikoarekin gertatzen dena azaltzea.

Bai Atlasak zein Txostenak gutxitutako hizkuntzen babeserako balio sinboliko handia izan zuten. Izan ere, nazioarte mailan nola-

baiteko eragina eta prestigioa zuen erakunde batek lehen aldiz plazaratzen zuen gutxitutako hizkuntzen auzia, eta estatuei arlo honetan erabakiak hartzea aholkatzen zien. Oartzun mediatiko handia lortu zuten bi lanok, eta hori berez izan zen postiboa.

Lan bi hauek argitaratzeaz gain, NBEak Hizkuntza- eta Erlijio-Gutxiengo Nazional edo Etnikoetako Pertsonen Eskubideen Adierazpena plazaratu zuen 1992an. Unesco-k, bestalde, Kultura-Aniztasunaren Aldeko Adierazpen Nagusia bultzatu zuen 2001ean. Adierazpen honen 5. artikulua zera dio: "...Gizaki orok aukera izan behar du adierazpenak egiteko, eta bere obrak sortu eta zabaltzeko, berak nahi duen hizkuntza horretan, eta, bereziki, ama-hizkuntzan..."(Jagon Saila, 2007:41). Adierazpenaren 6. artikulua, bere aldetik, zera aipatzen du: "Ideien zirkulazio askea bermatuta dago, zirkulazio hori hitzaren nahiz irudiaren bitartez gerta daitekeela. Hori bermatzearekin batera, zaindu behar da kultura guztiak adierazpenak egin eta euren burua ezagutarazi ahal izatea. Kultura-aniztasunaren bermatzaile dira, besteak beste, adierazpen-askatasuna; komunikabideen aniztasuna; eleaniztasuna..." (Euskaltzaindia, Jagon Saila, 2007:41). Azkenik, kontuan hartu behar da 2005ean Unesco-k Kultura-Adierazpenen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeko Konbentzioa sinatu zuela. Bertan aitortzen da hizkuntza-aniztasuna kultura-aniztasunaren oinarritzko osagaia dela (Euskaltzaindia, Jagon Saila, 2007:41).

4. Hizkuntzak babesteko nazioarteko erakunde indartsu baten beharra

NBEak eta Unescok azken urteotan emandako pausoen garrantzia ukatu gabe, argi dago zerbait gehiago behar dela munduan gertatzen ari den linguizidioa gelditzeko. Orain arteko esperientziak erakusten du asmo onez betetako adierazpenak, bilerak eta proposamenek ezer gutxirako balio dutela hizkuntzen heriotza gelditzeko. Izan ere, Estatuak, kasu gutxi egiten diote botere ekonomiko, politiko edota militarrik ez

duen erakunde bati. Are gehiago, itxura guztien arabera, etorkizunean ere horrela izango da, estatu zein gobernu buruek benetako eztabaidari oratzen ez badiote; alegia, munduarentzako gobernu bakarra bultzatu nahi duten edo ez erabakitzen ez badute.

W. L. Willkie-k bere *One World* (1945) liburuan edo J. Maritain-ek bere *Gizakia eta Estatua* (1951) liburuan aldarrikatu legez, nik ere pentsatzen dut munduko arazoak konpontzeko, estatuen gaintetik egongo den nolabaiteko gobernua behar dela. Hizkuntzen arlora jaitsiz, iruditzen zait estatuak hizkuntzak babestera behartuko dituen erakunde boteretsu bat behar dela munduan. Izan ere, hizkuntzen babesa Estatuen erabakien mende uzten bada, hizkuntzak mehatxatzen dituzten faktore politikoak, fisikoak eta ekonomiko eta sozialak indartzen joango dira, gutxitutako hizkuntza gehiago desagertuko da, eta pentsamendu, kultura eta bizitzeko modu gutxi batzuk nagusituko dira munduan.

Aipatutako Bibliografia

- Crystal, D. (2000): *Language Death*. Cambridge University Press, Erresuma Batua.
- Euskaltzaindia-Jagon Saila (2007): *Hizkuntza-zuzenbidea. Tes-tu bilduma euskaraz*. Euskaltzaindia, Jagon Saila, Sustapen Batzordea.
- Maritain, J. (1983): *El hombre y el estado*. Fundación Humanismo y Democracia: Encuentro. Madril.
- Martí et. al (2005): *Words and Worlds. World Languages Review*. Multilingual Matters, Erresuma Batua.
- Unesco (2009): Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasa. (<http://www.unesco.org/culture/ich/index.php?pg=00206>).
- Willkie, W. L. (1945) *One World*. Aymá, Bartzelona.

Patxi Juaristi

DETAILEAK

Bizitza detailezko adabakiz josita dago. Eguneroko bizitzan mila proiektu, arazo eta helburu darabilzkigu, eta denak oso garrantzitsuak izango dira geure nortasun eta garapenerako. Baina eginkizun horiek denak biluzik egongo dira, detaileekin janzten ez baditugu. Goizean jaikitzen garenetik gauean amestetan murgiltzen garen arte milaka detaile, argi-errainu, bizi-pentxo, bihotzondoko jartzen dira gure sentipenaren bidean:

Iturrian argiak egiten duen distira, hortzetako eskuilaren di-seinua, xaboiaren burbuilak, kafearen usaina...

sagarraren gordintasuna, hostoaren berdetasuna, haur ho-rren irribarrea...

lorontzian jaio den lore berria, haizearen freskotasuna, ho-nako horren begirada zorrotza, lainoen artetik sartzen diren ar-gi-geziak...

eraikin honen dotorezia bere apaingarri bitxiekin, olatuen aparrezko gailur birakariak, kaioen hegazkera laua...

...



Esan ohi da memoria ona ez dela dena gogoratzen duena. Memoria onak gauza garrantzigeak baztertzen ditu, gauza funtsezkoak bakarrik bere baitan gordetzeko eta gogorarazte-ko. Horrek esan nahi du gauzak ahaztu behar dituzula, baina

DETAILEAK


bide batez detaileak ere bai. Eta bizitzaren xarma detaileen bizipenetan eta sentimenduetan datza. Horregatik saiatzen gara geure oroitzapenaren altzoan murgiltzen geure bizitzako unetxo baten piztu zen bizipen-txinparta haren argia berreskuratzeko.

Hona hemen bizitzan zehar estropezuka egin dudan ibilalditxoan aurkitu ditudan detaile batzuk.

Juan Mari Arrizabalaga



Alanbrezko eskulturak.




Amets abstraktoa.




Apaingarria.




Argia.




Baranda.



Burbulak.




Eskailera.



Haritz ostoa.



Kanpandorrea.




Kapitela.



Egan.







Kikarak.




Korapiloa.




Leibo erromanikoa.




Mendibidea.



Organoa.



Tantaka.



Zutabeak.

CARITAS IN VERITATE

“Caritas in veritate” “Maitasuna egian”. Hauxe da Benedikto XVI.a Asita Santuaren hirugarren entziklika. Hirurok bata bestea baino mamintsuagoak ditugu. Lehenengo biak euskeratuta daukaguz euskera ederrean. Itzultzailea Luis Baraiazarra dogu. Entziklika barri honek izango ete dau beste bien zorionik? Gure meñakar idazleari osasunak laguntzen badeutso, ziur nago, baietz.

Maitasuna egian

Ezin dira, inondik inora, maitasuna eta egia, alkarren aurka jarri. Pentsamendu hau entziklikaren asieratik amaieraraino garbi agertzen da. Maitasunaren errailetan egia aurkitzen da eta egiaaren errailetan, maitasuna. Maitasuna egian txertatu eta egia mitasunean. Maitasuna egiaz beterik eta egia maitasunez gainezka.

Baieztapen biribil hau Jaungoikoagan oinarritzen dau Aita Santuak. Berau da, izan be, Maitasun eternoa eta Egia absolutua. Pertsonak be Jaungoikoaren irudi diranez, euren ernamui-netan grabauta daroez egia eta maitasuna.

Hemendik ataratzen dau Aita Santuak ondorio sakon eta pozgarri hau: “Pertsonen arteko hartuemonak beti be maitasunean eta egian sustraituta egon beharra”. Bestela ez dira giza-

tasunezko hartuemonak. Maitasuna egiaren argitan eta egia maitasunaren argitan bilatzera, gonbidatzen gaitu entziklika honek. “Egiarik bako maitasuna. sentimentalismo hutsa besterik ez da”, idazten dau Benedikto XVI.ak.

Arazo soziala

Entziklika honen ardatza gizarteko arazo soziala da. “Caritas in veritate in re sociali” Aita Santuaren esanetan. “Arazo sozialean, maitasuna egian”. Paulo VI.ak argitaratutako “Populorum progressio” entziklikaren 40. urteurrena izan dau kontuan Benedikto XVI.ak bere entziklika barrian.

“Populorum progressioren” laburben eder bat dakar. Honetaz, holako laburpenik nik neuk ez dot inon ikusi. Batzuetan Paulo VI.aren entziklikaren kantu zoragarri bat dirudi. “Rerum novarum” famatuaren pareko jarten dau hogeigarren aldiko mendean. Beti be analisi sakon bat eginez. “Populorum progresio”ren iturria Vatikanoko II.ean aurkitzen dau “Gaudium et spes” dokumentuan ain zuzen be. Montini Aita Santuaren pentsamendua osotzeko haren beste dokumentu batzuk be, hartzen ditu gogoan. Esaterako, “Octogesima adveniens”, “Humanae vitae” eta “Evangelii nuntiandi” agiri sonatuak. Azken baten, Pablo VI.aren ideia nagusiak. Pertsonen aurrerakuntza integrala izan behar dau. Gorputzaren eta espirituaren balioak baztertu barik. Beti be trazezendentziari zabalik dagozan pertsonak suposatzen ditu “Populorum progressio” entziklikak.

Globalizazioa

Nahiz eta “Populorum progressio” idatzi zanetik hona hobekuntza handiak izan munduan, orduko arazo gordinak hor diraeu tamaez oraindino. Esaterako, gosea, analfabeismoa, izurriteak, demokraziarik eza hainbat lekutan, nazino pobreen eta aberatsen arteko leize-zulo beldurgarria eta abar.

Baina gaur egun, gauzak asko aldatu dira munduan. Arazo sozial barri honeek ditu aztergai Benedikto XVI.ak. “Globalizazioa” deritxon berbagaz laburbiltzen ditu Aita Santuak gure arazo sozial desberdinak. Paulo VI.aren denporan, gehien bat naziño baxotxa ia bakarrik saiutzen zan bere problemak konpontzen. Gaur ez da holakorik gertatzen. Naziñoak bata bestearen menpean bizi dira. Mundu guztiak, “auzo global” bat dirudi.

“Merkatu-Globalizazioa” berez ez da gauza ona ez txarra. Zelan konpontzen diran arazoak, hortxe dago gakoa. Horretan dihardu Aita Santuak bere entzikliaren bigarren zatian. Horretarako beharrezko ikusten dau gizartean “humanismo” integral barri bat. Pertsona salbatzea da oso-osoan, gorputz eta arima, arazo zozialen bihotza eta helburua. Ez da nahikoa, bada, teknologiak eta ekonomiak dakazan aurrerakuntzekin. “Superaurrerapen ekonomikoak” moralki azpigaratzera bagaroaz, kontuz! Jaungoikua da, azken baten, pertsonen eskubide guztien euskarria edo bermea.

“Maitasunaren eta Egiaren” ildotik “globlizazioa” gizabide-tu beharrean aurkitzen da. Horixe da “Caritas in veritate” entziklikaren erronka ozena eta larria. Baina, aldi berean, errealismoz eta konfiantzaz beteriko erronka egiten deusku Benedikto XVI.ak.

A. Olea

**EUSKAL HERRIKO LITURGIAN
KANTU BERRIAK ETA BERRITUAK
ETA GIZA ESKUBIDEAK**

Berrikuntza handia

Joan den mendearen erdialdetik aurrera sekulako lana egin da, liturgian, nola musikari dagokionez hala kantuen testuari dagokionez. Lerro hauetan testuari eman zaion tra-taerari lotuko natzaio. Hori ere, alde jakin batetik harturik. Autoreen giza eskubideak aintzat hartzeari edo ez hartzeari dagokionez.

Liturgiako testuek ez omen autorerik

Inoiz arazo hau harrotu izan dudanean, hala esan didate: Liturgi liburuetan ez da zilegi testuen autoreak aipatzea. Halerre, bada salbuespenik. Mezako irakurgaietan Bibliako testuen autoreak aipatzen dira, historikoenak nahiz tradiziozkoenak. Orduen liturgian ere aipatzen dira bai Bibliako testuenak, baina bestelako irakurgai luzeenak. Baina ez kantuenak.

Neure buruari galdegin izan diot: zergatik ez beste testu labur eta kantuenak? Gauza bera: zergatik ez: musikaren autoreenak? Ez dut erantzun arrazoizkorik aurkitu. Soil-soilik: Roma locuta, causa finita (Erromak hitz egin du, bukatu da arazoa).

Agian, norbaitentzat balio duen «arrazoibidea». Niretzat, al-diz, giza eskubideen beste urraketa handi bat gehiago. Egileak bere eskubideak ditu. Irakurleak ere bai. Egileak eskubidea du bere obra aitortu diezaioten. Irakurleak eskubidea du egilea zein eta nor den jakiteko; irakurtzen eta kantatzen ari den testua edo/eta musikaa zein testuingurutan egina den jakiteko.

Eliz hierarkiaren delako «lege» hori ez da legea, ez da zuzena, ez da gizabidezkoa. Gizabidearen aurka doa. Dela Elizaren Zuzenbide Kanonikoan datorrela (ez dakit hala ote den), dela ohiturazko sasi-tradizioan datorrela, dela... ez da gizabidezkoa; beraz, ez da lege.

Besterik ezean, egin beharrekoa

Askotan beharturik eta ohiturik gertatu ohi gara lege ez diren «legeak» ezinbestean jasan behar izaten. Eman dezagun horietakoa dela gorago aipatu dudan kasua.

Besterik gabe, besoak gurutzaturik utzi behar ote dugu barrabaskeria horrek nagusi izaten jarrai dezan. Ez, ezin gera gintzke esanez: nik ezin aldatu dut hori esanez.

Ez. Ezin gera gintzke planto eginik. Gutxienez, bi mailatan dakusat derrigorrez egin beharrekoa.

Batetik, Erromako instantzia zurrinak baino sentiberago diren – izan beharko luketen– tokian tokiko elizetako goi-instantziek egin beharrekoa. Alde batetik eta bestetik Erromako instantzia zurrin horietan jo beharko lukete. Bakarka nahiz taldeka. Eta ez instantzia hierarkikoez soilik, baita, eta batez ere, instantzia liturgiko, teologiko, pastoral, kanonikoez ere bai. Jakina, giza eskubideekiko sentiberatasuna –ez soilik, kasu baterako, ETaren biktimekikoena– jakintzat eta gauza errealtzat ematen dut.

Bestetik, autoreen izena liburu ofizialetan ez jartzearen zuzengabekeria, neurri batean konpontzeko balegoke biderik.

Zergatik ez argitara eman izen horiek liburu ofizialean separa bezala. Edo, bestela, Gotzaindegiko Aldiz karian edo tirada handi samarreko beste euskal aldizkari batean? Horretarako ez da aitzakiarik, ez da eragozpenik. Aski da giza eskubideekiko sentiberatasun-apur bat. Besterik ez. Hori eta gehiago zor zaio egileari, irakurleari.

Arazo larriagoa

Liturgiako testuen autoreekiko errespetu-falta, eskubide-urraketa, ez da bukatzen esandako puntu horrean.

Hau da larriagoa den hori: inolako begiramenik gabe, autoreen testuak aldatu egiten dira. Ez soilik ortografiari dagokionez. Edukia bera aldatzen da hainbat kasutan, neurri handian.

Arazoa ez litzateke izango hain larria, baldin eta adieraziko balitz zein aldaketa egin den, zergatik eta zeinek. Baina testuaren autorea aipatzen ez bada, askoz gutxiago adierazi ohi da egin ohi d(ir)en aldaketa(k).

Arazoa puzten ari naizela inork pentsa ez dezan, hona Orixeren gorazarre bati egin zaion mutilatzea. Orixeren Gorazarre batez ari naiz. “Urte Guziko Meza Bezperak” liburuan dakar Orixe, 444. or.; eta horren ordaina “Orduen Liturgia” delakoan dator, 586. or.:

ORIXE	ORDUEN LITURGIA
Odola atean zirtatuz	Aldendu zen Aingerua
Aingeru-epzata auldu zun,	ate odolduetatik;
itsas-ura lekutu zan	lekutu zen itsasoa,
etsaiak iretsi zitun.	etsaiak urperaturik.

Gure Orixe burua altxatuko balu! Arrazoi osoaz harrotuko lituzke tximistak eta trumoiak!

Zoritxarrez, testuak inolako adierazpenik gabe aldatze hau ez da liturgiaren mundukoa soilik. Horrelako edo antzeko bat

baino gehiago eginak gara, inondik ere, jende asko. Duela gutxi, adibidez, Xabier Leteren poesia batekin –"Sinesten dut egun batetan hilen naizela" delakoarekin– egin nuen horrelako esperientziarik. Nik, arazo jakin baterako, poesia hori nahi, Internetara jo eta, gutxienez, bi forma desberdinetan agertu zitzaidan. Jatorrizko liburuaren bila joan, eta Internetekoetan hainbat aldaketa eginak zituztela egiaztatu nuen.

Bai. Askotan agertu ohi dugu sentiberatasun koxkorra giza eskubideekiko. Eskubide batzuekiko, bai, mila irrintzi eta mila oihu. Baina sentiberatasun globala urrun.

Dena den, gaurkoan, Liturgiaren munduko aldrebeskeria azpimarratu nahi nuen.

Lazkao, 2009-05-31
Dionisio Amundarain

KRISTAU BILDUMA

Nire hausnarketa honen funtsa, nire fedearen adierazpena nire giza gogoetaz eskaintzea da.

Ez dut jardungo teologiaz (ez bainaiz teologo) Jaungoikoari buruz, nire kristau gogo xumean oinarrituz baizik. Ezta ere, inolako filosofiatik, filosofo ere den gizakiaren izanaren ulkeratik baizik.

Nire giza xumearen ikuspegi/abiapuntu bereizia baiespen honek adierazten du: *'gizakia maitagogo da.'* Berriz ere gogora ekarriko dut baiespen horren edukia:

Gizakia soinezko maitagogo da. Maitagogo izatean, maitari/ezagutari/hautari da. Bere beste men guztiak (adimena ere bai) funtsezko den maitamenaren zerbitzari dira. Eta gizakia maitagogo izatea Maitasun den Jaungoikoaren antzeko eta irudiko izatean datza. Gizakia den etikak Jaungoiko Maitasunean dauka jatorria eta helmuga.

Nire kristau giza ikuspegi/eskaintza hau azalarazteko, batez ere Itun zaharrera eta Itun berrira jo dut, adimenezko obedienezari (adimena giza maitamen-hautamenaren esanera ipintzeari) buruzko baiespenak hausnartzeko. Eta San Ignacio eta Santa Teresaren irakaspenak ere jasoko ditugu.

Genesisian

“Baratza erdian bi zuhaitz ernearazi zituen: batak bizia ematen zuen eta besteak dena ezagutzeko ahalmena...”

“Baratzeko zuhaitz guztietatik jan dezakezu; baina ez jan dena ezagutzeko ahalmena ematen duen zuhaitzetik, hartatik jaten baduzu, hil egingo zara...”

“Sugeak esan zion emakumeari: *‘Jainkoak debekatu egin dizue, beraz, baratzako arbola guztietako fruituetatik jatea.’* Emakumeak erantzun: *‘Ez, jan dezakegu baratzako arboletako fruituetarik. Baratza erdian dagoen zuhaitzaz bakarrik esan digu Jainkoak: “Ez jan horretatik, ezta ukitu ere, hil nahi ez baduzue.’*”

‘Ez zarete inolaz ere hilko –esan zion sugeak–. Ongi daki Jainkoak, hartatik jan dezazuenean, begiak zabalduko zaizkizuela, eta bera bezalako bihurtuko zaretela, dena ezagutzeko ahalmena lortuz.’”

Gizadiaren hasierari buruzko gure kristau kontakizunetan argi azaltzen da egia hau: Jaungoikoak hautari (hau ala hau aukeratzeko ahalmendun) egin zuela gizakia. Eta, behar izanez gero, zuzen (maitatzea) hautatzeko askatasunari ere uko egin behar diola gizakiak: *“hortik ez jan”*.

Gizakiaren lehen bekatua adimenezko desobedientzia izan zela. Gizakiaren oinarrizko eginkizuna ez zegoela/dagoela gizakia bere adimenaren esanera ipintzean, bestekaldera baizik; gizakiaren eginkizunak hautatzerakoan, adimena ere (bere potentzia guztiak bezalaxe) hautaketa zuzenaren lagungarri erabiltzean. Maitamena/hautamena dela gizakiaren norabide-agindu-gidari nagusia. Maitatzea ez baita agindu hotsa, giza izaera berberaren arabera jarduteko Jaungoikoak eman digun ahalmena eta egiten digun maitasunezko eskaera baizik.

Eva eta Adanen jokabidea azaltzeko, sugeak aholku hau eman ziola Evari esango genuke gure garaietako hizke-

ran⁴³: ‘*sapere aude*’. Eta gure gurasoek deabruak gogorazitako jardunbide hori onetsi eta bere egin zutela. Obedientzia-zako maitasun bidea utzi eta ‘*Sapere aude*’ aholkuari jarraitzea izan zela lehen desbideratze/pekatua.

Itun zaharrear

Abrahamen ekintza zuzena, maitasunezkoa, Isaac bere semea Jaungoikoari eskaintzea izan zela erakusten zaigu. Adimenezko iritziaren gainetik, bere gogoia zuzenean Jaungoikoaren esanera ipintzea izan zela Abrahamen erabaki Jaungoikoak txalotua.

Guk ezin dugu jakin nolatan jaso zuen, zer dela eta zekien ziur Jaungoikoaren eskaria zela bere semea eskaintzea. Baina argi azaltzen da, hori ziur jakinez gero, eta lehenbiziko aginduaren eduki nagusia Jaungoikoa Bera maitatzea dela onetsiz, zera izan zela ekintza zuzena: bere seme kuttuna Jaungoikoari eskaintzea. Adimenezko obedientzia izan zela hautaketa zuzena. Eta zintzo Jaungoikoaren gogokoa (maite-ekintza) egin bidean jarri zelako, gizadiaren fedezko aita bedeinkatu garatu zela.

Itun berrian

Jesusek bere hautamenaren azalpen garbia egin zuen. Eta Aitarene esanera –ez Jesus beraren giza adimenaren/nahiaren arabera– jarduteko, bizia galtzea hautatu zuela esan zigun, bere askatasun osoa gurutzeko egurrari utzi eta lotuz.

“Ez dit bizia inork kentzen, baizik eta nik neurez ematen dut. Neure esku dut ematea, eta neure esku berriro hartzea.” Jn 10, 18.

⁴³ “‘*Sapere aude*’ *Habe Mut, dich deines eigenen Verstandes zu bedienen!* ist also der *Wahlspruch der Aufklärung*”. INMANUEL KANT. *Was ist Aufklärung?*, 1.- “Izan adore zuk zeure adimena erabiltzeko! baita Argiketaren ikurritza.”

“... ahozpeaz erori zen eta otoitz egin zuen, esanez: ‘Ene aita, ahal bada, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala.’ Mt 26, 39.

Jesusek ere, gu bezala gizaki hautari zenez, bere bizia ez ematea aukeratzeko hautamena izan zuen. Hau da, bere maitakizuna –gure alde bizia ematea– ez betetzea ere zegoen bere aurrean zeuzkan jardunbideen artean. Baina bere barrengo giza sena gaingidituz, bere Aitarene esanera jarriz, bizia ematea hautatu zuen, gu gizaki guztion maitakizuna beragan zeharo betetzeko, gure okerkeria (makurkeria, zabarkeria, bihurrikeria, gaiztakeria, errakuntza) guztiak zeharo gaingiditu eta ezerezteko.

San Ignacio

Eskriturretan obedienciaziari buruz azaltzen dena –adimena maitasunaren menpeko izatea, hain zuzen–, San Ignaciok eta Santa Teresak argitasun osoz jaso eta irakatsi ziguten. Honela San Ignaciok, nahimenari eta adimenari buruz, giza gogoaren ahalmen menpeko direla zehatz-mehatz adieraziz:

“Y como esta voluntad es en el hombre de tanto valor, así lo es mucho el de la obediencia, en que ella se ofrece por la obediencia a su Criador y Señor...”

“Pero quien pretende hacer entera y perfecta obediencia de sí mismo, además de la voluntad es menester que ofrezca el entendimiento (que es otro grado y supremo de obediencia), ...” Carta a los Padres y Hermanos de Portugal, 3

“Tomad, Señor, y recibid toda mi libertad, mi memoria, mi entendimiento y toda mi voluntad todo mi ser y mi poseer; vos me lo disteis; a vos, Señor, lo torno; todo es vuestro, disponed a toda vuestra voluntad; dadme vues-

tro amor y gracia, que ésta me basta.” (Ejercicios Espirituales, 234)

Santa Teresa

Eta Santa Teresak, bere aldetik, gogoa jardunean ari dela noiznabi dio, bere potentziak ezertarako erabili gabe. Ez da erratza idatzi zituen gizakiaren bizipen horren sakon, goiko, miragarrietatik zerbait garbi eta zebatz adierazgarria jasotzea. Baina gogoa (alma) bere adimena, nahimena eta potentzia guztietatik argi eta garbi bereizi eta gorago, agintean ipintze duela ikusteko, aipamen hauek izango dira, nik uste, nabiko:

“... Esposo..., haya tanto amor y deseo de contentarle, que no escuche las razones que le dará el entendimiento ni los temores que le porná...” SANTA TERESA DE JESÚS.– Obras completas B.A.C. 1967. “Meditaciones sobre los Cantares”, 3-1 – 344. orr.

“... estando todas las potencias muertas u dormidas quede el amor vivo...” Id. id. 6-4, 355. orr

“... las potencias, que son los alcaldes y mayordomos y maestresalas”, Id. id.- Moradas primeras. 2-4, 368. orr.

“...los vasallos del alma –que son los sentidos y potencias que Dios les dio de su natural” – Id. id. Moradas primeras, 2-12, 370. orr.

“...no está la cosa en pensar mucho, sino en amar mucho” Id. id. – Moradas cuartas. 2-7, 383 orr.

“... lo que queda dicho de suspensión de potencias...” Id. id. – Moradas quintas, 3-4, 399. orr.

“... el alma nunca estuvo tan despierta... las potencias están tan absortas –que podemos decir que está muertas...” Id. id. – Moradas sextas, 4-4, 414 orr.

“... *ata las potencias de manera que no quedan con ninguna libertad para cosa...*” Id. id. – Moradas sextas, 11-2, 435. orr.

“LAS MORADAS” idazki miragarri honetan eskaintzen dizkigun bere erakustaldien gailurrean (Moradas séptimas) nolabait bere hausnarketan zergatia argitu nabian-edo, honela bil-tzen ditu bere adierazpenak:

“*También me parece que el alma es diferente cosa de las potencias y que no es todo una cosa; hay tantas y tan delicadas en lo interior, que sería atrevimiento ponerme yo a declararlas.*” –SANTA TERESA DE JESÚS.– Obras completas B.A.C. 1967.– Moradas séptimas. 1-12, pág. 440.

San Ignaciok eta Santa Teresak maitamenaren (gogo edo *alma*) adimenari eta potentzia guztiei buruzko nagusitasuna eta gidaritza irakasten dizkigutenak, gizakiaren benetako izaeraren giza adierazpenak dira, batetik; eta, baita ere, bestetik, gizakiaren *kristau* ulerpen sakonetan sakonak. Gogo barreneko maitasunezko obediencia, Espiritu Santuak gizakiari ematen dion goiko emaitza baita, maitatzean gauzatzen dena.

Gure baitan

Gugan, gizakiagan, hiru ezaguera maila daude: zentzumenen maila, adimenaren (eta nahimenaren, oroimenaren) maila, eta maitagogoaren (men guztien buruaren) maila. a) Zentzumenen bitartez zentsagarria den oro hautematen dugu. b) Adimenaren bitartez, zentzumenez jasoak hausnartu (zientzia) eta hausnarketan hausnarketak eratzten eta adierazten ditugu (filosofia). c) Gogoaren bitartez, zentzumenekin jasoak; adimenez aurkitu eta argituak; eta, batez ere, giza muineko gogoetak darabilzkigu. Eta maitari garenez, gure gogoan maitamenaren iturburu eta helburu den Maitasunerantz jotzen dugu, Espiritu Santuaren eraginez. Sinesbideak azaltzen zaizkigu, fedea sortzen zaigu. Gure izaeraren muina maitatzea dela ulertzen du-

gu. Horregatik, gure gogo barrenko giza ulerkerari eta fedeari jarraituz, San Agustinen *'dilige et quod vis fac'* (maita eta egin gogoko duzuna) esaldia baino areago, beste hau baietsi behar-ko genuke: *'fac quod es et diliges'* (egizu zarena eta maita egingo duzu).)

Gizakiaren beheko solairuan zientzien datuak daude. Erdiko solairuan zientziak eta filosofiak daude. Eta goiko solairuan, gogoan, maitagogoan, geure funtsezko izaera, gure ahalmen guztien agintari/jauna eta Jaungoikoarenganako sena agertzen zaigu.

Zientzia adimenak datuen hausnarketan argitutako egiak dira. Filosofia adimenez hausnarketa hutsen hausnarketen bitartez aurkitutako egiak dira. Eta gogoetak gizakiaren ariketa orotan bere izanari, jatorriari eta jomugari buruz gogoak sortzen dituen gogo-adierazpenak dira; gizaki muinaren iturburuari eta fedeari buruzkoak, adimenez nolabait adierazgarriak batzuetan, beste batzuetan hori ere ez.

Filosofia eta zientzia (hau zentzumenen datuei lotuta garatzen denez) ez daude nibel berdinean; behaketa zientzia hutsez froga ezinetan oinarritzen baita zientzia. Eta fedea eta filosofia ez daude maila berdinean. Fedea filosofia eta adimena baino gorago dagoelako; maitagogoaren solairuan. Adimena, (eta nahimena, oroimena) maitagogoaren men bat denez, gogoetetan bitarteko lagungarria izan daiteke, eta adierazlea. Gehiago ez. Bilduz: goian gizakia dago; gizakiarenak beherago.

Beraz, gizakiaren muina/izana aditzen ematen duen hitza ez da izaki *"rationale"*, izaki *"maitari"* baizik. Gizakia *'animal rationale'* ere da, jakina. Baina giza gogoaren funtsezko adierazlea *'rationale'* izatea dela onartuz gero, ez dugu, inola, gizakiaren jardun guztien aipamena egiten. Kanpoan geratzen dira hainbat eta hainbat gogo hutsaren bizipenak: adibidez, pintura bati begietsiz edo sinfonia bat entzunez edo ekintza on baten lekuko izanik gure barrenean nabari ditugun gogapenak.

Etika bera ere puskatu egiten dugu, gizakiaren potentzia bat den adimenaren aurkipean bihurtuz; gizakiaren giza ekintza osoari buruzkoa denez erakutsi ordez. Itun zaharra, Itun berria eta San Ignacio/Santa Teresaren erakutsiak isilpean uztea da. Eta garai eta aldi guztietako gizakiek onartua saihestea: maitatzea dela, gizakiaren alde egitea dela etika zuzenaz benetan jokatzea; gizakia “animal *diligens*” dela. “*Diligens*” hitza gizakiaren funtsezko izaeraren goragoko adierazpena dela, “*rationale*” hitza baino.

Hala ere, ‘*animal diligens*’ definizioak berak ere ez du giza-kiaren izana gure ‘*soinezko maitagogo*’ adierazpenak bezain ongi argitzen. Substantiboa ‘*animalia*’ egiten baitu eta ‘*diligens*’ adjektiboa. Gureak, aldiz, ‘*maitagogo*’ egiten du substantibo eta ‘*soinezko*’ kalifikatzaile, askoz zuzenago, gizakian dartzan hierarkia askoz hobeto eskainiz.

Bestalde, etika adimenaren (gizon argitsuen) esaneko egitea, –lehenago ere esanda daukagu– atek zeharo zabaltzea da horrenbeste adimentsuk aurkeztu izan dituzten okerbideei, gizadia eurok aurkitutako argien arabera eratuz gizakiak bete betean garatu eta zoriontsu egingo dutela iragarritz. Adibidez, eugenesia, enpirismoa, arrazismoa, komunismoa, nazismoa, diru liberalismoa.

Adimena, gizaki ezagutariak maita bideak argitzeko/hautatzeko daukan tresna-ahalmen benetan goresgarria da; baina bi-tarteko, tresna.

Giza ezagumen eta fedearen arteko besarkada

Zientziak, filosofiak, gogoetek; gaur onartzen dugun bigbang ez tandaren (zigoto kosmikoaren) azalpenak, bizitzaren pizteak, soinezko maitagogo den gizakiaren sorrerak, misterio sakon txundigarrien aurreko geure giza behatokietara garamatzzate. Espiritu Santuaren opari den fedea, aldiz, behaketa horien goiko bestekaldetik hots egiten digu, erakusle. Eta muga

horietan garatzen zaigu fedearen eta misterioen arteko besarkada pozgarria. Jaungoikoak eskaintzen digun fedea zoragarri argitzen digu guk misterioen giza behatokitatik begira bestekaldeko zerbait hori –ikusitako nahian baina ezinean– antzematen duguna. Jaungoiko Maitasunak eginak –gu eta kosmosa– garelaren onartuz, den dena ulertu dezakegula argiz eta pozez gainezka.

‘Argien’ aroan dago oraindik gure gizartea: arrazoia/adimena eta adimenez lortutako argiak datozkigu nagusi (jaun?) aspalditik gure garaira arte, Ilustrazioko ‘Aufklärung’, ‘Les lumières’, ‘Enlightenment’ jainkotxoaren gurtza lehertu zenetik. Orain beste goragoko aro berria erretzen ari zaigu: maitamenaren aroa. ***Maitaroa.***

Etika: Maitabidean ala okerbidean (bekatuan) jarduteko hautamena

Zeru lurren egileak, Jaungoikoak, maitasunez sorrarazi zuen gizakia. Jaungoikoak gu gizakiok gaizkiaren ahalduen –bekatarri– egin gaituen, bere Seme gizakia gurutzean josiz erailtzeko beste gaizkiaren ahalduen. Eta, batez ere, Jaungoikoak gu gizakiok oso oso maitagarri egin gintuen, bere Seme bakarra gizaki egin eta maitasun hutsez bizia gure alde emateko beste.

Gu ez gara maitasun, maitari baizik. Maitabidetik kanpo ariltzeko dugun men ilun hori beste ahalmen baten barruan daukagu gizakiok, Jaungoikoak maitasunez emanikoan: hautatze (maitamenaren alderdia den) ahalmenean, hautamenean.

Ez genduzkute norabiderik, ez legoke maitajardunik, ezina litzake gizakia gizaki garatzerik, ez eta inolako sari/opariren itxaropenik, baldin ez bageneuka okerreko bidean ere (maitatzearen aurkakoa) ibiltzeko ahalmena, baina maitasuneko bidean aritzeko sena eta hautamena. Gizakiaren bizitzaren garaipena, maitasunean jardun eta gaizkia ongiaren saihetsean, azpian utziz ibiltzea da. Bekatu ahalmena maitamenaren osagaia da, Jaungoikoak benetan maita ahal dezagun maitasunez emana.

Gizakiak bere eta kosmos osoko izaerak eta joerak eskuratu eta maitasun bidera erakartzea du zeregin. Bekatua hau da: gure ekintzak maitajardunera zuzentzeko gugan daukagun/garen hautamena jaun eta nagusi ari ordez, berezko gure eta kosmosaren grinak/joerak gure eginkizunetan nagusitzen uztea.

Jakina zaigu askotan izakien eta geure berezko joerak gainditzen zaizkigula gure maitakizunen gainetik. Hori maitajarduneari gertatzen zaigu, maitajardunaren benetakotasunaren azalpena eta gorapena da. Hobena maita ahalmenaren erakusle-otsagaia da.

Mina, atsekabea, heriotza bera, gure –maitari izanik– ez maitatzearen emaitzak dira. Mina, atsekabea, gizartean gizakiok ezarri ditugun okerbidearen fruituak dira, zorioneko maita ahalmenaren fruitu okerrak dira. Guk geuk –beti Jaungoikoaren laguntzaz– maitatuz gainditu ahal ditugun gure ekintza okerren fruituak. Baina fruitu okerretan okerrera, heriotza bera ere ez da azken hitza, gaindituta dago, berpiztea daukagu betirako.

Etika gizakia da. Jaungoikoak emaniko maita norabidezko jarduneari ibiltzean datza gizakiaren benetako kristau etika, oinarrizko kristau etika. Gizaki bekataria Jaungoikoak sortu duen maitasun hutsezko ekintza da. Espiritu Santuak maitarazten gaitu, gure maitajarduna osatuz, goratuz, jaungoikotuz.

Guk, kristauok, ez diegu, inola, giza hausnarketeki uko egingen. Alderantziz, gure fedea argi lagungarri ezin hobea da gizakiaren etikari, zientzia eta jakituria guztiei buruz giza hausnarketak giza ahalmen guztiez osatzeko.

Jesus gizaki maitari betea

Gizakiaren maitasun garaipen betea zeharo gauzatu zen Jesusen bizitzan, Mariaren eta Aita Jaungoikoaren Seme gizakiagan. Den dena, izaki eta izadi guztia erakarri zuen, Espiri-

tu Santuaren eraginez, maitasun bidera. Eta Aita Jaungoikoari eskainiz, kreazioaren helburua zeharo bete zuen, ezertan hutsik txikiena egin gabe. Maitatzearen garapen bete bete garatu zuen Jesusek, hobena zeharo ezabatuz, betiko biziaz heriotza bera ere suntsituz. Gizakia bekatu ahaldun ez balitz, alperrik Jesusen gizon egitea eta erredentzioa. Jesusengan betetzen eta goratzen da kosmosa eta kosmoseko guztia, batez ere gizakia. Bere gorputz egin gaitu. Gugan eta gu artean dagoen Jesusengan bereganatu dugu gizakiok piztuera eta betiko bizitza bete.

Dena bilduz: Maitasun den Jaungoikoak maitagogo (maitari, ezagutari, hautari) egin gaitu Espiritu Santuaren arnasaz, gizakia –eta gizakien gogokoak– maita dezagun. Gizakia maitatzean gizakiaren Seme den Jesus maita dezagun. Jesus maitatzean Jesusengan Maitasuna den Jaungoikoa maita dezagun.

Eta den dena bilduz, Maitasunak Maitasunaren maitari egin gaitu. Eta hori izango gara piztu eta gero, bete betean, betieren beti, Espiritu Santuaren eraginez Jesusekin bat eginda: Maitasunaren maitasun- seme zoriontsu.

Jenaro Garate

HISTORIAREN FILOSOFIA 3

Zenbat eta hobeto definituak egon objektu materialak eta orduan modu argiagoan hitz egiten da, eta beraz, hobea da elkar ulertzea. Nik ez dakit zer kontzeptu dugun historiaz *zivilizazio* oriental grekolatino okzidental honetan osteango historia estudiatzen dugunean ez historiaren barruan eta bai “antropologian”. Harrokeria jasangaitza da (hainbatetan arrazakeria ere bihurtu izan dena), eta behin bazuen esan Maria Nazarethekoak ezen Jainkoak apalak gora jasotzen dituela eta harroak konfunditzen (Moisesen historia zeukan harek buruan). Niretzat argi dago ezen “antropologian” estudiatzen diren beste kultura horiek, beste herri horiek, indigenak deituak, herri eta nazio historikoak direla. Izan ere, historiak den dena bere barne hartzen baitu, eta kontraera da, beste barik, kontraera ordenatua. Hutsune ugari badago ere gure ezagutzan.

Eta saiatuko bagina kultura partikular bazter utzitako horien ertzetatik *zivilizazio* oriental grekolatino okzidentala estudiatzen?. Zeren *universalaz* ondoen teorizatu den gunea *zivilizazio* oriental grekolatino okzidentala izan bada ere, argi dago ezen oker teorizatu dela ondorioztatu delarik, beste guztia, historikoa ere dena, ahazturik, eurenean gertatzen dela *universalitasuna*. Baina *universalak*, ezagutza *universalak*, partikularitateak oro (horregatik da *universal*, *privaziorik* ez duelako bere ezagutzan) ezagutzen ditu, eta konprenitzen. Nola izango da

zivilizazio oriental grekolatino okzidentalean teorizatutako *universalitasuna* egiazki *universal* ignoratzen baditu bere azpian harrapatzen dituen kulturak?. Ezinbestez partikularitatea izan behar da, beste kultura diferente horiek bezala, asko zabaldu bada ere (inperialista baita), hainbeste ezen jada esan daitekeen planeta osoa bere planteamenduekin (indarrez ezarriak) komentzitu duela, izanik planteamendu hori ideologia dominantea gaur egun planeta honetan, mundu ezagunean.

Eta badago modu bat *zivilizazio* oriental grekolatino okzidentala estudiatzeko, eta modu hori definitua izan daiteke metodo hipotetiko *deduktivo* bezala. Kuantifikatzaileen logikan oinarria *induktivoa* da, eta historia bera kontatzeko manera ere formalizatua izan daiteke gertaera esistentzialak “eta” konjuntzioarekin elkarren ondoan jarritz, eta beraz hori badaiteke honela formalizatua geratu: kuantifikatzaile partikularraz. *Derivazioak* irekitzen ahal dira, eta horiek dira halako *universal* bihurtzeak, baina hipotesiak dira *universal* bihurtze horiek nondik dedukzioak egiten ahal diren, eta hori da metodo hipotetiko *deduktivoa* predikatuen logikan formalizatua. Baina egiazki *universal* bihurtzeko *derivazio* horiek itxi behar dira, hipotesis bat ez baita beste barik *universal* den kondizionala, beti gertatzen dena, edozein kasutan, eta nola halako *derivazio* bat ixtearekin ez den ikusten modurik ez dakit nik zer *universal* bihurtzeko, edozein kasurik ez baitago historia material kontatuan, zeren kontatera sinpleak azken finean igarotze baten berri ematen baitigu, kasu ezberdinen berri, orduan ondorioztuta behar dugu ezen metodo hipotetiko *deduktivoak* ez duela ezagutza *universal*a ematen historiaren. Eta ezinbestekoa da kontuan hartzea *derivazio* bat ireki dugula itxi ez duguna metodo hipotetiko *deduktivoa* erabiltzen dugunean.

Eta nik hori egiten dut hipotesis batean historia esplikatua nahi dudanean. Eta nire hipotesia da ezen *privazioak* gerra eragiten duela. Eta *privazio* mota batean zentratuko naiz, *privazio* ekonomikoa deritzana. Eta *zivilizazio* oriental grekolati-

no okzidentala jartzen dut nire begi *deduktivoen* aurrean. Eta ikasten dut basamortuetako *zivilizazioa* dela bere hazian, Orientean. Nola bihurte den basamortu geografiaren gune hori ez dakit zehazki. Baliteke izatea nekazaritzaren eraginez ustiaketa larregi bat gertatu izanagatik. Jakina da ezen nekazaritza oparotasun handia ekarri zuela, on handia beraz (zeren oparotasuna *privazioaren* kontrakoa baita), baina baliteke populazioak gehiegi emendatzea, eta ustiaketa neurrigabeak inguruak basamortutzea, eta populazioak ibai handien ertzetara mugitzea, *privazio* ekonomikoko krisialdi handiak jasanez. Eta hor *privazio* ekonomikoak eragiten du, gure hipotesiaren arabera, gerraren sortzea, eta ondorioz patriarkatuaren sortzea ere.

Gerra, jakina, ondasunen inguruan gertatuko zen, eta antzina bateko joera birbanatzailea bihurtuko zen joera metatzailea, eta tesoro handiak metatuko ziren despotismo oriental haietan.

Jabego pribatua deskubritu omen zen Babilonian, eta halako giro liskartsuaren baretzailea izango zen. Jabego pribatuaren aurretik, adibidez, erahiltzea erraza izango zen, eta lapurtzea eta holakoak. Baina jabego pribatuarekin hori denori piska bat legedi zorrotz baten barruan (erromatarrek gehien garatua) bakea ere ekarriko zuen, garaiak latzak baziren ere.

Eta gaur egunetara arte zabaltzen joan da eredu gerrazale eta patriarkal hura, *privazio* ekonomikoak inperioen zabaltzea eragin baitu, hainbeste ezen gerra oso modu ezberdinetan, eta sarriegi ere, *universalizat* hartua izan den. Eta esana dugu ezen ezinezkoa dela gerra *universal* bihurtzea logikoki, ondorio erlazio falaziazkoa dela, baina erabat bihurtua da “ezagutza” hori ideologia dominante. Eta herri eta nazio indigenetatik badaiteke horri guzti horri begiratu bat bota, begiratu zientifikoa, eta esplikagarri ere egin.

Gure hipotesia, nondik *derivazio* bat ireki dugun, termino logikoak erabiliz, gure hipotesia da *privazio* ekonomikoak eragiten duela gerra. *Zivilizazio* oriental grekolatino okzidenta-

lean gainera *privazio* ekonomikoa lotuta dator aurrerapen handiekin, lanaren kultura ere eragiten duelako urritasun egoerak. Eta nik paradójikoa ikusten dut gertatutakoa, baina esplikatzen ahal da kontsideratuz ustiaketa burugabeak eragin duela *privazio* egoeretara igarotzea behin eta berriz, eta baita inertzia handi batek (zeren nola kultura orientalean gertatua den errevelazioa hortik, seguru jakin gabe, ondorioztatu da kultura hori universal ere dela) eta hortik joera metatzaille etsia nagusitzea, gerrazaletasuna eta patriarkatua.

Gaur egun holako zerbait gertatzen ari delakoan nago ni, eta nire *perspektiva zivilizazio* oriental grekolatino okzidental hortatik kanpo dago, eta deduzitu egiten dut triskantzara goazkeela. Krisi egoeretara eta hola.

Nazio indigenetan, ostera, estudiatu dena kontuan harturik, oparotasun handien erdian garatuak izan direnez, joera birbanatzailea da nagusi historikoki, eta hortik ez izatea gerrazale eta patriarkal, behintzat hain modu nabarian, hain modu etsian ezen gerra bera *universal* bihurtua den euren teorikoen artean. Hori ez da aurkitu herri indigenetan, baina bai, jakina denez, *zivilizazio* oriental grekolatino okzidentaleko intelektualitatean. Filosofo asko joan da ondorio erlazio horren atzetik komentzituta, ahaztuz logikaren oinarririk sinpleenek ezinezko egiten dutela halako *universal* bihurtzerik. Baina ezjakintasunak eragindako harrokeriak begiak estali dizkie. Filosofo batzuk aipatuko ditut gerra universal bihurtu dutenak: Heraklito, Maquiavelo, Hobbes, Shopenhauer, Nietzsche eta monoteisten artean ere, nola errevelazioa gertatu den kultura orientalean badago halako joera bat kultura hori universal bihurtzeko. Ni izan naiteke, monoteisten artean, salbuespen bat. Eta diot ezen errevelazioaren mezua badela universalala, baina ez errevelazio hori gertatu den kultura orientala.

Hara hemen, hitz gutxitan, historiaren filosofia bat, nirea, behar den moduan adierazia, hau da, hipotesis baten gainean

eraikia. Eta horregatik formalizatzea posible da nire historiaren filosofia, predikatuen logikan zehazki hitz egiteko.

Baina ez da historiaren filosofia bakarra, zeren hipotesis ezberdinak erabiliz garatzen ahal baitira historiaren filosofia gehiago, beti ere universaltasun egiazko baten azpian, hau da, ez dute historiaren filosofia hauek denaren berri ematen, oso interesanteak badira ere.

Oso interesantea bada jakitea, adibidez, iraultza neolitikoak ez duela ezinbestez, universalki, gerra antolatua ekarri. Indusketak egin izan dira (orain ez naiz akordatzen non eta nork; uste dut Gimbautas zela arkeologo hori) eta aurkitu dira kultura nekazariak gerrara jo izan ez dutenak (hiri horiek ez zituzten harresirik). Zergatik hori?, galdetzen nion behin historialari bati hitzaldia ematen ari zena, eta hark ez zekien erantzuten bere filosofia marxistatik. Eta nik badut teoria bat garatu, nire historiaren filosofia, non ohartzen naizen, begien bistan dago, gerra antolatua basamortuez inguratutako Orientean hasi zela. Eta ez, adibidez, Amerika precolombinoan, non hiriak ohian oparoez, ezagutuz gero jakina, eraikiak zeuden.

Eta egin dira halako kulturekin admiratuak teoriak erraten zutenak indigenak onak zirela berez. Rousseauk eroan zuen teoria hori muturrera. Eta egia da, hain errez konkistatuak izan baziren izan zen kultura militarrik ez zutelako (errore bat). Baina ez zeukaten ezagutza universalik, adibidez, ez zekiten zergatik ziren hobeak etikoki, eta ez da ahaztu behar privazioa dela gaizkiaren kausa orokorra (horiek ere pekatariak, denok, kultura guztietakoak, beti baikalde universaltasunaren azpian, baina egia ere bada ezen bekatuak badaudela larriagoak eta arinagoak, eta larriagoa da egoera etikoa kultura orientalean, garbi dago hori). Beraz, idealizatu barik, nik ikasten dut haiei begira, eta haien kulturetatik begira, badagoela modurik Orientean sortu eta garatutako kultura gerrazale eta patriarkala (termino ekonomikoetan kultura akumulatiboa), badagoela modu-

rik gaitz horiek soluzionatzeko, oparotasun kondizioak gertatu beharko lirateke. Irtenbidea ezin daitekeen arren izan egun batetik besterakoa. Bistan dago.

Beraz, oparotasunean, joera birbanatzailea, eta urritasunean joera akumulatiboa, eta ondorioz elkarren arteko etsaitasuna. Eta oparotasunean garatutako kulturetatik badaiteke gure kultura okzidentala ikertu, eta deskubritu bere erroak kultura orientalean dituela, basamortuetan nonbait han. Eta konprenitu hobeto zer gertatu den historian. Eta admititu errevelazioa kultura orientalean gertatu bada ere, horrek ez dakarrela kultura orientala, izan diren kulturetan maltzurrena, malignoena ere, universal dela.

Roman Garmendia

KONTU KONTARI

IRATZEDERREN OMENALDIA

2008ko urriaren 13an, larogeita zortzi urte zituela, hil zen Iratzeder idazle eta olerkari donibandarra Belokeko beneditarren komentuan. Bi egun beranduago, hau da, urriaren 15ean, ehorzketa meza egin zioten Beloken, osoki frantsesez. Zazpi Euskal Herrietatik azken agurra ematera joan zirenek ezin izan zuten sinetsi. Euskaldunok XX. mendean ukan dugun olerkari mistiko onena izan zenaren azken mezan, ez zuten bere euskal nortasuna kontuan hartu, eta kolonizatzaileen mintzairaz agurtuz bidali zuten beste mundura. Agurra baino gehiago laidoa izan zela erran genezake, Iratzederri eta Euskal Herri osoari egindako laido gaiztoa, non eta Beloken, euskal kulturaren habia eta babesa izandako Ahurtiko komentu ospetsuan.

Handik hilabetera, hau da, azaroaren erdi aldeko egun batean, Xabier Soubelet lagunak dei egin zidan telefonoz. Donibane Lohizuneko *Begiraleak* elkartean topatutako zerbait erakutsi nahi zidan. Hurrengo egunean elkartera hurbildu nintzen, eta bertako lehendakari den Soubelet lagunarekin hitz egin nuen. Hara iritsi nintzenerako, Xabier bere bulegoko mahaian eserita zegoen, nire aiduru. Atean jo nuen eta barrura sartzeko eta libre zegoen aulkian esertzeko gonbita egin zidan. Mahai gainean, eskuz edota idazmakinez idatzitako kaier zahar ugari zituen.

Hogeita bost bat, oker ez banago. Agindutako tokian eseri bezain pronto, Xabier kaier horietaz mintzatzen hasi zitzaidan.

- Joseba, lehengoan bulego honetan garbiketa egiten ari nintzela, beti giltzatuta ukan dugun tiradera hau zabaldu nuen. Giltza betidanik galduta izan dugunez gero, bihurkin baten laguntzaz zabaldu behar izan nuen, eta zeuk ikusi zer topatu dudan barruan. –mahai gaineko kaier zaharrak niri erakutsiz– *Begiraleak* elkartean, XX. mendeko erdialdean, antzerki talde bat ukan genuen, Karrika Nagusiko (Ganbeta Karrika) *Gure Etxea* izeneko antzokian antzezlan ainitz jokatu zuena. Kaier hauek dira, gure taldeak jokatu zituen antzezlanak, eta kopiatzaileek gurea ekarri zituzten bezala daude, hau da, eskuz edo idazmakinez idatzirik.

Harriduratik ezin atereaz nintzela, kaiera haiek eskuetan hartu eta azertu nituen. Han baziren Piarres Lartzabalen antzezlan franko, Piarres Lafitterenak, Telesforo Monzonenak, Dominika Soubeletenak,... baina gehien-gehienak hil berriak ziren Iratzederrenak ziren.

- Iratzeder, Lartzabal, Lafitte, Monzon eta beste antzerkigile zenbait gure elkartean ibili ziren laguntzen, –jarraitu zuen Soubeletek– eta beraien antzezlanak guri eskaintzen. Iratzeder gainera, donibandarra zen, eta bere lanetan maisuki agertu zituen garai hartako donibandarren kontuak eta arrangurak.

Nik kaier haiek aztertzen jarraitu nuen. Altxor ttipi bateko perlak iruditzen zitzaizkidan. Orduantxe, ustekabeko galdera egin zidan:

- Joseba, zer eginen dugu kaier hauekin?
- Ongi gorde. –erantzun nion zer gehiago erran ez nekiela.
- Orain arte ongi gordeta izan dira tiradera giltzatu honetan. Baina ezin al dugu gehiago egin? Argitaratu, esate batera-

ko. Gainera, Iratzederrek ongi merezi du bai gure esker ona eta bai Beloken eman ez zioten euskal agurra. Zer iruditzen? –Xabierrek, temati.

Eta horrela, besterik gabe, lanak irakurtzeari eta transkribatzeari ekin genion. Donostiako *Hiria* argitaletzeko buru den Luis Haranburu-Altunarekin hitz egin genuen, gure proiektua aurkeztu genion, eta emandako baietza jaso ondoren, kemen berrituaz, berrekin genion kaier haiek antolatze eta transkribatzeari. Antzezlanen egileen eta kopuruaren arabera bost liburu antolatu genituen: Iratzederrena, Lafitterena, Lartzabalena, Monzonena eta gainerako antzerkigileen kaierak bilduko lituzkeen azkena. Lehena plazaratzen Iratzederrenak behar zuen izan.

Xabier Soubeletek, batzuekin eta besteekin hitz egin ondoren, liburuaren aurkezpen eguna finkatu zuen: 2009ko maiatzaren 9a. Baina ez zen liburu aurkezpen hutsa izan behar, Iratzederren omenaldi ekitaldia baizik.

Eta maiatzaren bederatzia, larunbata, iritsi zen. Omenaldia *Begiraleak* elkarteak Donibane Lohizunen, Dukontenia eraikin ederrean duen egoitzan burutu zen. Arratsaldeko seietan hasi zen elkarteko *Bettiri Betelu* sala zabalean. Izkina batean, hormaren kontra, mahai luze bat ezarria zen. Bertan eseri ginen Soubelet elkarte burua, Ixabel Etxeberria idazle urruñarra eta ni neu. Mahaiaren eskuin aldean, arbel zuri batean itsatsita, Iratzederren argazki handia zegoen *Begiraleak* elkarteko ikurri-na historiko zaharkituaren ondoan. Horren aitzinean zegoen Iñaki Maritxalar musikaria bere gitarrarekin. Eskuin alderago, leihoaren ondoan, Ramiro Azkuek *Begiraleak* elkartearantzat diseinaturiko erredola brodatua zen eta ezker aldean, beste leihoaren ondoan, Lapurdikoa. Aretoaren beste aldean, sarrerako ate inguruan, mahaiari begira ezarririk, kadira ugari ziren eta bertan eserita hogeita hamar bat lagun. Beraien artean aurpegi ezagun ainitz: Jan Battitt Dirazar, Xarritton, Mikel Epaltza, Mixel Mendiburu, Mikel Lartzabal, Luis Haranburu-Altuna...

Xabier Soubeletek biziki sarrera eder eta sentikorra egin zuen, Iratzederren bizitza eta literatur lanak ongi jorratuz. Gero, tiradera giltzatuari topatutako Iratzederren kaierak biltzen dituen liburuaren aurkezpena egin zuen. Nire txanda iritsi zelararik, kaier horiekin gauzatu beharreko bilduma aurkeztu nuen, eta ondoren Iratzederri bihotzez egindako olerkia ozenki irakurri nuen. Hona hemen:

Iratzederri

Iratzeder, Iratzeder,
 Jainko deiaren eramaile,
 euskal aberriaren sustatzaile,
 euskararen ekintzaile.
 Iratze gorrietan sorturiko izarra,
 itsas gesaletan blaitutako donibandarra,
 zu izan zira sua eta garra,
 Lapurdiko gidari suharra.

Gizon ona, euskaldun sutsua,
 euskaltzale handia, abertzale gartsua.
 Hori izan zira gure artean,
 horrela zaitugu orotzaipenean.
 Gurutze sainduari emana,
 euskara zaharrari buru-belarri
 zerbitzari gartsu eta fidel izana.

Joan zira gure artetik,
 jadanik ez dugu zure
 mintza goxoa entzuten.
 Zu gabe Belok ixilik dago
 Euskal Herriarentzat,
 arrotzurik, mutu,
 ez dizute maite zenuen
 mintzairaz agurtu,

ez diote herri zahar honi
errespeturik agertu.
Haatik ez dute
zureganako dugun
amodioa lehortu.

Iratzeder, Iratzeder,
izan zaitez beti gurekin,
maite zenuen
Donibane Lohizuneko uhainetan
Larrun menpeko belar-soro berdeetan,
euskaldunon kantu eta dantzetan,
antzezlan, bertso eta olerkietan.
Zauden tokitik,
Euskal Herri gaineko
izarrez beteriko zeru horretatik,
izan zaitez
euskal arimaren gordari,
herri zahar hau askatasunerantz
daraman bidearen beilari,
Lapurdiko euskara eta
euskaldun guzien betiko zaindari.

Ondoren, eta Iñaki Maritxalarren gitarrak ederki giroturik, Ixabelek eta biok Iratzederren olerki zenbait txandaka errezitateari ekin genion. Entzuleek arreta handiz jarraitu zituzten olerki eder horien nondik norakoak. Horra hor, irakurle horietako lau olerki, zeuk ere Iratzederren luma finaz eta sentimendu sakonaz goza dezazun:

Orro ikaragarria

1936

Euskal-bihotzak irakitan...

Zure bozaren azkartzera,
 Itsasoa, berma!
Amatto baten samurra
 Zait gaur orroama
Bihotza urratzen dautan
Harrabots bat egun hautan
Haizeak han harat baiterama.

Gaur tiroka ari dire
 Herrian elgarri,
Salbai gaixtoenen pare
 Odolez egarri.
Jaunak ez dezake onar,
Minez leherra baitakar,
Anai arteko gudu gaitz hori.

Anai odola herrari
 Eskainiz nasairik,
Euskadi gure amari
 Bularrak beterik,
Haurñoak hurrupatzean
Hilen dire gerruntzean.
Zer aterako da? zer? ... hortarik?

Han orai zenbat gorputz hil!
 Zenbat gauz lazgarri!
Nolaz ahantz, nolaz ohil
 Hainbertze tzarkeri?
Zerk batetara detzazke?
Jauna emozute bake...
Oi, kanoiaren burrunba hori!

Arbasoen deia
Oihana intzirika
Entzun dut mendian...
Auhena airatu da erreka ez erreka,
Ikaraturik joan da ihesi pottoka,
Neronek egin nuen harperat lasterka.
Oihana intzirika
Entzun dut mendian...

Urratu daut bihotza
Oihu samin horrek.
Haitzen erroek edan odolaren botza
Jin zaut harpe hartarat. Oi zer gau beltz latza!
Aitek ikasi dauret beren zorigaitza.
Urratu daut bihotza
Oihu samin horrak...

Aitek zeru lurreri
Zioten nigarrez...
«Zertako ixuri dugu bada, odola ixuri?
Euskaldunak zatitan direlakotz jarri,
Herria ez zaiote orai maitagarri.»
Aitek zeru lurreri
Zioten nigarrez...

Otoi, urrun zakizkit
Intzire sarkorra!
Aiten arimak, nundik jinik ez dakit,
Zirimola batean hor iragan zaizkit...
Ilunbetan bihotza urtzerat doakit.
Otoi, urrun zakizkit
Intzire sarkorra!

Etsitzen nuelarik
Harpean nigarrez,

Bet-betan agertu zait behere hartarik
Argi xuri zirrinta, urrez gorriturik...
Laster haizatu baitu gaua haitzetarik,
Etsitzen nuelarik
Harpean nigarrez.

Gure Euskal-Herria
Ez zaiku, ez, hilen.
Argiak jabaldirik oihan beltz guzia,
Xutik oihu egin dut, atzarriz mendia:
Euskadik izanen du bere iduzkia!
Gure Euskal-Herria
Ez zaiku, ez, hilen!
Uztaritzen, 38-3

Gernika

GERNIKA!
Zure kantu sarkorra
Entzun dut gau huntan:
Aditu izan nuen
Jadanik askotan:
Bozkarioz bihotza
Gainditzen zitzaitan.
Gaur egin dut gogotik
Nigar ilunbetan...
GERNIKA!

GERNIKA!
Ikusten zaitut hilen
herria iduri;
Etxe aurtikitz baizik
ez zare igeri...

Udaberria irriz
dago munduari:
Harri beltzetan lore
guti zait ageri.
GERNIKA!

GERNIKA!
Orai datza ohiko
Kartago bezala,
Paret beltz handi batzu
baizik ez dauzkala.
Jazko Euskaldun-iri
haren gorputz hila
Nigarrik egin gabe
nola ikus, nola?
GERNIKA!

GERNIKA!
Xoratzen iluntzen daut
hitz horrek bihotza.
Mendek jakinen dute
haren zorigaitza...
Numanze ta Kartagoz
ez gaitezke mintza,
Goraki erran gabe
Euskadin, han, datza:
GERNIKA!
38-5-9

Xalbador hil

Urepeleko eskolan hil zaiku hil Xalbador:
 Hain pertsulari sarkorrik ez zen nehun ez nehor.
 Harek ederki zakien, erortzean hil-gogor,
 Azken hatseko pertsua emaiteko nun eror.

Ez dugu azken hitz hori adituko sekulan,
 Nahiz bizitze guzian haren ontzen zahilan.
 Argi ta garbi derrauku, bere azken hil-koplan,
Euskara behar dugula sar-arazi eskolan.

Mattinek erran bezala xuti zaite, Xalbador,
 Euskal-pertsuak Jaunari zeruetan zuk igor:
 Zu bezalako gizonak gutartean ditene sor,
 Ez diezogun gaur eman erdarari guk amor.

Goiko indarraz deneri egin-araz funski lan,
 Euskaldungoa nausituz, irakituz dabilan.
 Xede hau sar-araz euskal-bihotzen zolan:
Euskara behar dugula sar-arazi eskolan.

* * *

Tunkutun kutun takata
 mendirat igan-eta,
 Tunkutun kutun takata
 jo ta jo xalaparta.
 Zer minak lurra du joa:
 egun ai! egun baita
 «Euskal-Herrien mintzoa»
 zenaren ehorzketa.

Tunkutun kutun takata
 hain min den minik ezta.

Tunkutun kutun takata
 bihotzen min-zarrazta!
Etxeko jaunak nigarrez,
 «Aitare» egin-eta,
Xuti gaur eta boz batez
 oihu hau denek bota:

«Egin gaitzazu denak bat,
 Jainkoa gure Aita:
Maite gaituzun bezenbat
 dezagun elgar maita.
Hil zaikunaren euskal-suz
 barnetik denak susta,
Euskal-lurretik altxatuz
 behar den euskal-uzta.»

* * *

Tunkutun kutun takata
 jo ta jo xalaparta.
Tunkutun kutun takata
 euskal-suz denak susta.
Ez gaitzan erdal-mintzairaz
 erdarak gu ezeza,
Eskolan, haurrak, euskaraz
 mintza gaur eta kanta.

76-11-21

Errezitaldia amaitzean, *Begiraleak* elkarteko lau dantzari gaztek *Agurra* dantzatu zuten Iratzederren argazkiaren aitzi-
nean. Huraxe izan zen nire uste, omenaldiaren momenturik
goxoen. Gero geroakoak. Xabier Soubeletek mikrofonoa eskai-

ni zien bere lekukotasunak kontatu nahi zituen orori. Eta hor ibili ziren, luze kontu-kontari, Xarritton euskaltzaina eta Mikel Epaltza Zokoako apeza dena. Azken hitzak Iratzederren arreba baten ahotik entzun genituen. Nebaren euskalzaletasuna eta erlijiotasuna aipatu zituen, aberria eta erlijioa izan baitziren Iratzederrek bizitzan ukan zituen bi amodio handiak. Aperitifa batez amaitu zen dena.

Buka dezadan kronika hau Xabier Soubeletek esandakoa lerro hauetara ekarriz:

“Jakín, badakigu Iratzederrek omenaldi handiagoak merezi dituela. Euskaltzaindiak eta Donibane Lohizuneko herriko etxeak zerbait antolatu beharko lukete. Anartean, omenalditxo xume eta apal honekin konformatu beharko dugu. Iratzederrek ez zituen handikeriak maite. Apaltasuna zen bere bertuteetako bat. Horregatik badakigu omenalditxo hau bere gustukoa izan dela, bera bezala, Donibane Lohizuneko herri xehetik sortua izan baita.”

*Joseba Aurkenerena Barandiaran
(Urruñá)*

OLERKIAK

A. Santi Onaindiaren olerki batzuk (bere jaiotzaren ehungarren urteurrenean) (1909/2009)

Sarreratxoa

Aita Santiren (1909-1996) jaiotzaren mendeurrena dela eta “Olerkiak” atal honetan ohiko olerki sortaren ordez Karmel aldizkariaren zuzendaritzari ondo iruditu zaio Aita Santiren olerki batzuk argitaratzea. Aukeratu batzuk baino ez dira: beraren lehenengoa (1929), gerra ingurukoak eta ostekoak.

Euskal olerki arlori Aita Santik ekarpen eder bi egin zituen: a) 1954an argitaratu zuen hain arrakastatsua izango zen bilduma liburua: *Milla euskal-olerki eder. Aldiz-urren aukeratuta*. b) 1959an *Olerti* aldizkaria sortu zuen.

Hemen, laburduraz aipatzen diren liburu biak, hauek dira: *Goiznabar. Olerki bilduma, 1929-1950*, Bilbao, 1971, 243 or.; *Las cien mejores poesías de amor de La Lengua Vasca*, Bilbao, 1975, 215 or.

Santiren olerki lanaren goresgarri jartzen ditugu hemen beraren olerki batzuk

J.U.

Mendiruntz

Pyrenaica 4 (1929) 167; Goiznabar 13; Karmel-Sorta 2, 3

(Neure adiskide Karmel-mendi'ri, au da:

Aita Rikardo Espinosa Etxebarria'ri).

Argidiriak mendi tartetik dirdira dagi;
atsegín dira zelaiaik;
eguzkiaren urregorritzko izpi me-meak
argitu dauz goi-aldiak.

Mendiko gentza, basoko poza eta zoruna
beti izan yataz gogoko;
baita barruan gogo bizia sortu be egin yat
arin bertara igoteko.

Ardi zuriak egiñiriko bide-zidorrez
tontor gainerruntz ni noia,
bere burua gora ta gora ortze urdiñaz
bat egitera lez doia.

Betik goraino gal-zori askoz josita dira
bere lepazur zorrotzak,
baina bein ara igon ezkeru poz-atsedenez
asetzen ditu biotzak.

Aldapan gora arrisku orok beraturikan
igoten daunak mendia,
gero an goian, tontor gainean aurkituko dau
maitasunezko kabia.

Loreil!

K-Argia (1933) 134; *Goiznabar* 26-27; *Karmel-Sorta* 2, 8-9

*Loreil, maite aro,
min-soroski samur;
biotz ondoan kosk
dagikan il, agur!*

*Igan oro eder,
naigabe itzalik ez:
zugazpe guztiak
osasun gerizez.*

*Oro bizi barri,
Bedats gazte, lerdën;
an, mailluki margo,
urdin-jantzi, emen.*

*Polito, bidazti,
landan zear abil;
ez, arren, oinpean
ainbat bizi-leka il.*

*Aizeñok orritzan,
iraulka egoak,
maite miñez dagiz
zinkurin gozoak.*

*Basoan irea,
sagararak igaliz,
gari saillik ainbat
mototsak agiriz.*

*Goia dana urrezko
txoriak txintaka;*

lizarpeko iturri,
ozen, txirristoska.

Irrikoí zelaiaik,
egiak orlegi...
Ernera barrien
oe da mintegi.

Lili eztengeak
leiz alkar mosuka,
uribilli antzo
maiteak abeska.

Usain-kutxan darie
izarren malko, intza;
ta oski zuriz, gain,
dabilkie gentza.

Larra-mao leunak
goi-bide ertzetan,
aurtxoak iduri,
maitekor izketan.

Iduriz, ez dabe
amets urril ori...
Baiña, at nigandik be
gogai biur ori.

Loreil, maite aro
min-soroski samur;
biotz ondoan kosk
dagikan il, agur!

Ontziska ta ekaitza

Yakintza (1934) 335-336; Goiznabar 40-41; Karmel-Sorta 2, 18-19

Oi ontziska gaixo, i bai errukarri!
Zer dagik itxaso suminduan larri?

Nora oa, intxaur-oskol urez arraunketan?
Ugarte illezkorraz ari amesetan?

Ala, adu itxastarrak urruti bilduma
ta bertara i be dei, zorakor urruma?

Garden-zale, iduriz, az, ene ontzi; baiña ur
dabilkik ekaitza, arerio makur.

Ekaitz-erraiak dir oiñaztarriz izar,
burrumba ostotsak odei-ganez sarkor.

Irakin diraki ur-zelai gordiñak;
zurbil jarri dira lengo margo urdiñak.

1 barriz aurrera, ur-galdorrak magal,
uiñen laztan-zale, estalkiak zabal.

Azatz gazi zear ekaitzaren mende...!
Erruki damostak, itxasontzi txume.

Zabuka, zinkuriz, ondatu zorian,
izu-larri abil uiñen bizkarrian.

Gain dok ur-mendia, gaiztozko zirimol;
ik barriz intziri; baiña garailla, isol.

Or yatorik nasian itxaski zakarra,
pot-egiñik, ene!, iku dok ondarra.

An... *laster gainik gain, barriz igerian,
apar zuri barna itxas osinian.*

*Uin-sabelak yoek suleza indarra;
ik baiña gaintzeko burnizko bularra.*

Oí, *ontzíska gaixo! Jo lenbailen kaira;
urageak azkar, egik ondartzara.*

*Eunak aize mende, kai bidean ekin;
ekaitza igesteko alegiñak egin.*

*Ez yak, noski, eder ondartza barruti,
erason orregaz osoan berezi?*

*Ator, maite: aier au aspaldiz kiaiak;
itzat naro yozak ur oztin garbiak.*

Oi, eiztari!

Las cien... (1975) 164; *Goiznabar* 19; *Karmel-Sorta* 2, 30

Zugatzean,
goi-goi, Txindorra kantuz;
bean, adi,
eiztari bat iskilluz.

Aizez kea...
Txindorra da lurrera;
luma gorri,
intziriz doa iltera.

Zugatze-puntan,
ixil, ezta kanturik.
Txori leuna
zelaian dago il-otzik.

Eiztari txar:
or muna egalean
nir'maitea
kanta-ots samurrean.

Ez, otoí, ez
bera geziz eratsi;
lantzana dot,
neure erraiaren antsí.

Argi-miña,
maite printzaz jantzía.
Zeru-ago
dauan izate erdía.

Iskilluaz
ez su-egin, eiztari!

Bide ertzean
dot maitea kanta

Begian malkoa

Goiznabar 21-22; Karmel-Sorta 2, 31

Begian malkoa
 yabiltzu bero
 goi-amesez,
 untzorri gaiñeko
 dardar artean
 txoria lez.

Ez otz ta ez legun,
 oianeko itzala
 gaiñez dozu.
 ta irabio osteko
 arnasa dala
 diraustazu.

Muiñoan ertzez ertz
 oin-arin ta zal
 kaiña doa;
 maitezko zerbaitek
 bizkar gaiñean
 bai daroa.

Oraintsu, kantari,
 ona yat eldu
 goiz aizea,
 ta urruti daukien
 jaiaren barri
 damost mea.

Gandüaren lepo
 alai ta eder
 dantza zara,
 ta uler eziña yat

*zure poz bete,
par-algara.*

*Neguairen otza
itsumustuan
ager yaku.
Bergia, berriro,
pozik eztala,
malkoz dozu.*

*Gazte pauts-aundia,
oiñotsa dantzut
aldatz beera...
Jakin ez geroa;
zoria dogu
txit gupera.*

Gudari!

Euzkadí 24 (1936, 7481.zk.) 8; Karmel-Sorta 2, 45

«Itxartu zaiz euzkotarrak, Aupa! , euzkendün gustijak».

Arana-Goiri

*Guda-deadarra. Ainbat izkilu!
Zer jazo ete da euzko-lurrean?
Erraldoi izugarria igi bai-litzan,
Euzkadí osoa zutik dakusgu.*

*Aztien eguna garillekoa.
Nok sortua ete ain gaítz aundía?
Zori txarrak ziñez; or bere erdia:
oro negar-zitu ta gorrotoa.*

*Sumintsu jagi da etsai erkiña
zanetan darogun odol gorrian.
Geure aiton zarren baratz maitean
eurrez sartu nairik zital zikiña.*

*Baña gure erria ernai eguan;
oar dau etsayen gorroto zantzu,
jagi da bein baten biotza sutsu
izkillu artuta bizkor eskuan.*

*Langille ta lugin, zar eta gazte,
Euzkadí osoa alkar arturik,
areyo aurrian daukazu zutik.
Oí, edonok bere burua maite!*

*Arrotza sartzean euzkel-lurrera
turuta adi izan da, zemaí-abotsa,
aterrik eztauan izkillu-otsa;
euzkoak beingoan guda-lerrora.*

*Odola dario Aberriari,
guda-irrintzia sarkor aizean,
suaga dunbotsa, aldamenean;
baña aurrera beti, euzko-gudari!*

*Leñargia zara, seme garbala,
jelpian zoruntsu bizi zintzana;
otsein egin nairik bira-biraka
dabilkizu orain etsai zitala.*

*Zirt-zart ekin gartsu, euzko-gudari!
Jo gogoz Euzkadí azkatu arte:
katez lotuta bizi baño il obe.
Garaikuntza ur dago, samín-azkarri.*

Ene ereskina

Goiznabar 87-88; Karmel-Sorta 2, 50

*Dana odol arrats-beeran,
bai bee-alde, bai mendi;
gero, illaren eskua lez,
dana jarri da geldí.*

*Uneak íku ondoren,
zernai ixil-mende datza;
arkaitz baizen zut-jagia
Oiz azpíko zugatza.*

*Bat-batez da itxasperatu
adar-gori euzkia,
eta txoriak atertu
arrats-ekiñaldía.*

*Goi ta bee, oro estaliz,
íkara díra itzalak,
ta ez dakuse arean
nire begí minduak.*

*Aíze mea, ezarian,
mao zurí artean
ames gozotan ete da
ílluna luzatzean?*

*Mendi, busetxe ta landa,
guztiak dauz loak ar:
oindiñokarren, ai!, itzarrík
ene ereskiña bakar.*

*Ixil mingotsaren pean
oiu batek ots dagí:*

ene ereskin gaztearen
min-asper da, ozengi.

Nire biotz gaixoa, bai,
antsiz dozu aspaldi,
Zoriaren doakabe
Jaunak alda ba'ledi!

Igar arpegia, ta ubel,
barrun zotin-ari;
miñetan ore-ogia
gaurkoz baitot janari.

Baiña lor onen azitik
zitua da jasoko,
naigabetuen amesak
azkabide izango.

Ene ereskin negar-bera,
ixil-ezkon aratza:
ots saminez, otoi, birlora
nire ames-baratza.

Noizbait liliak erneko
ezker-eskoi bidean,
igarra barriz biztuko
euskal-biotz muiñean.

Ondamena

Goiznabar 89-90; Karmel-Sorta 2, 51-52

Jazki oriskaz dagoz zugatz-adar goenak,
 eguzki jaunak ez ditu edo oraingoan kutun;
 anai diranen biotzak ikara baten jarriz,
 sentipen ez-onez dabil ibar-lañoa zurrun.

Lerkai ta iskilluen otsa dozu zoraldi biziz
 mendí-gerri inguruko luban oiñaren mende;
 eta ituna areagotu ta negartea astean,
 goi dana beillegiz yaku lauso-azi ta bete,

Beso biak luzaturik, Goikoa dot otoiztu,
 zigor onetatik gaizka dagian gure lurra;
 inoiz Arek maite ebala zirudin gure egoitza,
 gaur iskillots biurtua, dunbada ta negarra.

Balak ats-zurrunka datoz, etsaiak erauziak;
 su-burdi gaiñ dabilkigu gorroto, arnas oska;
 ondamendiaren ezten biur yaku dan-dana,
 negarra ta eriotza ugoldetuz ibaika.

Giz-odola zelaietan da bolbol ixuria:
 jausiak dira millaka gazte. Au laido, miña!
 Zaurituak be millaka, samíñez dagozanak!
 Suarra don, guda!, ire izan muñeko gríña.

Errauts kolorez bazterrak, orbel oriz beteak;
 garraxiz dabilta goian -zeren billa?- erroiak;
 billoizik ta luze-luze gure pago-areitzak,
 eurrez dabez eginbarri azpian giz-obiak.

A! , ildakoen itzalak ete baltz, izugarri?
 Osto artez txiolari aizea me, arona;

*zurmur-ots larrian zerbait diñoala dirudi...
Xistu ariz, illen deia ete guri emona?*

*Umezurtzak, alargunak dakustaz bide zear...
Kañoi izukorren suak ez dautse sartu dardarrik,
suagaz oituak dira, lerkai-jasez oituak,
adoretsu nunbait bizi-lurra jagon bearrik.*

*Jazki oriztaz dagoz zugatz-adar goenak,
eguzki jaunak ez ditu edo oraingoan kutun;
anai diranen biotzak ikara baten jarriz,
sentipen ez-onez dabil ibar-laiñoa zurrun.*

Saseta if da!

Goiznabar 90-91; Karmel-Sorta 2, 52

Oi, jausi zara, jausi, Saseta kutuna!
Gaurtik illen arteko egiña zaitugu.
Aizea baizen arin da an-or edatu
zure eriotz miñaren il-izpar ertuna.

Leiatsu maite zendun euzko aberria,
ta Aberritik urrin, oi! , jausi zara.
Betikoz jausi zara, leñargi antzera;
biotzak ez nai ziñets, baiña da egia.

Izkillots atergea, lurrak dart oinpean,
sua, kea, garra, gudean gartsuki;
giza gurenak letxe ereiñoz bekoki,
jausi zara azkenez etsaien aurrean.

Erbeste-lurraldetan emon izan dozu,
euskal lurra begira, azken arnasia;
baiña azkatasunaren lora apain-guria
ementxe jaioko da, eder, naro, txairu.

Biotzean min dogu, Saseta maitea,
biotzean min dogu, begian negarra;
samin-uluz daukagu laztan dozun lurra.
errai-dardaraz, izu, euzkotar mendia.

Uso zurí-otzana basoan egazka,
biotzak samin-eunaz dituzu estali.
Baiña zu ego zuriz, arranoa iduri,
argi-itzal-eziñera aldatua zara.

Atseden, bai, atseden betiko argitan,
barne-muiña eresiz, goi-argiz adiña.
Beukozu azken baga zeru-atsegiña.
Laster gaituzu gu be, or, goi-alde ortan.

Aberrri eder

Goiznabar 91-92; Karmel-Sorta 2, 53

*Maitasun-ontzi, zitori-baratz,
Aberrri eder, maitea:
mendi lilitsu ta ibar usaintsuz
buru-oin oso betea.*

*Gari-sailleko uñen otsera
lurrak maitari oiua,
urrindik dantzut polpolka doan
lastxo gardenan zantzua.*

*Zugatz-gerizan zarrak astitsu
aintzin-ipuñen kontari;
txori gaztek, dardar biotza,
abi-auzoan txintari.*

*Biotz kutunen sugar gorria
sariz ordaintzen dakizu,
ta eder zara. Aberrri maite,
egiaz eder zara zu.*

*Baiña oraíndik eder-onago
ludian zara agertzen,
gudari-senak aintza-ereñoz
baláin ba'dozuz loratzen.*

*Lurrak oinpean, itxas antzera,
aier-murrusa bizia;
sukaláde gozo ta eleiz-zutoin,
oi! , dana bera jausia.*

*Odól orbana dozu soñean,
begia lausoz laíñoa;*

adur txar antzo gain dabilkizu,
garrasiz, bela gaiztoa.

Len eder ziñan, Aberrri ona,
gaur obi illauna, triskantza;
len eguzkia, izpi-jaurtika,
gaur, barriz, ilik gorputza.

Nun ete dozu lengo ederra?
Nok itzal begi-argia?
Zure baratzen ez da nabari
len lez usaintsu lilia.

Ez, arren, zizta odol-begikaz
lengo garitza sotilla:
oro galkuntza, oiñaz-adia,
dana dakuszu pirtxilla.

Aiots ituna dakar aizeak:
«Erruki -diño- erruki! »
Ta gora doa, kea bai litzan,
samin-otoitza gartsuki.

Odol-ixurki euzko-lurrean,
nai-non erein da zotina;
ibaiaak gorri, igar goenak,
erik artu lur-gaiña.

Baiña ez auldu, euzkotar gogo,
odol lurrean jausia.
Oi! Zer izango? Zer deritxazu?
Azkatasunan azia.

Ur-egalean

Goiznabar 93; Karmel-Sorta 2, 54

Ibar-muiñotxoan zut gaztaiña makurra;
garitzea beerago, urrezko kulunkaz...
Lizar itzaltsu baten orpoa, balantzaz,
beerago zerbaít, urak darabil kizkurra.

Muiñotik jatsi naz, ta, ur-ertzean ezpana,
gudari bat daurkit. Lo ete? Ala illikan?
Bedar-ogean datza dirdai eguzkitan,
esku biak bular gain, bits-jariz ezpana.

Illik dago gaixoa. Iru zauri laru
daukaz saiets aldera, odolez beteak.
Orain ez dau indartzen bizi-arnaseak
ain argitsua eban zintzozko begitu.

Zurmur gozoz zoazan lizar-orpoko ibai,
jagon eizu gazte au, osorik, eukana
Aberriaren alde opetsi dauana!
Uraren gardena! Jo zuk illeta-dirdai!

Atxur-zartaka dot lur-sabela edegi
ta gaztearen soiña bertan dot eratu,
lore zuriz ta lurrez dana dot apaindu.
Jausi ba'nendi, esku on bat nitzat bedi.

Euria ta uria

Goiznabar 95-97; Karmel-Sorta 2, 55-57

Atzo arratsaldez, lerkaiak zetuta,
ainbat jausi ziran gure uri maitean;
garrasika zarrak, ta umeak txilioz
erio-zain oar nitun illuntzean.

Gaur, eguna argituz
jori da euria,
eriotz-aldiko
amaitze larria.

Ixil ta iraun dator, nekatua legez,
erreriko uri estalpetu nairik;
egiz, orkatz-nagi curia beerantza,
erriaren lotsa pizkat babesturik.

Erreriko uria,
txoko lotsaritu,
euriak nai ausaz
eun bustiz beatu.

Dana ingurumari, il-urren bai'litzan;
ta iges doa bizkor uriko jentea
gaitzak artua lez, bide-zelai zear,
ixillik ta txonbo, anpuluz betea.

Illinti goriak
itzaltzen euriak,
uri errearen
ondar kiskaliak.

Espaloian zear begira gizon bat,
giza-antzik ez, ta negarra dau jaki;
eztarrian itoz abotsaren oiua,
su ta euriaren triska ur-ur ikuski,

«Madarikatua,
guda zital -diño-;
madarikatua,
i, gizaki gaizto».

Mezuak eskinka dator euri mea,
zidar tantoetan goi-zear atalduz;
ez dirausku ezer, muturik da jausten.
Ez leuke zerbait esango mintzatuz?
Uria dakusa
errea, mutiri,
gomutapenezko
azken min-intziri.

Kei, gar, erre-sunda -Dante'ren ikusgai!
uria dakusa, oi! , txarpil egiña.
Zerbait dau esan nai, baiña, loki estu!,
miña jareinazo dau arras eziña.
Mintza naiez dago
goitiko curia,
miñetan ikusiz
euskaldun uria.

Zabor, arri, zirpil, ondarrez kalea.
Aizetan eriotz dabil arramaka...
Ta, umca besoan, zelako iduria!,
garrasi bizitan, nora oa, neska?
Euskal uriaren
miñaz oarturik,
negar zotin-eunez
estaltzen dau goitik.

Ni be, euri ta uri, minkide zaituet.
Zuen kale ertzetan gaur ez dakust, ez,
ume-jolasik, ez saleros-joranik;
dana dager laru, garrasiz, oiñazez.
Eta biotzetik
aut madarikatu
erriak ondatzen
ditukan guda uzu.

Gau-oiuak

Goiznabar 102-103; Karmel-Sorta 2, 59-60

Itxi da, jadanik, itzal-eun arrea...
 Ezta otsik goian,
 ez lerkirik bean;
 illuntzeko joaz «burdin-gerrikoa»
 da ausi zuzenean,
 erdiko mintzean.

Gamitz eta Fika -zuen zori txarra-
 eun gudari datzaz
 oiú-min, íltzeaz;
 goiko mendixkatik dantzudaz, itunki,
 eztarri-ots gear,
 bizitz azken indar...

Illunaren baltza, garrasiz betea!
 Aizea yatorku
 ala gaiztoz kuin-kuin...
 Lurrari itsatsiak, eun gudari illagin.
 Etsai, í aut íguin,
 eriozen az duin.

Ezta otsik goian, ez lerkirik bean,
 baiña eun gudari
 oiuka lurrean;
 pinudi ondoko íparraren ulu
 giz-gorpu artean,
 dantzari katean.

Etsai odol-gale, ífernu biziak
 zirímol ízukoi
 íregan diraki...
 Aulik, zauritua naukak íllunean;

ez jausten baiña ni,
miña dot ikurdi.

Goietara deiez itzaliaz doaz,
atsaren gainean,
gudarien espak...
Eun gudari zangar, eun leoi ziranak
aitu dauz balbeak,
ezarriz erpeak.

Ain ete apurra zuen balioa?
Gau-garrasi batez
oro al da amaitzen?
Al arren, gazteak, zuen bular-sua
betikoz ezta aitzen,
aldiz illezkortzen.

Oinazepean

Goiznabar 107-111; Karmel-Sorta 2, 62-64

II

*Lanbrotsu gaua;
baltz gu gabiltzan bidea,
ke illunak mende
dauka kiratsez betea;
zaurien zetaz
daroagu loi mintzea,
min etsiaren
zornaz arima barnea.*

*Egun luzezko
iskillu tzarren burruka,
lerkaí ta berun
eten bageko eztanda...
Uri-goiena
eginik ia erreka,
anai odolez
gorri da lotu Artxanda.*

*Eta... ba-goaz,
erakaitz, illum altzotik,
sabel azpiko
erra gainditu ezinik
oraíndiño be
etsai dogula orpotik:
ba-goaz bidez,
noraeezan, tristerik.*

*Zagoz or, uri
eder, gaur ezain, kiratsez;
lenera zaitte
beargin ta zut, ainbestez;*

*ez gara aiztuko
zure lantegi ta kalez,
naiz-ta malkotan
ibil alderrai, samíñez.*

*Agur, geure erri
zarean lurrik onena!
Artu zuk, otoi,
guk egiñiko arrena:
ziñez lanari
lotua, zaitez len-lena,
zeure izatea
dozula beti maiteena.*

III

*Eta... ba-goaz
erbesterantza, urrats-sor,
gabaz ibilli,
egunez kuku, aldakor;
Gallarta, Muskés,
Zalla ta Bezi, zerga-zor,
zuek gozuez
babestu beti maitakor.*

*Arkaitz gaiñeko
Gordon, egiz nik zu maite,
eta luzaro
niretzat argi leun zaite;
baita erabat,
Guriezo; nor zuk beste
emon daustanik,
samin gorrian, poz bete?*

Atzerri-mugaz
 gabiltzalarik galduan,
 noiz edo baten
 jai ederrik ba-genduan;
 poz-oroi oneik
 zelan ez josí barruan?
 Egía, zíñez:
 danetik dogu munduan.

Eguerdi da,
 Ibai ondoan gagoz gu.
 Bat-batez, goi-goi,
 egazkin biren durundu,
 gu an ikusiz,
 lerkaz gaitue suntsitu,
 ta amaika lagun
 arnasik bage, ai!, gorpuz.

Gaintxoan ormaz
 jabetu díra untz-orriak,
 ementxe dauko
 zelai santua erriak;
 t'emen eortzi
 ditugu, malkoz begiak,
 aberri-míñez
 jausi yakuzan gaztiak.



Goiz eder batez
 millaka asko gara bil,
 bakezko ituna
 dogula zío ta burpíl.

*Iñoren lurrez
zertako ekin katramil?
Geurea galduz,
zertako ber txorokil?*

*Gainduak gara.
Aberrri alde -leoiki-
jokatu dogu,
ur eta lur, zakarki.
Gainduak gara,
alan eta be, ziurki,
Gaurtik, miliaren
otsa guretzat oreki.*

*Treto, Laredo,
Santoña, Berri, itxa-ertz,
zuokan bada
naikoa iskillu eta pertz...
Egin ituna?
Poza? Sinisten guk nekez:
izu larriak
belu gainetik oin-iges.*

*Urrats ixilléz...
Danok kezkatan barruak...
Jakín ez, noski,
zer dakarkigun geruak,
ta urduri goaz
ara ta ona itsuak.
Bizi-gogorik
ez damosku, ez, munduak.*

*Gaur Gibaxa'tik
itxasoraiño azkenge
guda-mutillok*

gabiltz nasian, norage;
 izurri dogun
 alkar jotea ta gose,
 itzez ezin nik
 azaldu onen gaitz-leze.

IV

Leotz itsian
 nago atzotik, katigu;
 sei milla ditut,
 zori bardiñez, inguru...
 bildurrak nauka,
 barre-dartaka, txit laru;
 biotzak, baiña,
 ez daust au gura siñistu.

Jakin dodanez,
 jaso gaitue atxillo;
 ta ezin esan
 noiz arte nazan morroillo;
 zatar eskinka
 edonun dakust naas-pillo,
 giltzape-zantzu
 bizkar datoat orrillo.

Goi-goiko leio
 medar artetik so dagit,
 baiña pozaren
 argi-printzik ez datorkit.
 Noiz artekoa
 ete zigor au? Ez dakit.
 Itxaroaren
 izarra yatan gorde txit.

*Nire apeta
suge gorria, or doa...
Leotz ertzean,
goibel Kantauri'k orroa;
goizez ba-dakus
giza-ilketa gaiztoa.
Erre malko dot,
itzal baltz, bira osoa...*

*Zeruko gure
Aita Jaungoiko aundia:
Kristo, gugaitik,
gurutzan untzez josia:
miñetan gagoz,
ta zaindu gure bizia;
zaindu, bai, zeuen
dozuen Euskal-Erria.*

Kanpai-otsa

E-Gogoa (1955,5-12.zk.) 81-82; Goiznabar 114-115; Karmel-Sorta 2, 66-67

Kanpai-ots ikaror, kanpai-ots garden,
arraio durunduz or goian ozen,
ez egik egundo dei ori eten.

Goiz-jaunak orduko illuna meetu,
ik zoli diarduk ots ta durundu:
otoitz-dei goiztarra an-or zabaldu.

Eguzkia garrez goira danean
ta armindu ondoren urpe sartzean,
asper barik ago ots bardinean.

Ene kanpai maite, jarraitu intziriz,
biotza bai daustak igurtzen eztiz
ta adia ixiotu eder-gai biziz.

Adur gaizto itzala yabiln ondorik,
izar ta eguzki aiendu barik:
baina ik ba-dok naiko niretzat pozik.

Noizka, jaiezkoa dok ire otsa:
urduri ta bizkor, didar bai litza,
uribasoetan azalduz poza.

Baita be, astiro, norbait il bada:
eresi eztia aur txiki dala,
zarrik il ba'dadi, samin-dunbada.

Nik, alan be, beti, nai pozkor nai itun,
i aut zintzoena espetxe-lagun:
gau baltzez lastargi, nekean gardun.

Olerkaria

Goiznabar 145-147; Karmel-Sorta 2, 76-77

*Ez daki norantza; doiñuz josia,
korkor doa gure olerkaria.
Goi-argia dau ixuritzen,
biotzak orruz dardaratzen.*

*Doala, urrats-me, marmux, betillun,
gau-zatiz jantzia joaku zurrun;
izarren ameslari dabil,
joan eta joan ez gurbil.*

*Zer al dok esan nai, koplari kutun,
kalea ipiñirik doiñutan astun?
Barruan zer dauskuk nai itsatsi,
kanta ta kanta ezin-etsi?*

*Ire ots zofia, zein ixilletan
ete yakuk biur negar-xaflatan?
Ikusi ta entzun dok dana
su, jainko-belatx, itz bakana.*

*Ire soiñu otsak, sorgin egazka,
birao biurtu dozak goi-deika,
giza-osto arte berdean
erdi urtuz, nora ezean.*

*Etsai-gerizak nai ditu deuseztu,
okerra zuzenaz, naspilla uxatu...
Giza-biotzen mosu otsa
dau bere kantagai mergatza.*

*Bakar-zale danez urondo barna
doa, joan eta joan arrotxa,*

anai-lokarriz batu nairik
berbizte ezkutua osorik.

Ukakor ez, baiña dogu baikorra,
bere nortasuna ezta txikarra:
gorputz, adi-eragin, sorpen,
sorkariz sorkarizko naimen.

Asmoaren jitez sortzaille zara,
geroari buruz zuk dozu gara;
«nor» ta «ni» naspilla egiñik
ba-dogu barrun larri-miñik.

Adore ta fede aundiz ornia,
atsegiñez eta miñez josia,
al dakiz ba olerkariak
gero latzaren itzuliak?

Ez ixur, koplari, negar-tantarik,
ez bait dogu orreïn bearrik.
Ik illeta muzin ezkerro,
guk be ziur begian malko.

Baiña, olerkari, jo ik doiñua;
ots, kanta, garrasi; esna mundua!
Oa leiatsu euskal lur gaindi,
ta egik didar, oi u zoli!

Nekatua ete? Ar opor doia
ta inarroz bideko autsaren loia;
uri ta mendí, gar ta kemen,
bota gero didarra ozen!

Itxas - ontzia

Goiznabar 165; Karmel-Sorta 2, 84-85

*Lanbroaren aide dan itzal auskorretik
lo artean dei egin daustazun turuta:
itxasoz andikako lelo bat, ozenik,
zuri millaka esker, oraintxe eldu yata.*

*Nitzat daukazu ausaz, koralez egiñik,
azken atsedeen gisan, burko txit pertxeta.
Jadanik jaso dozu meatz sakonetik
niri soiña ertsiko daustan nabar-meta.*

*Gaur arte, ez naz inoiz itxasoz ibilli,
ez ugarteetarako arraunez saiatu,
ezta ez dot endaitzik eskuz erabilli.*

*Ta, eriotz ontzia neure billa dator.
Aize oialak dakaz arro ta putzitu.
Dei dagist begi klixkaz, larri asko, izukor.*

Negar-eresia

Goiznabar 196-197; Karmel-Sorta 2, 100-101

Il aurreko garrasiz, lizar adar baten,
zagon papar-gorria. Ez eban pozgairik,
t'onela inarduan oiuka mingotsik:

«Gau t'egun neke biziz, min dot biotzean;
atxilotu lez zuri negarrez nago ni...,
Baiña zertako oiñaze auxe -doakabe! -,
entzun ezpa-dagizuz nire ai-otsak,
aídean ba-darraie erantzunik gabe?

Zigor zartaz narabil zoritxar beteak;
ez dauz nai inok eroan -ezta egoak be-
zure abi-zokora ene inkesa uiñak,
nire biotzak, urdaíl ardatz iduriko,
eiotzen diarduan maitezko lakaiñak.

Oiñazeak geldirik gabe nau ozkatzen,
ez daust ezek eskein nai biotz-poztasunik.
Gomutaz nabilkizu zugandik urrean,
baiña soiñez zaukadaz oso aldendurik.

Oi, zoritxar eskerga! Biotzean min dot!
Ta, zer egin? Aizetan uluka soil-soilki.
Ez daustot, ez, inori opa onakorik.
Ez dot inor ikusi gura, ez, onako
egon-ezin larrian, oiñazez jausirik.

Deika, deika diardut egunaren luzez,
deika, bai, zinkulíñez, negar garratzean;
alan be zuk eztozu, ez, belarriz artzen
nire dei bizi onen oiartzun ozenik,
ta saminaren sua yat aziagotzen.

Oiñazez dot biotza, oiñazez soin dana,
 negar gauan itorik gunaren barrena,
 odol-iturri ditut begi zuloak be.
 Onan noiz arte nazan biziko ez dakit,
 eta iltea, bear bada, ez litzakit obe?

Joan ziñan goiz batez. Betiko joana?
 Onexek daust sastatzen izate osoa,
 onexek daust -erio sastakai zolia-
 barrua lazki, eten gabe, inarosten,
 Il eziñaren kezka, naas-maas ugaría.

Argiak ez dau pozik, ez zelai berdeak,
 Zorazi al? Miñaren saria litzakit.
 Baiña, maite! Nik eztot gura zoratzerik.
 Isterik eztot gura. Bizia bai eder!
 Noiz poztuko nau zure irriak, bizirik?».

Il-kexu oneik jalgiz, lizar adarrian,
 maiteño galdu billa asi zan zolia.
 Egazti naiz gizaki, bardintsu zorian.

Ene etxea!

KAEgutegia 2 (1952) 107; Karmel-Sorta 2, 118

*Atsegín ta jauregia or bízi ízan arren,
íñon aurkíez etxe bárru lez pozarren;
ortzetíko líllurak aratzen índarrez,
ta ango beroa ezín aurkí lúdí-autsez.*

*Etxe eder, ene etxe maíte,
Etxe eder, ene etxe maíte.*

*Etzetik at, dízdíraz asperrík argía.
Oí! bíur niri, ene etxe gain gorria;
abes-eioka alái auzoan txoria...
Emoídazu gaur-gero bake-poz guría,*

*Zu lako zozorík baí ete?
zu lako zozorík baí ete?*

Iturriak negar

Goiznabar 132; Milla euskal-olerki eder (1954) 728-729; Karmel 1986-1 11;
Karmel-Sorta 2, 100-101

*Aldapa-saietsean iturri yaukala,
gaiñez lertzen dauksola pagoak itzala.*

*Ene laguna ta ni bertan lotu gara,
uraren jauziari oldozkor begira.*

*-«Zergaitik, adiskide, negarrez itoa,
iturritxo lirain onen jarioa?».*

*-«Ez, maite, ez dok ori biotz-min oiua;
ori dok lizar-txori poztu-nai ulua».*

*-«Lizarrak pozteko ez bear ulu miñik;
txoriak barriz ba-dau txinta-jo ederrik».*

*-«Antz-asper gabeok, siñets niri, arren,
Jainko'ren aintzaz dozak barne-otoitz guren».*

*Lizar-osto artetik keiñu eguzkiak...
Negar-itoin bizi, ak eta nik begiak.*

Esku utsak

Goiznabar 143-144; *KAEgutegia* 6 (1956) 47-48; *E-Gogoa* (1955, 5-12. zenb.) 82;
Karmel-Sorta 2, 138-139

*Ez dakit nik, baiña bai laiño ta mendiak...
 Min dot biotz erdian, oso ikaragarri;
 lotsa naz soin dardara, matrail-azal gorri.
 Naita luzez bizi, uts dodaz esku biak.*

*Min baltzez zamaturik mozkortua nabil:
 negar-ibai begiak ta buru apala.
 Norantza zuzen daiket ene urrats argala?
 Ai, ene! Zer gerta yat? Eskale naz zirtzil.*

*Bai, aritz-kima luze ene esku igarrak...
 Ez bai-dira egundo ezertara saia,
 ezta inoiz oratu ez atxur, ez laia.
 Ta gaur dakustaz miñez, erreka idor, utsak...*

*Noizka giz-barne griña garatu orduan,
 ames urdin oingea eio ditut zoro;
 baita baratze zear larrosa ta mao,
 sarri lastandu bere, irrika mosuan.*

*Eta zer? Mintza naiten orain lots gorrian:
 ez dot lur gainez bein be sokillik irauli,
 ez muño-egalean sasirik ebagi:
 ez zugatzik birlandu ibai-saietsian.*

*Ez dot inoiz azatzik soloan atera,
 ezta oraindikarren azirik ezkotu,
 artorik ez garirik igitaiz ikutu,
 Jainkoaren esana jaurtiz ezkerre.*

*Ez dakit nik, baiña bai laiño ta mendiak...
Geroztik naz gau t'egun zerurantz azartu,
urdiñaren ixilla nairik estalgetu:
mendeko nau, alan be, ezin atz lodiak.*

*Jauna, Jauna, erruki zakidaz or goitik,
ez nagizu betikoz albora egotzi.
Zuk, arren; nagizu indar-orioz igurtzi,
ta nire atzak dozuz arnariz jantzirik.*

*Oí, nere ereskin ai-zale, ixil-ezkon aratza:
ots samiñez, otoi, birlora nire ames-baratza.*

*Bai, ta líliak sortuko ezker-eskoi bidean,
igarra barriz piztuko biotz-barren jausian*

Lizardiren amesa

Karmel 1985-90; Karmel-Sorta 2, 207-208

Ames txar bat egiña
nozue lengoan...

Gure errí maitea
txit larri nekusan,
ordeka soil legor bat
iduri. Ez mendí,
ez baserri, ez ezo,
etzan ez agíri...

Ez-ta euskerarik,
gure izkuntz lerdénik,
ílla baitzan betíko,
betíko joanik.

Urreratzen naiake,
ta... ba-dakízue
zertan ziarduen?
Asmau al dozue?

Euskal iztegi aundi
batí, arduratsu,
azkenengo orraztuak
egíten irádu,
euskera ordurako
il-lurperatua
zanik be oartzeka.
jaun-taldé yaiua!

Zelai erdian, baiña,
jaun-taldé ulezuri
agurgarri batzuek
leiaz ziran ari
maí baten inguruka,
paper eta idaztur,

*liburu-sail aundien
aurrean buru-makur.*

Bertatik yatan

niri gatzatu:

«Asto ilari

uzkitik zuku».

Kantari bizi naiz*Nere baserria (1975/1985) 59-60; Karmel-Sorta 2, 241-242*

*Eztarri leun, biotz gjar,
goiz eta arrats kontuz nabil;
lan artean laguna dut
nere Jone beti urbil.*

*Lizar zuta zait dardaraz
biotz espak aditzean,
batak dio besteari
erantzuten poz betean.*

*Gure kanta da luzatu
inoiz mendi gaiñeraiño:
“Nik zu zaitut maite-maite,
txoriak bere kumeak baiño“.*

*Bizitzea ez da ezer
albistea bada palta:
biotzaren arnas muiña
duzu, maite, gure kanta.*

*Berez zaigu guri sortzen,
naiz alaiian, naiz nekean;
etxe-barne, soro lanez,
biok gaudé su berean.*

*Kanta, biotz, kanta zoli!
inoiz ere aspertzeke
Or oiana abes-maixu,
beti surmur, ez du neke.*

*Izarrak leun argi dagi
bere ibilli sotillean,
argi, kantu gaitzen gu
alai geure etxaldean.*

*Orri-lorean intzirian
betorkigu biotzari
urte aro guztietan
eiera antzo gu kantari.*